



Loraldia bizi izaten ari da euskarazko komikigintza

Ixusko Ordeñana EHuko irakasleari elkarriketa



BIZIKLETA FESTA GORLAKO MALDETAN

'Gorla asteburua' antolatu du Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolak: domekan, Gorlako 48. Igoera jokatu da; eta bezperan, Gorlako I. martxa zikloturista, Pello Garitanoren omenez / 32

Lokatza Ziklismo Eskolako kideak eguaztenean, Ugarrizan, mozorroekin eta karteekin. Zapatuko zikloturistendako martxan mozorrotuta joateko dei egin dute. XABIER URZELAI



Arrasate, Oñati eta Bergarako alkateak, Mugikortasuneko foru-diputatuarekin. GOIENA

Elorregiko geralekua hobetzeko aurrekontua adostu dute / 4

ORDU ALDAKETA

Udako ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko ordu bietan, hirurak izango dira.



SINADURAK

 AGURNE JULDAIN / 8	 ANA CARPINTERO / 22
 OIANA SANCHEZ / 11	 UXUE MONTERO / 0
 JULEN ABASOLO / 16	 MIKEL ARREGI / 40

SKODA ENYAQ IV



DISFRUTATU TEKNOLOGIAZ!

Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 35 • ARRASATE • 943 71 18 70



Lanbide Heziketako eskaintza Goiaz! azokan

Martxoaren 29an eta 30ean jarriko dituzte informazio-mahaiak ibarreko Lanbide Heziketako zentroek eta beste zenbait erakundek; eguaztenean, gainera, solasaldia izango da, ikasleen esperientziak ezagutu eta bertaratutakoan zalantzak argitzeko

Idoia Aranbarri Arzuaga DEBAGOIENA
Goiaz! Lanbide Heziketaren Azoka egingo dute martxoaren 29an eta 30ean Arrasateko Kulturateko klaustroan. Eguaztenean, 08:30etik 14:30era eta 16:30etik 18:30era izango da; eguenean, berriz, goizez bakarrik. Hamabosgarren edizioa izango da aurtengoa eta beste urte batez antolatu du Debagoieneko Mankomunitateko Garapen Agentziak, eskualdeko Lanbide Heziketako zazpi ikastetxeekin batera eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Mankomunitate-tik azaldu dutenez, helburu nagusia da, batez ere, "Lanbide Heziketa ezagutzera ematea eta lan-merkaturako balizko aukera bezala aurkeztea".

Lanbide Heziketaren nahiz prestakuntzaren inguruko informazioa eskainiko dute baimarako zazpi zentrok –Oñati Gestio Heziketa, Bergarako Mariaren Lagundia Ikastola, Miguel Altuna Lanbide Heziketa, Aretxabaleta Lanbide Eskola, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Arizmendi Ikastola eta Oñati Institutua–; baita eskualdeko enplegu eta prestakuntzako agenteek ere, hala nola Bastida Akademiak, Arrasate Helduen Eskolak (EPA), Lanekik eta Ikas Debagoienak.



Zenbait ikasle, Goiaz! azokaren aurreko edizio batean. D.M.

Guztira, hamabi familia profesionalak 25 ziklo ikasi daitezke ibarretik atera gabe.

Informazioa eskura edonork

Zikloen eta prestakuntzen gaineko informazioa eskuratu nahi duen herritar oro joan daiteke Kulturaten jarriko dituzten standetara. Ikastetxeetako irakasleek eta ikasleek emango dute informazioa. Antolatzaileek adierazi dute, "neurri handi batean, ikasleei edo ikasketen ibilbide horretan aukeraketa egin behar duten ikasle horiei" zuzenduta-

ko azoka dela: "DBHko eta batxilergoko ikasleak izan daitezke, baita zikloetan dabilen ikasleak ere, horietako askok beste beste ziklo bat egiten baitute". Horregatik, dagoeneko baimarako zortzi ikastetxerekin bisitak lotu dituzte, eta, aurreratu dutenez, 225etik gora ikasle pasako dira.

Gurasoentzat ere bada, eta horren adibide da eguaztenean 18:30ean Kulturateko Aretu Nagusian egingo duten *Nik ere Lanbide Heziketa aukeratu dut* solasaldia. Ikasleen esperientziak

ezagutu eta zalantzak argitzeko abagunea izango dute gurasoek eta Lanbide Heziketan interesa dutenek. Parte hartzeko, izena eman behar da www.fpdebagoienalh.eus webgunean.

Erasmus Plus eta erakusketa

Hamabosgarren edizioa bi berrikuntzarekin dator, gainera: alde batetik, Erasmus Plus txokoa jarriko dute. Lanbide Heziketako ikasleek aukera daukate praktikak Europako herrialde batean egiteko. Horregatik, Mankomunitatek aurreratu dutenez, txoko bat jarriko dute, mapa batekin, une honetan ikasleak egonaldia zein lekutan egiten ari diren ikusteko. Era berean, esperientziak ezagutzeko aukera izango dute bertaratzen diren herritarrek.

Beste alde batetik, *Debagoienan eginga* erakusketa jarriko dute. Lekua egin nahi izan dio ibarreko industriari, eta eskualdean ekoizten diren produktuak izango dira ikusgai: "Hainbat enpresak utziko dizkigute euren produktu edo pieza batzuk eta Kulturatera eramango ditugu. Azpimarratu nahi dugu gurean industriak duen pisua eta, aldi berean, gazteei ikusarazi zer-nolako produktuak egiten diren".

Hori etorriko denaren "lagin txiki" bat besterik ez dela diote. Izan ere, irailera begira, asmoa daukate erakusketa handitu eta herriz herri ibiliko den erakusketa sortzeko.

Halaber, datozen asteetan ere Lanbide Heziketako ikastetxeak bertatik bertara ezagutzeko aukera egongo da zentroek egingo dituzten ate irekietan. Ordutegien eta eskaintzaren gaineko informazioa www.fpdebagoienalh.eus atarian dago.

Atez atekoaren balorazio positiboa Oñati eta Antzuolan

Gehiengoak araudia betetzen badu ere, zenbait ohartarazpen egin ditu Mankomunitateak

I.A.A. DEBAGOIENA

Debagoieneko Mankomunitateak ondorioztatu du atez ateko araudia errespetatzen eta betetzen duela Oñatiko eta Antzuolako herritarren gehiengoak, eta herritarrek zoriondu ditu, "guztien artean eginiko esfortzuegatik eta ahaleginaregatik". Kontzientiazio eta informazio kanpaina egin zuen bi herrietan Mankomunitateak duela aste batzuk, hondakin-bilketa eredu erdigunean jarri eta hari balioa emateko.

Hala ere, arau-hauste batzuk atzeman, eta ohartarazpenak egin ditu: hondakinak lurtean ez uztea –"are gutxiago", bereizi gabe baldin badaude–; hondakinak kuboan eta organikoa, aldi berean, poltsa konpostagarrietan ateratzea eskitokira; orduak errespetatzea; eta ontzia hustu ondoren ahalik eta azkarraren erretiratzea.

Oñatiren kasuan, kartoi-kaxak lurtean ez uzteko dei ere egin du, eta horiek garbigunera eramane edo atarietako paperaren eta kartoiaren edukiontzian uzteko eskatu du. Antzuolan, berriz, traste zaharrak ateratzeko araudiaren berri ere eman du, eta gogorarazi du egutegia errespetatu egin behar dela.



Parke fotovoltaikoa sortzeko lanak, hastear

Atzo arratsaldean egin zuen lehen batzar orokorra Leintz bailarako Ekiola kooperatibak; jorratu zituzten gaien artean egon ziren lehen Errektore Kontseilua osatzea, Ekiola proiektua aurkeztea eta garapen- eta sustapen-proposamenak

Idoia Aranbarri Arzuaga ARRASATE

Atzo arratsaldean egin zuen Lehen batzar orokorra Leintz bailarako Ekiola kooperatibak, Arrasateko Amaia antzokian. Bazkideei nahiz herritarrei zuzendutako batzarra izan zen eta bi zati izaten zituen asanbladak: alde batetik, lehen zatian, proiektuaren informazio eguneratua eman zuten bertaratutako guztientzat, hala nola bazkide kontsumitzaileen kopurua, bazkide laguntzaileen aurkezpena, kooperatibak sinatuko dituen kontratuei buruzko informazioa, kooperatibak eskatuko dituen finantzaketa terminoak, energiaren prezioa eta proiektuaren epeak. Gainera, kooperatiban sartu nahi zutenei horretarako aukera eman zieten. Bigarren zatia bazkideei zuzendutakoa izan zen; izan ere, kooperatibaren lehen Errektore Kontseiluko kideak eta ordezkioak izendatu zituzten bazkideek, bozketan bidez, bost urtetarako.

400 familiarendako energia

Iaz egin zituen herritarrendako proiektuaren aurkezpenak Ekiolak, herriz herri. 400 familiaren elektrizitate beharrak asetzeko beste energia sortuko dute, eta, azaldu zutenaz, dagoeneko 204 bazkide ditu kooperatibak. Azpimarratu zuten oraindik beste horrenbesterendako lekua dagoela. Energia kooperatibaren %65 herritarrek osatuko dute, eta gainerako %35ak bazkide laguntzaileak izango direla adierazi zuten. Arrasateko Udala, Fagor Arrasate eta Laboral Kutxa izango dira bazkide laguntzaileak.

Proiektuaren epeak

Arrasateko Garaia Parke Teknologikoan jarriko dute instalazio fotovoltaikoa –10.000 metro karratuko zabalera eta 1.200 panel fotovoltaiko– eta han sortuko da familia horientzako autokontsumorako energia. Da-

goeneko lizentziak eskatu eta tramiteak eginda, atzo aurreratu zuten apirilaren erdialdera hasiko dituztela plaka fotovoltaikoak jartzeko lanak. Lau bat hilabete irautea eta abuztu amaierarako obrak amaitzea aurreikusten dute. Ondoren, irailean martxan jarriko dute instalazioa: "Ordutik aurrera ikusiko dute bazkideek energia propioa sortzeak ze onura dituen euren fakturretan".

Parke fotovoltaikoa eraikitze aurrekontua itxita dago eta 1.557.440 eurokoa da. Proiektua garatzeko, IDAEko, Foru Aldundiko eta Eusko Jaurlaritzako dirulaguntzak eskatu ditu, eta jakinarazi zuten lortu dituztela. Halaber, maileguak sinatu ditu Laboral Kutxarekin –eraikuntzarekin hasi eta hasierako ekarpenaren zenbatekoa murrizteko– eta Energiaren Euskal Erakundearekin –soberan dauden plazei dagokien diru ekarpena aurreratzeko–.

LKS Krea enpresako kide Hodei Arzakek gidatu zuen batzarra, eta, haren esanetan, "hemendik aurrera Errektore Kontseilu berriak eta parte hartzen duten bazkide kontsumitzaile guztiek erabakiko dute Leintz bailarako Ekiolak ze proiektu berriri edo erronkari eutsi nahi dioten".

ASTE SANTU OSTEAN HASIKO DIRA GARAIA EGUZKI-PARKEA ERAIKITZEKO LANAK

400 FAMILIAREN ELEKTRIZITATE BEHARRAK ASEKO DITU LEINTZ BAILARAKO EKIOLAK



Garaia Parke Teknologikoko lurretan jarriko dute eguzki-parkea. EKIOLA



Hauek dira Gipuzkoarako eraikitzen ari garen etorkizunerako oinarriak. Gure ekonomia indartzeko, pertsonak babesteko eta gure ingurumena zaintzeko lanean ari gara. Gure etorkizuna orain hasten delako.

Etorkizuna Orain.

etorkizunaeraikiz.eus





Elorregiko autobus geltokiaren gaur egungo itxura eta geralekuak izango duen itxura berria. IMANOL BELOKI

Elorregiko autobus geltokia hobetu nahian

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako Sailak sinatu du Elorregiko autobus geltokia "hobetzeko" hitzarmena Bergarako, Oñatiko eta Arrasateko udalekin. Guztira, 222.000 euroko aurrekontua zehaztu dute

Imanol Beloki Unamuno DEBAGOIENA Elorregiko autobus geltokiko proiektuari lotutako hitzarmena Oñatiko alkate Izaro Elorzak, Bergarako alkate Gorka Artolak, Arrasateko alkate Maria Ubarretxenak eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatu Rafaela Romerok sinatu zuten, eguaztenean. Hamabi asteko epea aurreikusi dute lanetarako, eta, guztira, 222.000 euroko aurrekontua zehaztu dute; Diputazioak %60 jarriko du eta gainerakoa hiru udalen artean banatuko da. Zenbait udali eta Gipuzkoako Foru Aldundiari dagokien proiektua bada ere, fase honetan Oñatiko Udalak lidergoa hartuko du. Hau da, Oñatiko Udalak izan du proiektuaren egiteko ardura, eta lehiaketak publikoaz ere hura ardurtuko da.

Azaldu dutenez, asmoa da markesina "berri eta modernoa" instalatzea, eta, azken urteetako aldarrikapenei men eginez, bai-

ta komuna ere. Alabaina, ur-horridurako "zailtasunak" direla eta, ohartarazi dute behin-behineko komun kimiko bat jarriko dutela, hasiera batean. Horrez gainera, bizikletentzako aparkalekua eta argi-instalazioa hobetu nahi dituzte, erabiltzaileei "zerbitzu hobea eta inguruenari segurtasun handiagoa" emateko.

Zerbitzua hobetzeko asmoz

Rafaela Romerok azaldu duenez, "urrats positiboa" da azpiegiturak egitea, baina, ostean, "eskuragarriak eta kalitatezkoak" izan daitezen mantendu behar dira. "Garraio publikoko sare ona dago, baina ezinbestekoa da hobetzea, bai zerbitzua eskaintzea-

ESLEIPENA HIL HONEN AMAIERAN ATERA GURAKO LUKETE; ETA LANAK, BERRIZ, UDA AURRETIK HASI

ri dagokionez, bai azpiegiturak hobetzeari dagokionez". Hala, nabarmendu du horren adibide dela erabiltzaileentzako eta langileentzako espazio izango den intermodal hori.

Uda aurretik hasteko asmoz

Esleipena martxoaren amaieran atera gura luke, eta, epe administratiboak bukatuta, ondo bidean, uda aurretik hasi lanak, Oñatiko Udalak aditzera eman duenez. Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak, berriz, azpimarratu du Arrasateko aurrekontu parte-hartzaileetan eskari handiena eragin duen proiektuetako bati erantzun dietela, eta inguruaren berriak "horren erabilera eta gozamina hobetzea" eragingo duela. Azkenik, Gorka Artola Bergarako alkateak azaldu du instalazioek eragina duten eremua ez dagoela Bergarako lurretan, baina, erakunde publikoa izanik, "herritarrei ahalik eta zerbitzurik onena" bermatzea dagokiela.



Gorrotxategi Txokolate Museora egindako irteeran. GOIENAGUSI

"Partaidetza bultzatuko dugu, eskualde izaera zabalduz"

Goienagusiren batzar orokorra astelehenean egingo dute, Kulturateko areto nagusian, 10:00etan

I.B. ESKORIATZA

Debagoienean jarduten duen Goienagusi kultur elkarteak ohiko batzar orokorra deitu du astelehenerako. Kulturaren batuko dira elkarteak kideak, eta han, 2022. urteko ekitaldia eta 2023ko plangintza aztertuko dituzte, besteak beste.

Lehenik eta behin, 2022ko kudeaketa txostena eta urteko kontuak aztertu ondoren, onartzea eramango dira. Hala ere, aurreratu dutenez, balorazioa positiboa izan da, eta aurtengo ikasturterako planteatutako ildo nagusiak edo erronkak baloratuko dituzte. Hori izango da gai nagusia. "Eskualdeko izaera indartzea ezarri genuen erroka nagusi moduan, eta hamabost egunean behin Oñatin hitzaldiak antolatzen hasi ginen. Batzar orokorrean ez dakit nola ikusiko duten elkarteak, baina lau bazkidetik 24ra iritsi gara Oñatin ikasturte honetan. Horrekin batera, juntako kideak batzordeetan banatzeak funtzionatu egin duela adieraziko dugu. Zortzi batzordetan banatuta, bakoitzean lau edo bost pertsona gaude, eta gero, horien koordinazioa dugu juntan; konturatu gara hobeto funtzionatzen dugula. Azkenik, gure elkarte bisibilizatzea ere bagenuen zehaztuta, eta horretan ere ari gara", aurreratu du Rosa Urretak, Goienagusiko presidentea.

Aurrera begirakoak zehaztuta

2023ko ekitaldira begira ere Zuzendaritza Batzordeak aurkeztu

duen plangintza orokorra ikusi eta batera doazen sarreraren eta gastuen aurrekontua eta urte osoko kuota ezartzea proposatuko dute: "Ikasturtea amaitzeko esku artean ditugu astelehenerako eta asteazkenetako hitzaldiak, idazketa tailer bat, Wikiloc tailerra, baita zenbait irteera ere; tartean, Iparraldera bi eguneko irteera. Azken hori, ekintza berezi moduan. Aurrera begira, berriz, Oñatin hasi ditugun hitzaldiei jarraipena eman edo ez zehaztuko dugu; galdetegi bat ere ezarriko dugu intereseko gaiak batzeko, eta, bereziki, partaidetza bultzatuko dugu, eskualde izaera zabalduz", adierazi du Urretak.

Mahaikide berriak

Amaitzeko, Zuzendaritza Batzordean mahaikide berriak izango diren hautagaiak aurkeztu eta baiezkatuko dituzte. Iaz 215 lagun ziren, eta gorakada izan du elkarteak; izan ere, aurtun 240 lagunek osatzen dute Goienagusi. "Lau irtengo dira, lau sartu eta lau geratu. Hala, bi urteko zikloari amaiera emateko".

Batzararen ondoren moka-dutxo bat elkarrekin partekatzeak aukera izango dute elkarrekin.

IKASTURTE HONETAN 25 LAGUN GEHIAGO BATUTA, GUZTIRA, 240 PERTSONA DAUDE GOIENAGUSIN

Negu bero eta lehorra izan da aurtengoa

Negua atzean utzi eta udaberrian sartu berri gara asteen. Euri gutxi egin du neguan: Arrasateko estazio meteorologikoan jasotako datuen arabera 290,7 litro bota ditu metro koadroko; hori horrela, Urkuluko urtegia %70,59ko betetze-mailan dago

Arantzazu Ezkibel Galdos ARRASATE
Udaberrian sartu berri gara asteen: hain zuzen, martxoaren 20 iluntzean. Atzean geratu berri den negua beroa eta lehorra izan da. Honela azaldu du Euskalmeteko meteorologo Eguzkiñe Iturriotzek: "Ez du denean giro bera egin: mende-baldeko kostaldean giroa oso hezea izan da, baina barrualdean lehorra".

2022ko abendua, adibidez, inoizko beroena izan dela azaldu du: "Inoizko abendu beroena izan da aurtengo neguko. Urtarrilaren bigarren hamabostaldian sartu ginen benetako negu giroan. Urtarrilaren



Aurtengo urteko lehen egunetan nola zegoen Urkulu, betetze mailaren ia erdira. X.U.

16tik 19rako egunetan, esaterako, neguko denboralea izan genuen. Euria erruz egin zuen, baita elurra eta haizea ere". Otsailean, berriz, izotz-egun asko izan zirela nabarmendu du. "Otsailaren 23an elurra kota ertainetan egin zuen, baina 27an itsas mailaraino jaitsi zen elurra", dio.

Euri gutxi egin du

Arrasateko estazio meteorologikoko datuei erreparatuta, haxe dio Iturriotzek: "Arrasaten euri gehien egin zuen eguna urtarrilaren 16a izan zen: 41,6 litro egin zituen metro koadroko. Negu osoan, aldiz, 290,7 litro egin ditu metro koadroko". Datu hori txikia dela nabarmendu du: "Iazkoa ez zen negu euritsuena izango, eta 576,6 litro egin zituen". Batez beste, neguko tenperatura 7,8 gradu izan da.

Udaberriko lehenengo egunak gorabeheratsuak izango direla dio Iturriotzek, baina luze-ira begirako iragarpenak egiteko oraindik goizegi dela ere esan du Euskalmeteko meteorologoak.

Neguan jasotako datuak

Euskalmetek Arrasateko estazio meteorologikoan hartutako datuak dira -318 metroko altueran-.

- **Temperatura maximoa:** martxoaren 16an, 24,9 gradu, 13:00etan.
- **Temperatura minimoa:** otsailaren 11n, -3,0 gradu, 06:50ean.
- **Prezipitazio guztia, 24 ordutan:** urtarrilaren 16an, 41,6 litro metro koadroko.
- **Prezipitazio bako egunak:** 52 egunetan ez du euririk egin.
- **Prezipitazio egunak:** 39 egunetan egin du euria.
- **Urkuluren egoera:** %70,59ko betetze-mailan dago.



GOXOTASUNEZ
ERAIKITAKO
KALITATEZKO
ESKOLA

BATXILERGOAK



Guztion eskola, guztion artean

MATRIKULAZIOA MARTXOAK 27 - APIRILAK 21

- Zientziak eta Teknologia
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak
- Arteak
- Orokorra

ATEAK ZABALIK
Martxoak 28, 18:00



www.arrasatebhi.hezkuntza.net
943 89 94 78

- Zientziak eta Teknologia
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak
- Orokorra



www.ipintzabhi.hezkuntza.net
943 89 94 44

- Zientziak eta Teknologia
- Humanitateak eta Gizarte Zientziak

ATEAK ZABALIK
Martxoak 28, 17:30



www.onati.net
943 89 92 98



Karma Peiro kazetaria, hitzaldian. K.M.

"Hedabideetan modu diskretuan ari da txertatzen adimen artifiziala"

KARMA PEIRO IKT-ETAN ESPEZIALIZATUTAKO KAZETARIA

Informazioaren eta komunikazioaren zientzietan espezializatutako kazetaria da Karma Peiro. Tokikomen 10. urteurreneko jardunaldietan hitzartzea egingo du gaur

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Interneten, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan eta datuen kazetaritzan espezializatutako kazetaria da Karma Peiro (Bartzelona, 1968). Gaur Getxon egingo diren Tokikomen 10. urteurreneko jardunaldietan izango da, adimen artifizialaren gainean berba egiten. Kataluniarrekin mintzatu da GOIENA, gaiari lotutako aspektu etikoez, gardentasunaz edo komunikazio

digitalarekin loturiko eraldaketak sortuko dituen erronkez. **Zer da adimen artifiziala?** Adimen artifiziala gaur egun gure bizitzan une oro erabiltzen dugun teknologia guztia da. Une oro laguntzen gaituen teknologia hori, dela ospitale batekin edo administrazio publiko batekin elkarreragiten dugunean, dela laneko zereginak egiten ditugunean. Erabiltzen ditugun aplikazio horien guztien atzean adimen

artifizialeko algoritmoak daude. Noski, hor teknika desberdinak eta, beraz, adimen artifizial motak daude. **Zein aplikazio du gaur egun hedabideetan?** Geroz eta gehiago. Esaterako, adimen artifizialak hedabideei lagun diezaieke erabiltzaileei informazio eta formatu pertsonalagoak eskaintzen; edo, informazio-kanalen zatiketa edo informazio-gainkarga badago, hori

guztia kudeatzen. Baina horrek guztiak aspektu etikoak jartzen ditu mahai gainean. Oso erraza da eta faltsuak diren bideoak egitea edo desinformazioa helaraztea. Tresnen erabilera horien guztien atzean gardentasuna dagoela bermatzea ezinbestekoa izango da.

Zein da tokiko hedabideen eta hedabide nazionalen arteko desberdintasuna?

Nik esango nuke baliabide kontua dela. Tresna mota hori eskuragarriago dute hedabide nazionalak, baliabideak baitituzte. Gainera, adimen artifizialeko sistemak ez dira oso intuitiboak, eta horren atzean kazetarien edo profesionalen prestakuntzak egon behar du. Geroz eta errazagoa izango da, eta datozen urteetan geroz eta gehiago ikusiko dugu adimen artifiziala komunikabideetan, lan egiteko tresna oso intuitiboak sortuko baitira.

Prozesuak automatizatu eta informazioa sortzen duten makinak existitzen dira; hori baliatu daiteke kazetaria lan batzuetatik liberatu eta balio erantsi handiagoko lanetara bideratzeko?

Hori hedabide bakoitzaren politikaren arabera izango da. Gaur egun, badira kazetariak egiten dituzten prozesuak automatizatzeko aukera ematen duten tresnak. Datu ekonomikoak edo estatistikoak, eguraldiarenak edo kirol-kontuenak eman ditzaketenak. Baina horiek testuinguru handirik behar ez duten datuak dira. Hala ere, oraindik pixka bat falta dela esango nuke, adimen artifiziala nahiko modu diskretuan ari baita txertatzen hedabideetan.

Zer beldur sortzen dizkigu?

Esaterako, pentsatzea hedabide bateko zuzendaritzak adimen artifizialeko tresna baten inbertitu dezakeela, kazetariak alboratuz. Pentsatu nahi nuke hori ez dela gertatuko, baina hori hedabide bakoitzaren politikaren arabera da. Bestetik, kontuz ibili behar da proban dauden teknologiek. Ezin diraitsu-itsuan onartu. Esaterako, TxatGPT bezalako esperientziak eskaintzen dituen emaitzengatik iraultza egiten ari dira; iritzi-kronika bat edo artikulua bat eska diezaiokezu eta emaitzak ematen dizkizu, baina emaitza hori aztertzen bada ikusiko dugu testuingurua falta zaiola, akatsak egiten dituela. Kontuz ibili behar dugu.

Zeintzuk dira aurrez aurre ditugun erronka nagusiak?

Gure lanaren %100 inoiz ez uztea makinari. Eta hori erronka bat da; izan ere, emango digun emaitza nahiko zuzena izango da, eta hor gure erronka kazetari gisa emaitza horiek egiaztatzea izango da. Lan-denborak aurreztuko dizkigu, baina, era berean, emaitzetan ez da zehatza izango. Beste erronka bat izango da gardentasuna. Albiste bat TxatGPT teknologiak sortu duela esan behar dugu? Hori izango da albistearen sinadura? Erronkak, batez ere, izango dira etikari eta gardentasunari lotuak. Eta, noski, hizkuntza gutxitu baten aritzeak baditu desabantailak. Teknologiak ondo funtzionatu dezan lan gehiago egin behar-ko baita.

Nazioarteko adituen topaleku

10. urteurreneko ospakizuna egingo du gaur Tokikomek, euskarazko 73 tokiko hedabide batzen dituen taldeak —tartean, Goiena—, Getxoko Olatua gurutzaontzien terminalean. Tokikomek komunikazioaren alorreko punta-puntako adituak gonbidatu ditu Getxora. Toki kazetaritza eta demokrazia soziala, digitalizazioa, tokiko hedabideak eta aisialdia... asko dira landuko diren gaiak. Horretarako, BBCKo toki hedabideetako profesionalak eta Norvegiako toki telebistetako ordezkariak, Kataluniako zein Euskal Herriko adituak izango dira hizlari. Tokikomek Valentziako, Kataluniako, Mallorcako eta Menorcako toki komunikabideen elkarteekin batera manifestua sinatuko du, Espainiako Estatuko administrazio publikoari toki komunikabideen sektorea kontuan hartzeko eskaria eginez.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialak
- | Automatizazio eta Robotika Industrialak

ATE IREKIAK

Apirilak 1 11:00etan

Maiatzak 6 11:00etan

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

#LanerakoGertu



Eman izena!

664298683
664298704



mondragon.edu/lanbideheziketa



ZABALIK

AGURNE JULDAIN

Emaitzak, Arrasatek aurrera egiteko

Bi hilabete eskas falta dira udal eta foru hauteskundeetarako eta orain dugu garaia duela lau urte agindutakoak aztertzeke, emaitzak ikusi eta baloratzeko. Gogoratu gure herria nola zegoen lehen eta begiratu orain. Esan egia: ez al zaizu iruditzen Arrasatek aurrera egin duela?

Begira dezagun kultura arloa. Gure herrian tradizioa du musikak eta hor geneukan musika eskola. Baina haren aldean, oraingoa Arrasateren neurriko musika eskola da, arrasatearrok behar duguna. Aitzindaria izandako Aprendices eskola ederki erabiltzeko aukera izango dugu, eta eraikin paregabea musikaz gozatzeko.

Begira dezagun Ekobulebarrera ere. Ez zaigu ahazten Garibai etorbidean nola ibiltzen ziren autobusak eta autoak gora eta behera, etengabe. Alde ederrean ibiltzen dira haurrak eta

gurasoak Biteri parkean, lasai eta eroso. Arrasaten aurrera egin dugu segurtasunean.

AITZINDARIA IZANDAKO APRENDICES ESKOLA EDERKI ERABILTZEKO AUKERA IZANGO DUGU


Trafikoaren antolaketa ere hobeto dago orain Arrasaten. TAO/OTA lagungarria ari zaigun gertatzen, sistemaren hasierako akatsak konponduta;

eta gauza gehiago egokitu behar izanez gero, egokituko ditugu. Batzuetan aldaketak ez dira nahi bezain azkar egin ahal izaten. Ahaleginduko gara alferrikako trabak non dauden antzematen eta gainditzen.

Gogoan dut zein narrasturik hartu genuen Arrasate eta zein arrastaka zebiltzan hainbat arlo orain lau urte, edo, nahiago bada, orain zortzi urte. Gogotik heldu genion lanari Arrasate bizi eta argiagoa egiteko. Denbora galdu gabe ekin genion, gure herria garbi, antolatu eta seguruagoa izateko. Hobeto dago Arrasate, ez daukat zalantzarik.

Zerrenda luzea egin dezaket eragin ditugun aldaketen inguruan. Nahiago nuke, ordea, zeuk osatuko bazenu urteotako emaitzen zerrenda. Poztuko nintzateke. Izan ere, bidelagun nahi zaitugu Arrasatek orain ere aurrera egiteko.

MARRAZKIZ



HANDIK ETA HEMENDIK

Begirada

ANDONI EGAÑA
HTTPS://LABUR.EUS/I1PN3
'BERRIA'-N ARGITARATUA
Ez dakit nola deitu.
Jubilatuaren begirada deituko nioke, baina ez litzateke definizio zehatza, jubilatuen artean askotariko adina dutenak biltzen baitira.
Zahar begirada izendatuko dut, *zahar* horri inolako zentzu gutxieslerik erantsi nahi izan gabe.
Hautatu dut, *zehar begirada*-ren antzekoa delako hotsez, eta izatez berriez, erabat kontrakoa.
Zahar begirada bitxia da.

Kalean zoazela nabarituko duzu, eta ze umoretan zauden, hala jasoko.
Batzuetan ernegagarri gertatuko zaizu; besteetan gozo eta hunkigarri.
Baditu hiru ezaugarri: luzea da –adinekoak ez du presarik, eta badu ere, mantso doa doan tokira–, zuzena da –bista nekatur du adinekoak, eta ongi enfokatu beharra dauka begiratzen duen hura–, eta arra da –luzea eta zuzena izateak lotsagabe punttu bat derrigor eransten dio begiradari, eta horretarako heziak arrak ziren–.

"Hi zein haiz?" edo "hi hi al haiz?" begiradaz itauna luzatzen didatenen arteko hamarretik bederatziz gizonezkoak direla egingo nuke.
Ramon Tamames jaunarena ze begirada klase den esaten ez nuke asmatuko.
Gertatzen zaio askori gertatzen zaigunaren aurkakoa.
Nik, esaterako, buru txarra dut, baina memoria ona.
Tamamesek buru aski ona du bere adinerako.
Memoria hasi zaio huts egiten.
Gerra zibilaz bota zituenak...

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkartea
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Sailletako arduradunak

Xabier Urzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga, Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Bereizibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 18.500 ale
Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

GUTUNAK

Txorbela, Arrasate Musikalekin

MIKEL BALANTZATEGI

TXORBELA OTXOTEAREN IZENEAN
ARRASATE

Duela astebete, Txorbela Otxoteak gogo biziz parte hartu zuen Arrasate Musikalek bere sorreraren 50. urteurrena ospatzeko antolatu zuen kontzertuan, Udal Pilotalekuan.

Gozamen hutsa izan zen agertokian musika eta ilusioa hainbeste ikasle eta ikasle ohirekin partekatu izana; izan ere, gaur egun Arrasaten egin daitekeen musika ez litzateke posible izango kontzertuan parte hartu genuen gehienok aurretik *akademiako* ikasgeletatik igaro izan ez bagina –haiek bai garai gogoangarriak...–.

Gure kasuan, Xabier Barriola zuzendaria bera, Arturo Goikoetxea piano-jotzailea eta abeslari gehientsuenok kantu edo instrumentu ikasleak izan ginen, eta zorretan geunden; gainera, aukera bikaina izan zuen harmailak goraino bete zituen publikoak hainbeste urtetan musika hezkuntzak Arrasateri eman dion eta ematen jarraituko dion ezinbesteko ekarpen kulturalaz ohartzeko.

Bide honetan guztian lagundu duten gurasoei, ikasleei, irakasleei, kudeatzaileei eta abarri eskerrik beroenak; larunbatekoa bezalako

jarduerak eta beste hainbat burutzeko egindako ahaleginak benetan merezi duela erakusten dute. Horregatik, Txorbela Otxotearen izenean, gure eskerrik zintzoenak eta zorionik beroenak.

Eta orain, jarraitzea da bidea. Egoitza berriak, proiektu nahiz erronka berriak eta etengabeko ilusioak etorkizun suspergarria ekarriko digute, baina ahalegina, babesa eta dedikazioa behar izango ditu aurrerantzean ere.

Egitasmo honen partaide sentitzen garen guztiok gure hurrengo proiektuak prestatzen jarraitzen dugu. Txorbelak laster du erronka benetan garrantzitsua, Granadan; ondoren, ekainean jaien programa barruan emango duen kontzertuari helduko dio; eta gero, udazken eta negu garai benetan erakargarria, guztion gozagarri izatea espero duguna.

Izan ere, beste kantu-talde, instrumental eta abarretako kideek ere lan berean dihardute. Txorbela Otxoteak gogo biziz zoriontzen ditu Arrasate Musikal, agertokietan partaide izaten ditugun guztiak, Artzamendi familia, zuzendaritza batzordeak, irakasleak, administratzaileak eta, ez berriki izandako kontzertuaren laguntzaileak soilik, baita etorkizunean

Arrasaten *musiken* hezkuntza eta gozamina hobetzen jarraituko duten guztiak ere. Esker mila.

Gerrari

XABIER ZUBIZARRETA
HIRE LAN-HERRI-JUERGA-UDALKIDEON
IZENIEN
ARRASATE

Eugenio Otxoa *Gerra* hil zela jakitean, haserre sentipen bat jabetu zen gutaz; zer esan, zer egin, zer pentsa asmatu ezinik. Baina bai. Eugenio Otxoa *Gerra* joan zaigu gure artetik. Gatzagako alkate izan eta izango dena.

Asubeazpiko Kontxi Ugalderen eta Andres Otxoa *Gerra*-ren seme, sekula geldirik ez isilik egon ez den mutikoa. Ausarta hura.

Sendi apal bezain ezagun batekoa; harro sentiaraziko ditu ingurukoak.

Haren agurra irribarre batez. Besteen arazoez interesatua, auzoa, herria, Euskal Herria izan du interesgune nagusi, elkartasunaren laia maisuki erabilia.

Haur jolasak, mendi irteerak, gazte dantza taldeak, auzolana txokolate-janarekin edota berrikerari gisa parte hartuz.

Eta jai giroan, murgil eginez. "Laia bai, jaia ere bai".

Gaztarotik herrigintzan, militantzian, sindikalismoan. Iheslari Iparraldean, Francoren heriotzaren

ondoren herrira itzuli zen arte.

Baina Gerra ez zen jaio begira egoteko, eta Arrasaten berriro gizartearen kezkei erantzuten saiatu zen.

Antolatzaile, eragile eta kudeatzaile izan dugu.

Joko-zelaira beldur barik ateratzen zen; erorikoa, berriro jaikiz konponduta.

Kooperatibismoa lehen lerrotik bizi izan zuen, zuzendari ardurak hartuz. Elkarrizketa, giza artea, herrigintza zituen gogoko, Laia sindikatuan borrokatuz eta Elai enpresan esku hartuz.

Baina Gerra miresten badugu, bereziki Gatzagako herrian egindakoagatik da.

Emozioz borborka zuen adimen argiak gidatu zuen ekintzaile gisa, giza harremanetarako zuen abilezia maila gorenean erabiliz.

Hiribildua berpiztea lortu du, eraikinak birbaliatuz, zerbitzuak eskainiz, jarduera ekonomikoak dinamizatuz, etxebizitzak eraikiz, herriko historia eta ondarea berreskuratuz, herritarrentzat baldintza egokiak sortuz eta, finean, elkarbizitza sustatuz, hartarako ospakizun berean alkate eta dantzari bezala parte hartu behar izan bazuen ere.

Artista izan haiz!
Adiorik ez, lagun! Baina – Gerrari jarraituz – saltsa guztietan sartuz.
Aurrera bolie!

Arrasateko Arte taila klubaren 40. urteurreneko erakusketa dela eta

MARIA LUISA DOMINGO

ARRASATE

Artelan haiek sortu dituzten esku trebeekiko miresmenez eta errespetuz idatzi nahi ditut lerro hauek, eta nire zorionik beroena adierazi nahi dut beren lan bikainagatik.

Zuraren lana Euskal Herrian ofizio tradizionala izan da eta gure kulturaren eta sustraian isla bizia izaten jardraitzen du.

Kulturaren egon den erakusketa horren erakusgarri zoragarria da.

Pieza bakoitzaren atzean ordu askotako dedikazioa, esfortzua eta gustu ona daude, eta horrek arte horrekiko grina eta maitasuna erakusten du.

Xehetasun bakoitza inspiratzen eta hunkitzen duten lanak sortu dituzten artisten maisutasunaren eta trebetasunaren erakusgarri da.

Erakusketa hori euskal tailugileen sormenari eta talentuari egindako omenaldia da, eta ziur nago ikusi duten bisitari guztiak ere miretsita eta horrenbesteko edertasunak harrapatuta sentituko direla.

Zorionak artistei eta eskerrik asko zuen obra munduarekin partekatzeagatik!

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritziz-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otolara Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!

GARBINE UBEDA





Arrasate Herri Eskolako Musakolako eraikin berriak izango lukeen itxura. 3.552,09 metro karratu izango ditu. EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA SAILA

Eraikin berria edukiko du Musakola Herri Eskolak

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak 5,7 milioi euro bideratuko ditu Musakola Herri Eskolan eraikin berri bat egiteko, eta lizitaziora aterako du obra; duela bi urte, esleitu gabe geratu zen, enpresak uko egin ostean, eta ikastetxeak zuhurtziaz hartu du albistea

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE Hezkuntza Sailak 5.731.067,15 euro jarriko ditu Musakola Herri Eskolan eraikin berri bat egiteko, 5 eta 12 urte arteko ikasleentzat –egun, Erguinen daude–. Azaldu dutenez, 3.552 metro karratuko azalera izango du eraikin berriak, lau solairutan banatuta, eta egungo eraikinaren jarraipen gisa planteatzen dute, "komunikaziorako gune bertikalen bidez lotuta".

Horretarako, aterpea kendu egingo dute eta eraikin berriak hartuko duen gimnasioaren az-

pian beste aterpe bat sortu. Era berean, egungo aterpea Bedoñabera eramateko aukera aztertzen ari da ikastetxeko zuzendaritza. "Ziurtatu digute tratamendu bat emanda konpondu daitekeela, nahiz eta garestia izan, eta hori aprobetxatuko genuke Bedoñaben jartzeko", adierazi du Iratxe Salaberriak, Arrasate Herri Eskolako zuzendariak.

Barruan, besteak beste, Lehen Hezkuntzako sei gela eta gimnasioa jarriko dituzte. Halaber, gimnasioa eta aldagelak lehen solairuan egongo dira, eraikin

nagusitik nabarmenduta geldituko den irtengune gisa, eta irtengune horrek sarrerako atari eta jolastoki estalia sortuko ditu bere azpian. Horrez gain, jangela eta sukaldondoa beheko solairuan kokatuko dira.

Lizitaziora aterako dute

Hezkuntza Sailak berriro abiatuko du eraikuntza-proiektu hori esleitzeko prozesua. Izan ere, duela bi urteko lizitazioan gauzatu gabe geratu zen, enpresa esleipendunak uko egin ondoren. "Beraz, oraingoan, Hez-

kuntza Sailak prezioa eguneratuta eta %26 handituta aterako du proiektua lizitaziora", azaldu dute Jaurlaritzatik. Proiektuak 17 hileko exekuzio-epea izango du, lanak hasten direnetik.

Hamahiru urteko bidea

Musakolako eraikin berriaren prozesua duela hamahiru urte hasi zen. "Orduko hartan eskatu zen eta urte hauetan guztietan egon gara horren atzetik, gu eta guraso komunitate osoa. Esfortzu handia egin zen egoera desblokeatu eta aurrera egin ahal izateko. Izan ere, patioan transformadore bat zegoen eta hori kentzeko tirabiran ibili ziren Udala eta Jaurlaritzak", adierazi du Salaberriak. "Azkenean, Udalak kendu zuen eta proiektua gauzatu ahal izan zen. Pandemia garaian, arkitektoak aurkeztu zigun proiektu osoa eta zenbait enpresa etorri ziren ikustera zer zen egin beharrekoa".

Esleitutako enpresak proiektua bertan behera utzi zuen, ezin zielako gastuei aurre egin, eta

horrek "atsekabe handia" eragin ziela aitortu du ikastetxeko zuzendariak, "bai guri eta baita guraso komunitateari ere". Hala, komunitate osoa berriro martxan jarri zela azaldu du, Jaurlaritzak proiektuari berriro heldu ziezaion. "Bide horretan, Udala beti egon da gurekin eta Hezkuntza Sailak ere beti esan izan digu aurrera egingo zuela, nahiz eta guretako motelegi izan".

Albiste ona den arren, ikusitakoak ikusita zuhurtziaz jakatu gura dutela dio Salaberriak. "Lehengoa ez gertatzeko, proiektua %26 handituta aterako du proiektua lizitaziora Jaurlaritzak, enpresen arteko lehia handiago izateko. Beraz, orain arte baino berme gehiago daude, baina ikusi egin beharko da zer gertatzen den". Horrekin batera, prozesuak aurrera eginda ere, eraikin berria errealitate izan arte "bide luzea" geratzen da, zuzendariaren esanetan. "Baina presioa egiten jarraituko dugu, ea moduren batean epeak moztu daitezkeen". Hala, Hezkuntza Sailarekin eta Udalarekin batuko dira martitzen arratsaldean, gaiaz hitz egiteko.

Eraikin berriaren abantailak

Zuzendariak nabarmendu du abantaila asko izango dituztela eraikin berriarekin; "baina abantaila handiena da Musakolako familiek han bertan izango dutela haien seme-alaben hezkuntza osoa, publikoan, instituturaren iristen diren arte".

MARTITZENEAN BILDUKO DIRA UDALA, HEZKUNTZA SAILA ETA HERRI ESKOLA, GAI AZ BERBA EGITEKO

Babes ofizialeko 51 etxebizitza esleitzeko prozesua martxan da

Visesa sozietate publikoaren baitan dauden etxebizitzak dira, alokairu-erregimenekoak, Zerrajerak kalean

E.A.B. ARRASATE

Alokairu-erregimeneko babes publikoko 51 etxebizitzaren sustapena esleitzeko prozedura hasi du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Sailak, eta apirilaren 3ra arte eman ahal da izena. Alo-

kabide sozietate publikoak kudeatuko dituen etxebizitza horietatik 33k bi logela dituzte –hiru etxebizitza mugikortasun urriko pertsonentzat egokituta daude– eta 18k, hiru logela. Hauek dira bete beharreko baldintzak:

Etxebidieren Etxebizitza Eskatzaileen Erregistroan alokairuko etxebizitza-eskatzaile gisa alta emanda egotea Arrasaten edo Debagoieneko eremu funtzionaleko udalerrietako batean; eskabidearen titularretako bat, behintzat, Arrasaten errolatuta egotea esleipenei hasiera emateko agindua argitaratzeko; jabetzan, azalera-eskubidean edo gozamenean etxebizitzarik ez izatea aurreko bi urteetan; eta bizikidetzak-unitatea sei kide baino gutxiagok osatzea.

Juankar Davila da Ezker Anitza-luren Arrasateko alkategaia

Hainbat alderdikideren babesarekin aurkeztu zuten Juankar Davila (1974, Arrasate), astelehenean. Bi seme-alaba ditu eta ostalaritza sektorean dihardu lanean. "Lan egingo dugu Arrasateko Udal Gobernu bat izan dezan, pertsona begietara begiratuko diena, gertuko, komuna eta guztion zainduz, zerbitzu publikoak bermatuz", dio.



Juankar Davila, astelehenean. E.A.B.

Bruselan, trantsizio energetikoa ardatz

SHREC proiektuaren itxiera-ekitaldia egin dute asteon Bruselan, eta han izan dira Maria Ubarretxena alkatea eta Edurne Unamuno eta Aritz Murua zinegotziak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE 2019. urte amaiera ezkerro, Europako SHREC proiektuaren parte da Arrasateko Udala (*Shifting toward Renewable Energy for transition to low Carbon energy*).

Proiektu horrek karbono monoxido baxuko eredu energetikorako trantsizioa bultzatzen du eta lau urteko ibilbidea egin du. Arrasateko Udalez gain, Europako beste zazpi erakundek osatzen dute proiektua: hiru unibertsitate-Lituaniako Vilnius

Gediminas Unibertsitatea, Herbehereetako Zientzia Aplikatuena Hanze Unibertsitatea eta Suediako Mid Sveden Unibertsitatea-; gobernu mailako hiru energia-agentzia -Eslovakiako berrikuntza- eta energia-agentzia, Frantziako Auvergne Rhone-Alpeen ingurumen- eta energia-agentzia eta Errumaniako Munteniako iparraldeko eskualdeko garapen-agentzia- eta eskualdeko gobernu bat -Italiako Piamonte eskualdea-.



Maria Ubarretxena, Izaskun Bilbao eta Edurne Unamuno, Bruselan. ARRASATEKO UDALA



NIRE USTEZ

OLIANA SANCHEZ

Ale(r)giak

Udaberriarekin batera, polenak bazterrak horitzen ditu, hain zuzen ere, hauteskundeekin batera, kanpaina politikoak gure egunerokotasuna konkistatzen duen bezala. Belarri, begi, aho eta sudurretik biak ala biak sartuko zaizkigu.

Honen aurrean ez dago erremediorik. Hamar medikutik bederatzik antihistaminikoak hartu eta komunikabidetako politika atala ekiditea gomendatzen dute. Hala ere, ezin dugu guztiz ihes egin, azkenean, zer edo zerk suminduko gaitu. Aldi berean, biek logura eta galbana ematen dute. Orain arte bete ez direnak ez dira bat-batean egia bihurtuko. Jakin badakigu alergiak ustekabeen agertu bai, baina ez direla bat-batean desagertzen.

Aurten alergiak eta alegiak nonahi izango ditugunez, hobe dugu lehenbailehen aurretiko mantenua martxan jarri eta beti jakitunei kasu egin. Beraz, nahiz eta hauteskunde kanpaina epean zorabiatu eta burua nahastu, maiatzeko udaberri bukaeran erne egon eta botoa eman. Ale(r)giekin bukatzea denon arteko erantzukizuna baita.

Hala, Arrasateko Udalak tar- te berezia izan du Bruselan egindako kongresuan, eta Ubarretxena alkatea trantsizio energetikoaren bueltan herrian landutako proiektuak aurkeztu

dizkie gainerako partaideei. Besteak beste, "hiru praktika on" identifikatu eta partekatu ditu proiektuko kideekin: energia fotovoltaikoa Arrasateko etxebizitzetan; eguzki energia

ordenantzaren aldaketa; eta ordenantza fiskalen eguneraketa energia berriztagarrien zabalpena sustatzeko. Bidaia baliatuz, Izaskun Bilbao europarlamentariarekin ere izan dira.

Lanbide Heziketa PRIMERAKO AUKERA

GOIAZ!

Debagoieneko Lanbide Heziketaren Azoka 2023

Martxoak 29-30

KULTURATE Arrasate

www.fpdebagoienah.eus

Debagoienean

1.600 IKASLE 7 Ikastetxe 25 Ziklo

ZATOZ LANBIDE HEZIKETA EZAGUTZERA !

Aniztasun funtzionala eta hizkuntzekiko harremana

AEDk antolatuta, aniztasun funtzionala duten pertsonen hizkuntza eskubideei buruzko mahai-ingurua egingo dute martitzenean, martxoak 28, Kulturateko Loramendi gelan, 19:00etan, hiru hizlarik: Elena Zaratek, Nagore Iñurategik eta Agurtzane Barrutiak

Eneko Azurmendi Barrena ARRASATE AEDren *Euskara zubi* zikloaren baitako bigarren saioa izango da, aniztasun funtzionalean eta hizkuntza eskubideetan arreta jarriko duena. "Gizarte normatibo honetan, aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideak ez dira aintzat hartu izan, ezta hizkuntza eskubideak ere. Zorionez, joera horri buelta emateko beharrez ohartzen hasi gara eta aniztasun funtzionala duten pertsonen eskubideak errespetatuak eta bermatuak izan daitezkeen lanean dihardute hainbat eremutan", azaldu dute AEDtik.

Hala, errealtate hori gehiago ezagutarazteko asmotan, hiru pertsonak egingo dute berba saioan: Elena Zaratek, Goyeneche Fundazioak Arrasaten eta Bergaran dituen Garaguneetako arduradunak; Nagore Iñurategik, Huheziko Hezkuntza Berezikiko irakasleak; eta Agurtzane Barrutia gurasoak.

Eskubide asko urratuta dituzte Zaratek azaldu duenez, oro har, gehiengoak erabiltzen duen hizkuntza gaztelania da haienean. "Nahiz eta familiak euskaldunak izan eta haien egunerokotasunean euskara erabili, haiekin gaztelania erabiltzen dutela konturatu gara. Adibidez, bada-go pertsona bat, 50 urte ingurukoa, familia euskaldunekoa dena baina senide guztiekin gaztelaniaz egiten duena. Halako kasu asko daude. Izan ere, bere garaian, medikuek eta hezkuntza arloko profesionalak familiei gomendatu zieten hizkuntza bat bakarrik ikas zezaten, une hartan uste zutelako ez zeukatela gaitasunik bigarren hizkuntza bat ikasteko. Beraz, familieki aukeratu egin behar izan zuten eta haietako askok gaztelaniaren aldeko apustua egin zuten, ulertzen zutelako ate gehiago irekiko zizkiela, euskara hizkuntza gutxitua izanik", dio.



Goyeneche fundaziokoak ipuinak kontatzen, Aniztasun Astearen baitan. GOIENA

AZALDU DUTE SAIOAK BALIOKO DUELA "BEGIAK ZABALDU" ETA ARRETA GAI HORRETAN JARTZEKO

Zaratek onartu du haientzat "oso garrantzitsua" dela pertsonen eskubideak bermatzea. "Saiatzen gara eskubide horiek bermatzen. Kontua da guk arre-ta handiagoa jarri izan dugula eskubide batzuetan, adibidez, irisgarritasunean, pribatutasunean edota informazioan, baina hizkuntza eskubidean ez gara zentratu izan orain gutxira arte". Iñurategik ere ildo beretik erantzun du: "Eskubide asko urratuta dituen kolektibo bat da eta orain gutxira arte beste eskubide batzuetan jarri izan dugu arre-ta. Orain, beste marko batetik ari gara eta ikuspegia aldatu dugu, pertsonetan zentratutakoa".

Aurrerapausoak ematen ari dira Euskaraldiari esker, Zarateren esanetan, begirada aldatu dute: "Ikusi genuen pertsona askok

ez zutela aukerarik izan euskara ikasteko, baina gogoa zeukatela hizkuntza ikasteko edota euskararen erabilera bultzatzeko, txapak banatuz edo banderak salduz, esaterako. Gainera, erronka izan zen egunero hitz bat ikastea eta ikusi genuen uste genuena baino gehiago ulertu eta erabiltzen zutela euskara. Alde horretatik, Euskaraldia inflexio-puntua izan zen".

Profesional moduan, halaber, hizkuntza eskubideak bermatzea dagokiela azaldu du Iñurategik eta horretan lanean ari direla. "Profesional euskaldunak formatzen ditugu, eta hori funtsezkoa da. Izan ere, aniztasun funtzionala dutenek gaur egun erakundeetan gaztelaniaz jasotzen dute arre-ta, gehienbat".

Mahai-inguruaren garrantziaz Iñurategik dio lehenengoz hitz egingo duela gaiak jendaurrean, eta beharrezkotzat jo du, baita Zaratek ere. "Pozten naiz AEDk halako saio bat antolatu eta gugana jo izanaz. Halakoek balio dute begiak zabaltzeko eta arre-ta gai horretan jartzeko, ikusgarri egiteko. Horren ildora, abiapuntua izango da saioa".

GORA ETA BEHERA



Makatzenan, alboko kristalik gabeko markesina

"Urteetako eskaeren ostean, markesina jarri dute, baina alboko kristalik gabe gabe. Bizilagunen ongizateaz arduratu izan balira, ez zuketene inoiz jarriko markesina albokorik gabe, dauden aire-korrante indartsuekin", kexatu da Ander Santiago bizilaguna.



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI?

berriak@goiena.eus

edo 688 69 00 07.



GOIENA

Leire Etxezarreta 'Galdegazte'-n

Arrasate BHIko ikasleek Neomak taldeko Leire Etxezarreta musikari arrasatearra elkarriketatu dute. Iraide Onaindia, Nora Zeziaga eta June Ballesteros izan dira platoon; eta errealizazioan, berriz, Uxue Arana, Arait Lizarriturri eta Naia Osinaga. Martxoaren 30ean emitituko dute solasaldia Goiena telebistan, 21:30ean eta 23:30ean.

OHARRAK

Ziar-Ola Kultur Elkartearen batzar orokorra

Etzi, domeka, egingo dute, elkartean bertan. Lehen deialdia 10:00etan izango da eta bigarrena, berriz, 10:30ean.

Leyre Canoren hitzaldia martitzenean

Haur eta nerabeen emozioen bidelagun: nola zaindu seme-alaben emozioak hitzaldia egingo du, 18:00etan, Kulturateko areto nagusian, Treba Gurasoak prestakuntza-ekimenaren baitan. Aurrez izena eman beharko da www.arrasate.eus/izen-ematea-n.

Ekin Emakumeak Elkarte

Yin-tao ikastaroan lekua geratzen da. Apirilaren 18an hasita, hiru saio egingo dituzte. Izen-ematea, 651 70 79 36-ra deituta.

Trabak aurkariek bakarrik jar ditzatela

Arrasate Rugby Taldeko Amak Pirolitikak taldeak Bilbon jokatu den Mater Series txapelketan hartuko du parte zapatuan. Urtebete daramate entrenatzen, eta pare bat aldiz jokatu dute Espainiako taldeen aurka, baita "txantxetarako" ez daudela frogatu ere

Hasier Larrea ARRASATE

Oro har, hainbat kategoriatako errugbilari gazteen amek osatutako taldea da Amak Pirolitikak, baina, Belen Aranbarri jokalariek zehaztu duenez, "beste kirolen bat praktikatzan duten seme-alaben amek ere badute tokia". Izan ere, astean zehar pilatutako motxilaren zama husteko baliatzen dituzte entrenamenduak. Mojategin batzen dira asteazkenero, 18:30etik aurrera, eta, ziurrenik, datorren denboraldian astean bitan egingo dituzte lan-saioak. "Mater Series-en, denboraldi honetan, Gasteizen eta Sitgesen lehiatu gara, eta oso aurkari serioekin egin dugu topo, esperientzia handiko jokalariekin. Guk orain arte kanpotik jarraitu izan dugu errugbia, neurria hartzen ari gatzatza", dio Aranbarrik.

Desberdintasun horrek lesio larriak ekarri dizkie taldeetako zenbait errugbilariri. Hori ikusita, Mater Seriesko araudia

moldatzen joan dira, eta, gaur-gaurkoz, taldeak bi kategoriatan daude banatuta: *lehia-keta* da bata eta *garapena* bestea. Bilboko El Fango zelaian, bihar, 11:00etatik 16:30ak arte, hamazortzi taldek –horietako bost, euskaldunak– eta 325 emakumek bat egingo dute. Hamahiruk jantziko dute ARTren elastikoa. Aranbarriren esanetan, haiek "errugbi soziala" praktikatzan dute, emaitzari baino gehiago, lagunarteari begiratzen diona: "Ilusio handien egiten diguna aurreko hitzorduetan ezagutu ditugun lagunekin batzea da, baita talde berrietako amekin harremana egitea ere". Arrasateko klubak autobusa antolatu du goizetik joateko, eta senior mailako emakumeak ere han joango dira, zelai berean jokatuko dute-eta ligako partidua, 18:00etan, Uni Bilbaoren aurka.

ARTk Mater Seriesko jardunaldi bat herrira ekarri gura du datorren urtean, gainera.



Amak Pirolitikak, Sitgesko Mater Series-ean. ART



Lau errugbilariek, Senperen jokatzeo prest. ART

Gipuzkoako selekzioarekin

ARTko 15 urtez azpiko Nerea Guerrerok, Laia Sanzek, Izadi Elortondok eta Leah Moralek asteburu berezia dute aurretik, Senperen (Lapurdi) jokatu baitute konbinatu gipuzkoarrarekin, inguruko lurraldeetako ordezkariak parte hartuko duten lagunartekoan.

Martxoak 24 ostirala

Martxoak 25 larunbata

50€*

sartuko dizkizugu EROSKI club txartelean

Haz daitezela zure aurrezkiak

8€
90C-tik gorako erosketetan

15€
150C-tik gorako erosketetan

25€
250C-tik gorako erosketetan

50€
300C-tik gorako erosketetan

ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
 Tel.: 943 71 10 30

*Eskaintza EROSKI club-eko bazkideentzat izango da baliozkooa, Euskadiko, Nafarroako, Kantabriako eta Erikoako EROSKI Hipermarketuetan. Kontsultatu baldintzak zure ohiko dendan.

Kontralde: bidea urratzen, zuzenekoetan erantzunda

Arrasateko punk-rockaren diskografiari beste lan bat batu zaio, Kontralde taldearen 'Erantzunen bila' LPa. Laukoteak bihar, zapatua, egingo du kantu berrien aurkezpen kontzertua, gaztetxean; Hankaz Gora taldeak irekiko du emanaldia, 22:30etan hasita

Hasier Larrea ARRASATE

Zortedun sentitzen dira Kontraldeko kideak, duela pare bat urte sortutako proiektua izanda kartel esanguratsuetan azaltzeko aukera izaten ari direlako. Izan ere, Madrilgo Mostoles auzoan azarna utzi zuten urrian, Neallta Fola, Yugular eta Nafarroa 1512 taldeekin oholtza partekatuta. "Egun batetik besterako kontua izan zen; ostegun batean deitzen dizute ea bi egun barru Madrilen jo nahi duzun; ba, nola esango duzu ezetz!", diote, aho batez. Han emandako itxurak datorren irailean Gasteizko Jimmy Jazz aretoan jotzeko ateak ireki dizkie, Alemaniako Lokamie punk-oi! bandaren biraren baitan. Esperientzia laburreko formazioa izateko, ez da lorpen makala. "Kontziente gara ohi baino goizago iritsi zaizkigula aukera hauek; guk uste dugu kontzertuetan beste taldeekin egin dugun harreman onaren eta zuzenekoetan erakutsi dugun jarreraren fruitu direla", arrazoitu dute.

Naturaltasunez

Helburuak pausoz pauso finkatzen joan dira laurak elkartu zirenetik. Mikel Bolinaga gitarrak joleak jarri zuen iniziatiba, hura eta Julen Altuna baxu-jolea parte ziren Bloom taldea desegin ostean: "Altunari esan nion ideia musikalak garatzen jarraitzeko; Depos-Gaz lokaletan Bakerorekin, Rebel Noise-ko bateria-jolearekin, topo egiten genuen. Hirurok Bloomeko hiru abesti eta zenbait bertsio jotzen hasi ginen. Abeslaria Oxel Arriaran izan zitekeela pentsatu genuen, eta horrela jarri ginen martxan, presio gabe, giro onen eta pixkanaka abesti berriak egiten".

Inguruko gaztetxe eta tabernetan eskukada bat kontzertu eman eta erreperitorio propioa handitzeaz bat, joan den uda bukaeran estudioa joateko erabakia har-



Oxel Arriaran, Julen Altuna, Mikel Bolinaga eta Manex Bakero. H.L.

HAMAR KANTUKO DISKOA ENTZUNGA! DAGO INTERNETEN; APIRILEAN HELDUKO DA FISIKOAN

tu zuten: "Haritz Harreguyren-gana jo genuen, Usurbilgo Higain estudioa, bagenekielako nola lan egiten zuen; ohituago dago talde helduagoekin lan egitera, baina sekulako gertutasuna erakutsi digu, asko lasaitu gaitu eta

oso eskertuta gaude, diskoaren emaitzarekin, baina, batez ere, haren aldetik jaso dugun tratua-rekin".

Erantzunen bila-n ahots ezagun batzuk ere entzun daitezke, hala nola Yugularreko *Ivi* eta *Magulin*-enak eta Never Surrenderreko *Pottoko* eta *Arri*-renak. Baina lagun gehiagok jarri dute euren aletxo: "Añubeko *Hans*-en hitzak daude kantu batean, diskoa Josu Azkaratek diseinatu du, argazkiak Clayton-eko *Ulli*-k ateratzen ditu eta bideoak Mikel eta Andoni Agirre anaiek ondu dituzte". Diskoa bertsio batek ixten du, Bakeroren aita kide zen Heriotza taldearen *Bakardadean*-ek, "kantutxo horrek estudioan grabatua izatea merezi zuelako".

Epe motzean kontzertu gehiago ere egingo dituzte, hilaren 31n Oñatiko Ikatzan, apirilaren 29an Antzuolako gaztetxean eta maiatzaren 13an Zigarrolako iaizeta izango baitira.

Agurtzeko, taldeak daraman izen kuriozua asmatu zuena izan dute gogoan: "Luis Zabala *Gigi*-ri kamiseta bat zor diogu, Goienan duela zenbait urte argitaratutako bideo batean hitz hori lehen aldiz aipatzeagatik".



'ERANTZUNEN BILA'

- **Grabaketa** Higain.
- **Banaketa** Malmai.
- **Saltokiak** Dat, Taupa, Bergarako Arrano, Ikatz, Kixkor.

Beldurrari buruzko antzezlan bihar Amaia udal antzokian

3 urtetik gorakoendako 'Arraina bihotzean' obra taularatuko du Mar Mar konpainiak, 17:00etan hasita

H.L. ARRASATE

Pandemia garaian sortu zuten Bizkaiko Mar Mar konpainia, arlo teknikoko eta artistikoko kideen elkarlanetik. *Tarzan* izan zen landu zuten lehenengo obra, eta, oraingoan, lehen sortuntza propioa plazaz plaza aurkezten dihardute: *Arraina bihotzean*. Marti da protagonista, kresal usaina duen herri polit batean lasai bizi den haurra. "Portuan aita marinelaren zain dagoela, ekaitz batek uretara jaurtiko du, eta itsas hondoa zehar nahitaezko bidaia hasiko du; prozesu horretan, arrainen eta beldurren hizkuntza ikasi beharko du Martik", azaldu dute antzezlanaren sortzaileek.

Aritza Rodriguezek, Maitane Serranok eta Irene Hernandok gorpuzten dituzte obran agertuko diren askotariko protagonis-



Marti, ihesean. MAR MAR KONPAINIA

tak, eta txotxongiloek ere hartuko dute parte istorioan. Irudi eta hitz zainduak erabilita, beldurrarekin bizi izatea "gauza normala" dela helaraziko diete neska-mutilei. Bihar izango da emanaldia, zapatua, arratsaldeko bostetan hasita.

Ana Apikaren 'Besoetako ipuinak' datorren eguaztenean

Hilaren 29an, 18:00etan hasita, 3 urtetik beherako haurrei zuzenduko zaie Ana Apika ipuin kontalaria, Kulturaten. Haur literatura emozioetatik lantzen du Apikak *Besoetako ipuinak* saioan, irudi poetikoak, objektuak, soinu atseginak, abesti txikiak eta liburu-sortak erabiltuta. Bertaratzeko, izena eman behar da aurrez, arrasate.eus-en.



Apika, saio batean. A.EK

Ikuskizun elektroniko landua ekarriko du Orbelek Koolturrera

Lapurtar taldeak modan daude; begira, bestela, Koolturren martxoko kartela; Willis Drummond-ek bezala, Orbelek ere emango du kontzertua gaztetxean. Azken horrek hilaren 30ean 22:00etan dauka hitzordua. Laukotea *Lur hezea* diskoa aurkezten dabil joan den udazkena ezker. Doinu ilunak dituzte zigilu moduan, baina bigarren

lan horretan ahots harmonia eta melodia goxoagoak daude. Tresna tradizionalak baliabide berriekin uztartzea dute bereizgarrien artean, baita kideek musika klasikotik, metaletik eta punketik edaten dutela ere.

Zuzenekoetan, soinuarekin batera, alderdi bisuala zaintzea gustatzen zaie, propio diseinutako argi-jokoak erabilita. Hala, inguruan dauzkaten artisten laguntzarekin, beste dimentsio bat eman diote proiektu musikal freskoari.



Herritarrak, udal arduradunak eta Aztiker Ikerguneko teknikariak, batzarra hasi aurretik. A.E.G.

Eolikoen gaiak hartu zuen protagonismoa

Aramaion Energia Sorkuntzarako Proiektuak batzar informatiboa egin zuen eguaztenean. Aurkeztutako gaien artean, balizko Itsaraz parke eolikoaren gainekoa izan zen nagusia batzarrean. Herri galdeketa egitea eskatu zuten hainbat herritarrek

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO
Udaleko osoko bilkuren aretoa bete egin zen eguaztenean egin zuten energia sorkuntzaren gaineko informazio-batzarrean. Lierni Altuna alkateak eskertu egin zuen herritarren parte-hartzea, eta esan zuen ulertzen duela "jendea urduri" egotea. Aramaio Udalak Aztiker ikergunea kontratatu du Aramaion energia sorkuntzarako proiektuen prozesua gidatzeko. Batzarraren lehenengo zatian, Udalak energia sorkuntzarako egin dituen urratsak azaldu zituen; besteak beste, eraikin publikoen energia diagnostikoa egin dutela azaldu zuten. Gaur egun, plana lantzen ari dira.

Bi gai bereizteko beharra
Statkraftek egin nahi duen Itsaraz parke eolikoaren gaineko

informazioa ere eman zuten; eta, hain zuzen, balizko parke eolikoaren gaiak hartu zuen protsagonismoa batzarrean. "Azaldu dugu dakiguna: zortzi dorre jarriko dituztela, ebakuazio-linea Abadiñora izango duela, 200 metro inguruko dorreak izango direla eta parkeak 900 hektarea inguruko lur-hedadura hartuko duela", azaldu zuen Altunak. Ondoren, herritarren iritzi, kezka eta balorazioak etorri ziren. Askoren iritzia izan zen bi gai bereizi behar direla: batetik, Udalak energia berrizta-

HERRITARREK BI GAI BEREIZTEA ESKATU ZUTEN: EOLIKOAK ETA UDALAREN PROIEKTUAK

garrien inguruan egin ditzakeen proiektuak; eta, bestetik, Itsaraz parke eolikoa. Horregatik, bi prozesu ezberdin egitea eskatu zuten askok. "Ez da interes orokorra ezta ekologikoa ere, negozio bat da"; "Lurralde antolamendu plana falta da"; "30 urterako hipotekatuko gaituzte, ez dezagun pentsa gure subiranotasunagatik denik"; "Mendiak utzi bakean"; "Jana non sortuko dugu? dena industriak hartu du"... Horiek izan ziren entzundako iritzi batzuk. Herri galdeketa egitea ere eskatu zuten.

Hurrengo pausoak
Azkenik, Aztikerreko teknikariek hurrengo pausoak azaldu zituzten: maiatz inguruan herritarrekin elkarriketarako egingo dituzte, eta udazkenean hausnarketa-saioa.

Gorbeialdean euskararen gaineko estrategiak zehazten

Joan den astean egin zen 'Euskara Aramaion' hausnarketa-saioan 23 lagunek parte hartu zuten

A.E.G. ARAMAIO
Euskara Aramaion: datozen urteetan zer? hausnarketa-saioan 23 lagun elkartu ziren. Miren Lazkano Euskara teknikaria, UEMAKo teknikari Ibon Aginaga, Oihana Amezkua zinegotzia eta herriko hainbat eragile izan ziren batzarrean. Aramaion ze hutsune dauden zehaztu zituzten, eta, ariketa bidez, hutsune horiei irtenbideak bilatzen ibili ziren. "Orokorrean, arreta jarri genuen erabilera ez-formaletan euskararen erabilera jaitsi egiten dela: umeengan, gazteengan eta etxe

barruan, batez ere", azaldu du Euskara zinegotzi Amezkua. Gorbeialdean plan estrategikoa berriro nahi dute, eta hausnarketa-saio horietan irteerako elementuak baliagarriak diren edo ez ikusiko dute orain: "Irten diren elementuak baliagarriak ote diren Gorbeialdea osorako, aterki moduko bat izateko". Gorbeialdeko herri guztietako errealitatea ez da berbera. Teknikariek emaitzak aztertuko dituzte eta ikusiko da beste saio baten beharrik dagoen edo ez.



JUAN LUIS NAFARRATE

Euskadiko Kopako podiumean

Enrique Ullibarriaranak beteranoen Euskadiko Kopa irabazi du, mini fosa modalitatean, eta Rafael Axpe hirugarrena izan da kategoria berean. Beteranoen mailako podiuma osatu zuten biek, Serafin Lizarragarekin batera. Gainera, Kurtzetagaitz tiro klubeko Luis Mari Jauregi hirugarren sailkatu zen senior 3/4 kategorian, 21 plater apurtuta.

Batzar irekia deitu dute Kintelena janari-dendaz hausnartzeko

Kintelena janari-dendaren etorkizunaz hausnartu eta beste bultzada bat emateko momentu dela iritzita, Arbel Kooperatibak bilera irekia deitu du datorren asterako. Sastiñan izango da batzarra, martxoaren 29an, 18:00etan. Herritarren inplikazioa eskatu dute, Aramaio herri bizia izan dadin hain garrantzitsua den denda zabalik mantentzeko.

Erretiratuen elkarteak ohiko batzar orokorra egingo du bihar

Alaiak erretiratuen elkarteak batzar orokorra egingo du bihar, zapatua: 10:30erako egin dute lehen deialdia eta 11:00etarako bigarrena, kultura etxean. 2022ko kudeaketaren deskargua, 2023ko ekintzen egitasmoa eta zuzendaritza berritzea izango dira gaiak, besteak beste. Batzarraren ondoren, mokadutxo eskainiko dute erretiratuen lokalean.



MIGUEL LOITI
HERRITARRA

"Informazio bila etorri naiz, gauzak nondik nora doazen jakiteko. Aurrera begirako planteamendua ondo ikusi dut, eta etorriko naiz entzutera".



LOLI LASAGA
HERRITARRA

"Interesa daukat, ez nago-eta ados makroproiektuarekin. Eman diren iritziekin ados nago, eta uste dut presa handia dugula zerbaitekin hasteko".



XABIER AGIRRE
HERRITARRA

"Planteamendua ondo ikusi dut, baina eztabaida egon da; batzuek adierazi dute proiektuari ezetz esatea dela garrantzitsua".



Jaiki elkarteko kideak Mitarte kaleko Asensio dendako erakusleiho barruan, eta herritarrek haiei begira. IMANOL SORIANO

Kaleak girotu, eta herriko merkataritza bultzatu

Hileko hirugarren egubakoitzetan kale-ikuskitzuna izango dira, Aretxartek antolatuta; lehenengoa martxoan egin dute, Jaiki elkartearen eskutik, eta, hain zuzen ere, performanceak ikusmina eta harridura sortu zuen herritarren artean

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxarte merkatarien elkarteak kaleak girotzeko asmoa agertu du, herriko merkataritzari eta ostalaritzari bultzada emateko helburuarekin. Hileko hirugarren egubakoitzetarako askotariko ekitaldiak antolatuko ditu, eta lehenengoa joan den martxoaren 17an izan zen: Jaiki elkarteko hamaika dantzari performance ibiltaria egin zuten Araba ibilbidetik Durana kalera bitartean.

Jaiki elkartekoak, "pozik"

Herritarren artean ikuskitzuna sortu zuen ikuskitzuna eta Jaiki kideak pozik agertu dira emaitzarekin; hauxe adierazi du Maier Etxebarriak: "Oso ondo pasatu genuen eta helburua lortu egin zela esango nuke: herria girotzea eta Aretxabaletako merkataritzari protagonismoa ematea. Asensio dendaren erakusleihoan egon ginen, arrandegi barruan sartu ere bai, Durana kalean jarritako alfonbra

gorri gainean ibili... Polita izan zen, benetan". Gaineratu du hainbat herritar joan zaizkiela, hunkituta, zoriontzera.

Apirilean txotxongiloak

Aretxarteko presidente Kris Hernandez ere pozik agertu da lehenengo ekitaldi horrekin: "Benetan ederra izan zen. Kanean zegoen jendeak parte hartu zuen

eta erantzunarekin oso gustura geratu gara".

Ekindako bide horren arrakasta ikusirik hurrengo antolatze gogotsu daude. Apirilaren 21ean izango da hori (19:00), eta orduan ume eta familiendako saioa egingo dute: "Antzerkiaren bidetik joko dugu eta txotxongiloekin osatutako ikuskitzuna izango da".



AITZIBER GAUNA
AREDER ARRADEGIA

"Kaleak girotuta, hemen gaudela esateko beste modu bat da, herritarrek ikus gaitzaten. Egubakoitzekoak ikusmina sortu zuen".



ALBERTO ASENSIO
ASENSIO ARROPA-DENDA

"Polita izan zen dantzariak erakusleiho barruan ikustea; halakoek jendea pilatzen dute eta hori ona da ostalarientzat eta merkatariontzat".



NIRE USTEZ

JULEN ABASOLO

Jakitunek

Hemendik fan barri daukou Maxima. Fan jakun baitte Jesusa. Aurretik, barrez, Bixente, Patxi, Juan Jesus, Juanito, Joxe, Felizi, Joseluis, Martzelina, Zizili, Faustino, Antonio, Fermin, aitte, ama, aittejaune...

Zenbat jakiturixa bakotzak eta zenbat danen artien. Guztiek miresten nittuen bizittekuek bizi izanaz ekixienagatik. Batzuk beste batzuk baino kontalari hobeak zien, bai, baine, askotan, edozeinek etxeko atie eskaratzera zabalketan euztien kontu zaharrak entzun guran agerketan nintzaenien.

Noizbait neure inguruen bizi izendakuek entzutie eta jasotie gustetan jat. Eta guzti horreik zer kontatu ugari eukien neure gozamenerako.

Ondio hemen dauenik ba da bere bizipenak atsegin haundiz kontetan dittuenik; askotan, graziaz. Jarraitu holaxe; neuk neikien adinien entzuten jarraituko dutzuet. Baina konturatu naz danak be urtietan aurrera doietzela eta hurrenkeran, laster neu naiela eurak dazen postu horretan; eta nik, barrez, ez dakit ezer haundirik.

Jubilatuei bideratutako bizi proiektua lantzeko programa

Udalak jarriko du abian, pertsona nagusien ahalduntzea sustatzeko, eta apiriletik ekainera zortzi saio egingo dira

M.A. ARETXABALETA

Lanean erretiroa hartu ostean zer egin jakin gabe ez geratzeko, trebakuntza-saioak antolatu dituzte Udaleko Gizarte Zerbitzuek, *Bizi proiektua* izenaren bueltan. Pertsona nagusien autonomian eta zahartze aktiboa sustatzen aditua den Bizipoz kooperatibak izango du programa horren gidaritza, eta honako esparru hauek landuko dituzte: garapen pertsonala, familia, lagunak, lanbidea -*Nire lan-esperientziatik abiatuta, nola lagun diezaioket gizarteari?*-,

maitasuna, osasuna, aisialdia eta ekonomia.

Izena emateko epea astelehenen zabalduko dute eta apirilaren 19ra arte egongo da aukera; Udal Gizarte Zerbitzuen bulegoetara jo beharko da horretarako -943-71 18 62-. Gehieenez hamabost partaide izango dituen talde bat eratuko da.

Zortzi saio izango dira, martitzenetan, apirilaren 25ean hasi eta ekainaren 13a arte, 10:00etatik 11:30era bitartean. Gaztelaniaz emango dituzte, Arkupeko bigarren solairuan.

PATXI CASTRO

Era guztietako aukien konponketa

• Tapizatu lanak

• Zumezko eta kanaberazko artikuluen salmenta

• Besaulki, mahai, saskiak e.a

943 78 71 65
639 01 69 69

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK DISEINUA APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

"Lehen txapela da eta ilusio handia egin dit"

IRATI BETEGI JAUSORO PILOTARIA

Laboral Kutxa Masterreko txapela jantzi zuen joan den domekan, Aiala Uriarte Gordon bizkaitarrekin batera, gazteen pilota misto mailan

Mirari Altube ARETXABALETA

Laboral Kutxa Masterreko hainbat final jokatu ziren joan den domekan, Arrigorriagan. Gazteen mailan, Betegik (Aretxabaleta, 2009) eta Gordonek (Sondika, 2008) 22-14 hartu zuten mendean Gisasola-Bilyak bikotea. Aurretik, egubakoitzean, infantilen errendimendu txapelketako partidua izan zuen, Lander Vallerekin bikotea osatuta, eta hura ere irabazi egin zuen. Hala, finalaurrekoa jokatu dute gaur, Orion.

Zorionak! Poztekoa izango da lehenengo txapela, ezta?

Bai; ilusio handia egin dit. Jende askok zoriondu nau, gainera, egunotan.

Zelan joan da Laboral Kutxa Master Txapelketa?

Banakako txapelketa jokatu nuen aurretik, eta orduan finalaurrekoraino iritsi nintzen sailkatuta geratu nintzen. Hortaz, bi partidu jokatu nituen Aiala Uriarte Gordonekin bikote izanda sailkatzeko, eta hirugarren hau izan da finala.

Gordonekin aurretik ere ibilita zeunden?

Ez; hura izan zen banakako txapelketako irabazlea eta harekin bikote izatea tokatu zitzaidan. Oso ondo moldatu gara, hura aurrean eta ni atzean.



Betegi txapelarekin. IRATI BETEGI

Finala gogorra izan zen?

Gogorra, eskua minduta nuela, baina, bestela, finalaurreko partidua zailagoa izan zen.

Partiduan mindu zitzaizun?

Ez, aurretik. Joan den egubakoitzean, infantilen errendimenduko txapelketako partidua min handiarekin bukatu nuen. Eta atsedean hartzeko astirik izan ez nuen, oraindik minduta nukan domekan.

Infantilen errendimendu txapelketa ere gogorra izaten dabil, orduan?

Partidu zailak izan dira, bai, baina gustura gaude egindako

lanarekin. Bereziki, egubakoitzeako partidua izan zen gogorra; izan ere, Orioko bikotea izan genuen aurkari eta 18-17 irabazi genien.

Eta dagoeneko finalaurrekoan zaudete?

Bai; martxoaren 24an dugu eta berriro ere Orioko bikotea izango dugu aurrez aurre; gainera, haien etxean da partidua. Elkar ezagutzen dugu, eta oso gogorra izango da.

Hortaz, eskua osatzea garrantzitsua da.

Bai, deskantsua eman astean, eta ea oneratz den.

Pilota taldean hasi zinenen ez zegoen neskari.

Ez; lagun batzuk nituelako etorri nintzen, 8 urterekin, eta oso gustura jarraitzen dut. Orain beste neska bat hasi da, Ainhoa Saez de Biteri gatzagarra.

Debagoienean hainbat pilotari daude; erreferente dira haiek zuretako?

Bai, noski: oñatiarrak, bergararrak, antzuolarrak... Oso gustura ibili izan naiz haiekin.

Topaketak ere antolatu izan dira...

Bai; Antzuolan eta Eskoriatzan egin dira, eta hurrengo Aretxabaletan egitea da asmoa, baina datarik ez dago oraindik. Halakoak elkar ezagutzeko eta lan egiteko garrantzitsuak direla uste dut.

Murun elkartzeko dei egin du Sarek, 'Etxera' mezua zabaltzeko

Herriarrek batera elkartu gura dute tontorrean domekan, 11:00etan, argazki "jendetsua" ateratzeko

M.A. ARETXABALETA

"Behin sakabanaketa politika bukatuta, prozesuaren fase berri batean sartu gara eta *Etxera* ikurra duen zapia eramango dugu Muruko mendi tontorrera. Argazkia aterako dugu han, eta aldarrikatu etxeratzeko fasean gaudela", adierazi du Txarli Garcia, Sareko ordezkariak. Martxoaren 26an, domekan, izango da hori, eta tontorrean 11:00etan egoteko dei egin die Sarek herriarrei.

Ia preso guztiak Euskal Herrian egonda "lege arrunta" eskatzeko

garaia dela uste du; horien artean daude graduen progresioa eta baimen bereziak: "Euskal presoek salbuespeneko legedia aplikatzen jarraitzen diete, eta lege arrunta ezartzea eskatzen dugu, gainerako presoek bezala".

Zaballan dagoen Garikoitz Garcia Arrieta preso aretxabaletarra izango dute gogoan, bereziki: "Gradu progresioa eskuratzeko baldintza guztiak beteta izan arren, ez dugu ikusi inolako mugimendurik". Gaineratu du "preso guztiak etxeratu arte" lanean jarraitzeko asmoa duela Sarek.

Ikazkin Trail lasterketarako izen-ematea zabaltzeaz da

Bigarren Ikazkin Trail mendi lasterketa irailaren 9an jokatu da eta izena emateko epea astelehenean zabalduko du Aretxabaleta kirol elkarteak, martxoaren 27an. Rock The Sport kirol-webgunearen bidez egin behar da, eta 25 euro ordaindu web.rockthesport.com.

"Iazkoak izandako arrakasta" ikusirik ibilbideari eustea erabaki dute antolatzaileek. Hogeita bat kilometro izango ditu, eta 1.200 metroko malda; bost puntutan izango dute edatekoa lasterkariak, eta jatekoa ere bai hirugarrenean; hona hemen horiek: Areantza auzoa, Kargaleku, Degurixa, txabola eta Urkulu urtegia.

OHARRAK

Nerabeen ekintzak

Apirilaren 3 eta 4rako antolatutako irteerarako eta topaketarako izen-ematea zabalik, gaztelekuan: 688 84 38 15.

Fun Dantz jaialdia

Dantza urbanoak lantzen dituzten Euskal Herriko taldeak nor baino nor gehiago zapatuan, 18:30ean hasita, Ibarra kiroldegian.

Musika emanaldiak

Leizarra musika eskolako ikasleek hainbat emanaldi egingo dituzte Arkupen (18:00): astelehenean, haize-instrumentuak; martitzenean, panderoa, akordeoia, biolina eta flauta; eta eguaztenean, euskal dantzak.



RPS: 83/19





INPLANTOLOGIAKO ESPEZIALISTAK 3D TEKNOLOGIA BERRIENAREKIN

DURANA HORTZ KLINIKAN BERRIKUNTZAREN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU.

DURANA KALEA 22 • ARETXABALETA • TEL.: 943 79 93 55



Eskoriatzako zazpi elizateetako eta Leteko auzo-alkateek kargua hartu zutenekoa. IMANOL BELOKI

EEEren erabakia: 40 urteren ostean, lozorrora

Eskoriatzako Elizateen Elkartea (EEE) 1983an aurkeztu zen lehenengoz udal hauteskundeetara, eta aurten ez dela aurkeztuko jakinarazi du. Apirilaren 23a da azkenengo eguna hautagaiak aurkezteko, baina erabakia irmoa da

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Maiatzaren 28ko udal hauteskundeetara begira aurkeztu edo ez baloratzen aritu da Eskoriatzako Elizateen Elkartea. Azkenean, ez aurkezte erabaki dute auzo-alkateek, EEEko Udaleko bozeramailearekin batera, eta horren zergatia arrazoitu dute asteen, auzotarrei bidalitako ohar batean.

"Duela hilabete zabaldu genuen oharrean, 2023ko hauteskundeetara begira EEEren zerrendak osatzeko alde aurretiko jarreragatik galdetu genuen, eta, era berean, jakinarazi genuen taldea osatu ezean EEE ez zela udal hauteskunde hauetan talde independente bezala aurkeztuko. Bada, hilabete pasatu da eta ez da taldea osatzeko lagun-talderik aurkeztu. Haatik, elizateak eremu bizigarriago bilakatzeko lanetan jardungo duen udal ordezkari politikoa lortzeko aukerarik ez da egongo", adierazi du Leire San Vicentek, EEEko bozeramaileak.

Esker mezua guztiei

Zerrendan joateko prestutasuna egon arren, zerrendaburu joateko ez dago inor gertu. "Lan-zama handia hartzeko nahi gutxi dagoenez, erabaki dugu lozorroan sartzea". Azken berrogei urteetan lan handia egin du EEEk auzo eta elizate bakoitzeko errealitatearen berri Udalarari emanaz eta behar konkretuei ahalik eta modu eraginkorrean erantzunez. Hori horrela, eskerrak eman dizkiete urte hauetan guztietan buru-belarri lanean jardun duten zinegotzi guztiei. "Eskerrak eman ere urte hauetan euren borondate onenarekin lanean jardun duten auzo-alkate guztiei, haiek baitira EEEren makulu inportantea. Ez dugu aipatu gabe

ESKORIATZAKO ELIZATEEN ELKARTEA EZ DA AURKEZTUKO MAIATZAREN 28KO HAUTESKUNDEETARA

utzi nahi gainerako talde politikoetako kideak, baita udal teknikariak ere. Haien lanari esker, bizi-baldintzak hobetzeko aukerak zabaldu eta proiektuak egikaritu egin dira. EEE ez da talde independente bezala disolbatuko".

Lurra lantzen jarraituz

Hurrengo agintaldiei begira auzotar talde bat antolatuz gero aukerak zabalik utziko dituela EEEk dio San Vicentek: "Elkartea berpizteko eta misio eta bisio berri bat birdefinitzeko aukera egon liteke. Elizateetan lan handia dago egiteko oraindik, eta aurrerantzean forma berri bat hartuko du horren kudeaketak. Hain zuzen, dei egin nahi diegu udal ordezkari politikoei albo batera utz ez dezaten, mantendu dezaten eta hobetu dezaten bertan dagoen ondare kultural, natural eta ekonomikoa. Modu batera edo bestera lurra lantzen jarraituko dugun zalan-tzarik ez dugu".

Terrazak jartzeko Udalaren ordenantza-zirriborroa aztergai

Udalak egindako proposamenari ekarpenak egiteko aukera dago martxoaren 31ra arte

I.B. ESKORIATZA

Udalaren esanetan, "udalerrian ostalaritza-jardueren osagarri diren terrazak jartzeko lurzoru publikoaren erabilera ugartzen ari da", eta, gaur egun instalazio horientzako berariazko arau-ementurik ez dagoela kontuan hartuta, Udalak Ordenantza arautzailea onartu nahi du.

Ordenantza idatzi aurretik, ordenantza-proiektua jendaurrean jarri zuten udal webgunean, interesdunek arrazoiak ezagutu eta egoki iritzitako ekarpenak egin zituzten. Tra-

mite hori pasata, ordenantza-zirriborroa egin dute, baina, onartu aurretik, berriro ere jendaurrean jarri nahi dute, interesdunek ekarpenak egin ahal izateko. Hala, proposatzen den ordenantza-zirriborroa *eskoriatza.eus* webgunean azter daiteke eta interesdunek martxoaren 31ra arte izango dute ekarpenak egiteko. Horrekin batera, informazio gehiago nahi duenak aukera du horretarako *garapen@eskoriatza.eus* helbidera idatzita, edo 943 71 54 53 telefono-zenbakira deituta.

GORA ETA BEHERA



Estolda, zaborrez gainezka

Joan den asteko euri-egun batean ateratako erretratua da goiko hori. Hau jakinarazi du herritar batek: "Lur azpian atasku ederra izan da, eta zaborra estoldetatik gainezka ikusi dugu".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? *berriak@goiena.eus* edo 688 69 00 07.

Paseo onuragarria

Belaunaldien arteko programaren barruan, herriko kaleetan zehar paseoa egun dute Eguneke Zentroko kideek aste honetan, Lanbide Eskolako mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako arreta soziosanitarioko erdi mailako zikloa ikasten ari direnek lagunduta. Eguneke Zentrokoekin egindako laguntza-jarduerarekin pozik agertu dira ikasleak.





Eskoriatzako haurrak, Ibarraundi museoan egindako buruarinak jantzita. IMANOL SORIANO

Ipuinen eta eskulanen arteko sinbiosia lortzeko

Haurrak buruhandien mundura gerturatzeko goma-aparrezko buruarinak sortzen dituzte Hernaniko Iputantai tailerreko kideek, eta joan den domekan Ibarraundi museoan izan ziren, eskulanak nola egin erakusten, Gazteria Sailak antolatuta

Imanol Beloki Unamuno ESKORIATZA Duela bi urte egindako saioak izandako arrakastaren ostean, berriro antolatu dute buruarinak egiteko tailerra. 4 eta 10 urte bitarteko haurrei zuzendutako hitzordua egin dute, eta bikingoa, deabru gorria eta pirata pertsonaia unibertsalak eta deabru berdea, Tartalo eta intsisia euskal pertsonaiak egiteko aukera izan zuten haurrek eta gurasoek elkarlanean Ibarraundi museoan.

Haurrek, interes handia Gidari-lanak Oihana Aristegik eta Gorka Olazabalek egin zituzten; haiek dira buruarinen sortzaileak, eta, adierazi dute-

nez, haurrei gero eta gehiago interesatzen zaie buruhandien mundua. Ipuin kontaketa eta eskulanak uztartzen dituzte, eta bien arteko sinbiosia lortu dute tailerraren bitartez. "Duela hamaika urte hasi ginen sortutako buruarin batzuekin, eta gaur arte. Buruhandi bat jostailu bihurtu nahi izan genuen, eta erabiltzen dugun materiala arina da, izenak dioen moduan. Xafla bat ekartzen dugu lixatuta eta margotuta, eta modelo bakoitzak bere kolorea du. Hala, haiek zuloak egiten dituzte, ahoa, begiak... eta gero, borobildu; txapela, belarriak... Apaingarri guztiak gaineratzen dizkiogu", dio Aris-

tegik. Olazabalek azpimarratu duenez, ipuinak daude buruarinen atzean: "Buruarinak buruhandietan daude oinarrituta, eta garapen garbia izan da deabruetan. Deabru europarra gorria da, eta, gaia aztertzen, Euskal Herriko buruhandi gehienak berdeak direla konturatu gara. Gero, sakonduz, Oiartzungo intsisuetara iritsi gara, eta halako pertsonaiak egiten ditugu, oro har".

Nork berea eginda Tailerrean 25 buruarin inguru landu zituzten, eta, horrenbestez, haurrek badute aitzakia nahikoa nork bere buruarina jantzeko.


Janariak elkartuta

Berbalagunak eta Auzoko egitasmoetako kideak elkarrekin izan dira sukaldaritza ikastaro batean. "Danielek Venezuelako enpanadak eta entsalada prestatu dizkigu eta Nadiak, berriz, Pakistango basmati-arroza oilaskoarekin. Argazkian gutxi batzuk agertzen gara, baina hogeigut lagun inguru izan ginen eta prestatu zigutena ederra zegoen".



AUZOKO ESKORIATZA

LEINTZ GATZAGA 19



Gatzagako pilotalekuan pi ikurra margotuta. GOIENA

Ez dakite herriko 'pi'-lotalekuko ikurra zelan agertu zen

3aren eta 4aren artean pi ikurra agertu zen margotuta, eta Udalak ez daki noiz ezta zergatik azaldu zen

Imanol Beloki Unamuno GATZAGA

Pi zenbakia konstante matematikorik garrantzitsuenetakoa da, eta, hain zuzen ere, martxoaren 14a ospatu zen Pi Eguna; gainera, egun berean ospatzen da Matematikaren Eguna ere. Gatzagan ere ezaguna da ikur hori; izan ere, frontoian pi ikurra dago margotuta 3aren eta 4aren artean; hau da, 3,14 metrora. Eta, uste denez, mundu osoan frontoi bakarra da ikur horrekin. "1991n egin zen Gatzagako frontoia, eta ez dago jasota zehazki zein urtetan margotu zuten ikurra, baina,

uste denez, herriko jai batzuen ostean agertu zen, eta $X10$ ize-nez sinatuta dago. Herrian ohituta gaude ikurra ikustera, baina berezia da", dio Juanito Bengoak.

Zehatz markatutako ikurra

Pi zenbakia geometrian eta trigonometrian erabili ohi da, baina aplikazio praktikoak ditu ingeniaritzan, fisikan eta kosmologian. Gatzagan ez dakite noiz, nola, zergatik eta zertarako margotu zuten, baina, Bengoaren esanetan, neurriak zehatz-zehatz daude ezarrita.

'Pentsatu, hausnartu...' izeneko hitzaldia izango da hilaren 27an

Susana Diaz de Durana erizainak eta Jesus Millas medikuak egingo dute berbaldia.

I.B. GATZAGA

Osakidetzak antolatuta, bizitzaren bukaeran hartu beharreko erabakietan laguntza nahi dutenentzako hitzaldia izango da martxoaren 27an, astelehena, 17:30ean, Garro jauregiko Toki Eder jubilatuen elkartearen hitzaldia irekia izango da, eta bi hizlari izango dira han informazioa ematen: Susana Diaz de Durana erizaina, batetik, eta Jesus Millas medikua, bestetik. Hala, *Pentsatu, hausnartu...* izenburupean egingo duten hitzaldian zalantzak argitzeko

aukera izango dute bertaratzen diren herritarrek.

Norberaren balioei eta lehen-tasunei buruz hitz egingo dute Garro jauregian batuko diren adituek, eta haien garrantzia azpimarratuko dute. Horretarako, zenbait galdera jarriko dituzte mahai gainean, eta haiei erantzuna ematen saiatuko dira: *Nola irudikatzen duzu zure osasuna etorkizunean? Zer-nolako zaintzak izatea gustatuko litzazuke? Bizi-testamentua, aurretiazko borondateak eta eutanasia ere izango ditugu hizpide*".



Bi herritar Masterreka kalean, asteen, amaituta dagoen espaloi zati berritik ume-karroarekin igarotzen. J.B.L.

Masterreka berritzeko lanak, oso erritmo onean

2019-2023ko agintaldia ondo baloratu du EH Bilduk kudeatzen duen Udal Gobernuak. Atzera begiratuaz harago, iragarri dute, besteak beste, Arrizuriaga jauregiko kanpoko lanak amaitzeaz daudela eta uda aprobeitatzeko dela Oxirondo azokako obrak egiteko

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA 2019-2023ko agintaldian egindako lanarekin pozik dago Udal Gobernuak: "Begararrontzat beharrezkoak eta garrantzitsuak diren lanak egoki gauzatu ditugu; proiektu berriak eta berritzaileak martxan jarri eta egin ditugu; eta, bereziki, puntu batean jarri nahiko nuke indarra: egiteko moduan, hasieran

esan genuen eran eragileekin eta herritarrekin egin dugu-eta lan". Egiteko modu horren oinarria izan da, diotenez, *Bergara Izan, Bizi, Ekin* plana.

Zubieta-Masterreka, obra nagusia Udalerriarentzat "garrantzitsuak" diren obren artean, Udal Gobernuak Zubieta eta Masterreka kaleen berritzea azpimarratu

du. "Agintaldi honetan gauzatu diren edo gauzatze bidean dauden proiektuak beharren identifikazio batetik etorri dira, eta hor, beste guztien gainetik, Zubieta-Masterreka ardatzaren berritzea nabarmendu behar dugu. Azken 40 urteetan egindako eskaerari erantzun diogu, eta pozik egoteko moduan gaude, Zubieta nola geratu den eta

Masterreka nola geratzen ari den ikusita", dio Artolak. Lanak oso erritmo onean doaz –oinezkoak espaloi zati batetik igaro daitezke dagoeneko–; orain arte moduan jarraituz gero, Pentekoste jaiean aurretik berrituta eta zabalik legoke kale osoa.

Obra hasi aurretik iragarri zuten, herri barruko zirkulazioan eragin zuzena izan du Masterreka ixteak, baina "espero baino askoz hobeto" doa trafikoa bide alternatibotik: "Obrek beti eragiten dituzte kalteak, eta, are gehiago, halako dimentsioko obra batek, baina aurreikusi baino askoz hobeto doa behin-behineko saihasbideko trafikoa". Gainera, Udal Gobernuak jakinarazi zuen hasierako proiektuan jasota ez bazegoen ere, besteak beste, Infernukua bidegurutzetik goiko geltokirako bidearen hasiera asfaltatu egingo dutela Masterreka-ko asfaltatzea hastearekin batera, lehen etxetaraino: "Ez zegoen proiektuan, baina ikusi denez hango instalazioak ere berritzea komeni dela eta exekuziorako diru-poltsan bazegoela aukera, hori ere urbanizatuko da".

Arrizuriaga eta azoka hurrengo Epe laburreko beste bi proiektu ere azpimarratu ditu Udal Gobernuak. Batetik, Arrizuriagako kultura-gunea eta emakumeen etxea izango dena: "Egonkortzerako eta zaharberritzerako lanak amaitzeaz daude; datozen egunotan kenduko dituzte aldarmioak". Eta, bestetik, Oxirondoko azoka berritzeko lanak ere aipatu dituzte; azokaz harago lehen sektorea duintzeko topagune izateko "beharrezko" ikusi den obra Goitu Eraikuntzak enpresari esleitu zaio, 345.443 eurotan –BEZa barne– eta au-

reikuspena da lanak maiatzean hasi eta Gabonetako kanpainarako amaituta egotea.

"Arantza batzuk" geratu zaizkie Edozelan ere, aitortu dute "arrantza batzuk" geratu zaizkiela; tartean, mugikortasunaren alorrean: "Egin nahi izan ditugun denak ezin izan ditugu egin. Horietako bat mugikortasun plana da; egin zen lanketa eta zirriborro bat eskuetan genuela ohartu ginen diagnostikoko datu eta neurri batzuk zaharkituak geratu direla. Herri barruko mugikortasunean eragin nahi izan dugu, baina egindako lanak ez digu eman aukera handirik". Horri lotuta, Antzuolarako bidegorria gauzatu ez izana ere aipatu dute: "Beste administrazio batzuen menpe egoteagatik ere ezin izan ditugu proiektu batzuk gauzatu, eta Antzuolarako bidegorriarena da horren adibide; aste honetan ez bada hurrengo astean dira hitzarmena sinatzekoak".

Auzoei dagokienez, Udal Gobernuak aitortu du agintaldi hasieran auzo-alkateekin hasitako "lan-dinamika berria" ez dutela mantendu nahi izan duten bezala: "Horixe da beste arantzetako bat, pandemiak dinamika berria eten egin zuela. Hala ere, azpimarratu beharrean gaude ezinezkoa dela auzoetan herrigunean besteko zerbitzuak izatea; jaso ditugun eskaeretako batzuk ezinezkoak dira betetzeko".

ORAIN ARTE MODUAN JARRAITUZ GERO, MASTERREKA KALEA JAIETARAKO ZABALIK IZATEA ESPERO DUTE

Telleixako Benta, martxan

Astehenean ireki zuten Labegaraietako Telleria kalean kokatuta dagoen Telleixako Benta gasolindegiko jatetxea. Cepsako arduradunen arabera, gaur, hilak 24, egongo dira martxan guneko zerbitzu guztiak, 06:00etatik 22:00etara: gasolindegia –kamioiendako gune propioa barne–, garbitegia, denda eta jatetxea –eguneko menuak emango dituzte, besteak beste–.



JOKIN BEREZIARTUA LIZARAZU

Migrazio politikak aztergai Aranzadin; tartean, Arzallusekin

Arizmendi, Txantxiku eta Aranzadi ikastolek migrazio politiken gainean egiten diharduten "lanketa bereziaren" barruan, Amets Arzallusek *Miñan* liburua izango du hizpide ikasleen aurrean hilaren 29an Seminarixoan. Horrez gain, hilaren 30ean Irungo Harrera Sarea bisitatuko dute, han egiten duten lana bertatik bertara ezagutzeko.

Ametsa errealitate bihurtu zenetik 50 urte

50 urte beteko ditu bihar San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteak, eta, ospakizunen barruan, Andres Fernandez eta Miguel Angel Ibarzabal bazkide-fundatzaileak omenduko dituzte; bien testigantzekin elkartearen xehetasunak jaso ditu GOIENAK



Andres Fernandez eta Miguel Angel Ibarzabal, martitzenean, Gure Ametsan. I.A.A.

Idoia Aranbarri Arzuaga BERGARA
1973ko martxoaren 25ean zabaldu zituen ateak San Antonio auzoko Gure Ametsa elkarteak, 50 bazkiderekin. 30 bazkide inguru dira gaur egun eta horietatik Andres Fernandez eta Miguel Angel Ibarzabal dira sorreratik kide fundatzaile direnak. Bihar, elkarteak 50. urteurrena ospatuko du eta bi bazkideek omenaldia jasoko dute. Argi daukate ez dutela ezer egin omenduak izateko: "Ez dugu meriturik egin. Egin dugun gauza bakarra urteak betetzea izan da".

Elkartea dagoen lekua Etxebarrikoa baserriaren ukuilua zen, eta, ondoren, Tremefil tre-filaketa-tailerra zabaldu zuten. Martin Arriaran –lehen presidentea– eta Jabier Ilzarbe izan ziren elkartearen bultzatzaile nagusiak, eta haiek izan ziren elkartearen sortzeko pausoak eman eta estatutuak garaira egokitu zituztenak: "Bazkide izateko prest zeuden auzotarrak biltzen hasi ziren, gazte nahiz adineko. Gazteenak Juan Luis Bikuña, Jose Jabier Manso eta gu biok izango ginen".

Jesus Arregi auzotar arkitektoak egin zuen elkartearen proiektua, doan. Fernandezek azaldu du garai hartan proiektua

ordaintzeko dirurik ez eta, esker modura, ohorezko bazkide izendatu zutela.

Izenari dagokionez, Gure Ametsa izena duten elkarte asko daude Gipuzkoan, eta horretaz jakitun ziren sortzaileak. Fernandez gogoratzen da nola esaten zuen Martin Arriaranek: "Hau gure ametsa da, gure ilusioa". Eta horrela sortu zen Sociedad Cultural Recreativa Gure Ametsa de San Antonio.

On Serafin ere bazkide

Sorrerako bazkideetako Serafin Esnaola zen, On Serafin. Gogoan du Ibarzabalek: "Hura arduratzen zen auzoko ermitaz. Gazte askori ematen zion katekesia, irteerak egiten zituzten... Argazkiak egin eta bideoak grabatzea maite zuen, eta gazteekin egiten zituen grabaketak. Hemen egiten zituzten proiektzioak, eta lokala gaztez betetzen zen". Odolean zeraman Gure Ametsa, eta Fernandezek anekdota bezala kontatu du omenaldi batean hizlariak Esnaola "Gure Ametsako bazkide" zela esan zuenean, gelditu eta "bazkide fundatzaile" zela gaineratu ziola.

Kulturan buru-belarri

Sorreratik kultura-jarduerak bultzatu dituzte. Kultura bazki-

de bat gehiago da elkartearen. *Kultura* atala dago, eta, gaineratu dutenez, "bazkide zenbakia du, bazkide batek bezala. Talde horrek kulturako jarduerak antolatzen ditu". Medikuen, kirolarien eta musikarien solasaldiak egin dituzte; Tximist espedizioa ere igaro zen, besteak beste, handik; ardo dastaketak ere egin dituzte. Era berean, zenbait kofradia eta talderen egoitza soziala izan da; tartean, Bergarako Errelleno eta Tostoiako Kofradiarena eta Bergarako Zezen-lagunakena.



On Serafin Esnaola Gure Ametsa elkartearen bedekantzen inaugurazioan. G.A.E.

Gaur egun ere antolatzen dituzte jarduerak, eta horietako batzuk dira urteroko pella eta torrada ikastaroa, Napar Feria eta Gabonetan On Serafinen omenezko postal lehiaketa.

Auzoarentzat lanean

Auzoko festetako sustatzaile izan da Gure Ametsa, beste auzotar batzuekin batera: "San Antonioko festa batzordearentzat oso garrantzitsua izan da elkarrekin. Hemen egiten ziren bilerak, hemen antolatzen zen dena". Danborrada propioa egiten zuten,

esaterako. San Antonio Txirrindularitza Saria ere antolatu izan dute, "beti" Lokatzaren laguntzarekin: "Hemen banatzen ziren dortsalak; gero, txirrindulariak hona etortzen ziren... Lehen, profesionalen lasterketa zen".

Eman bakarrik ez, jaso ere egin dute. Udal Txistulari Bandako zuzendari zen Ramon Etxanizek ereserkia konposatu zien, eta Urretxindorrek taldeak ere abestia idatzi zien. Azken diskoan dago jasota, eta lan horren aurkezpena elkartearen egin zuten.

Elkartearen gainbehera

Orokorrean, elkarteetako mugimendua jaitsi egin da, eta nabaritu dute: "Duela 40 urte, arratsaldeetan, musean jarduten genuen, beste batzuk merienda-tzera etortzen ziren... Orain, ospakizunenetan dator jendea, eta orduan betetzen da. Jendea ez da etortzen janaria prestatzera; kanpotik ekartzen du eta listo. Bizimodu aldaketa gertatu da, eta elkartearen gainbehera".

KULTURA-JARDUERAK BULTZATU DITU SORRERATIK GURE AMETSAK; ORAINDIK HORRETAN DIHARDU

50. urteurrena ospatzeko zenbait ekintza bihar

Bihar beteko ditu 50 urte Gure Ametsak, eta egitarau berezia antolatu du. Eguaztenean hasi zuten ospakizuna, Alex Txikonak eta Kike de Pablok egin zuten *Mendia lehen eta orain* solasaldiarekin.

Zapatuko egitaraua

Bihar izango da urteurrenaren eguna, eta hamaiketakoarekin hasiko dute goiza. Ondoren,



Solasaldiaren une bat. G.A.E.

hildako bazkide guztien aldeko meza egingo dute ermitan. 13:00etan Bergarako Musika Eskolako Orkestrak kontzertua eskainiko du plazatzoko karpan, eta horren ostean, 14:00etan, batzar orokorra egin eta Miguel Angel Ibarzabal eta Andres Fernandez omenduko dituzte. Amaizteko, bazkaria egingo dute elkartearen bertan bazkide guztiek.

UGARTE
 AROZTEGIA - ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoak
 Horma-armairuak
 Altzariak neurria
 Ateak · Eskailerak ·
 Leihok · Tarimak ·
 Egur lanak

ALTZARI DENDA
 Ikerleku zeharbidea
 Tel.: 943 034630

AROTEGIA
 San Juan 1a
 Tel.: 943 765491

BERGARA
 aroztegia@ugarte-aroztegia.com

21
 KALITATEA
 Empresa Registrada Nº 90/025

Euskal habitatari gorde zaion historia, azalera

Gaur irekiko dute Nabarralde fundazioaren 'Giza habitat ezkutatua. Ezkutatu diguten historia. Gure kontakizuna' izeneko erakusketa, Aroztegi aretoan (18:30), bisita gidatu eta guzti: "Mendez mende euskal habitataren kontrola galtzen joan gara"

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA Nabarralde fundazioak *Giza habitat ezkutatua. Ezkutatu diguten historia. Gure kontakizuna* izeneko erakusketa irekiko du gaur Aroztegin (18:30) eta apirilaren 9ra arte egongo da zabalik, martitzenetik domekara bitartean, ohiko ordutegian. Udalari hasieratik iruditu zitzaion "oso interesgarria" Nabarralderen azken erakusketa Bergara ekartzea. "Historia liburuetan jasota ez dagoen eta erakutsi ez diguten gure historia kontatzera dator. Ikasleekin bisita gidatuak egingo dituzte, gainera", adierazi du Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Bisita gidatuak, sakontzeko Bisita gidatu horien arduraduna izango da Beñi Agirre. Batetik, DBHko eta batxilergoko ikasleei begirako bisitak antolatu dituzte; eta, bestetik, interesa duen edozein herritarri begirako bisitak daude. Azken horiek gaur bertan eta hilaren 31n egingo dira, 18:30ean. Paneletan esaten dena kontatu egingo du Agirrek eta bertaratutakoen galderei erantzuten saiatuko da. Antzinarotik hasten da erakusketa "gure historia" kontatzen. "Habitata kobazuloak zirenean, gizakiak margotutako irudiek badute informazio-maila bat. Handik aurrera, erromatarrek, godoak, arabiar musulmanak, frankoak eta gaztelarrak etorri ziren... Konkista-prozesu luzea jasan dugu; hain zuzen ere, erakusketak oso ondo azaltzen du ze harreman dagoen konkista prozesu haietan galdutako lurraldearen eta gure hizkuntzaren galeraren artean. Ezan ere, gure historiaren zehar euskara ez da galtzen joan euskaldunak axolagabeak izan garelako, baizik eta gertaera objektibo batzuen eraginez. Mendez mende euskal habitataren kontrola galtzen joan gara", dio Agirrek.



Osa, Agirre, Artola, Markina eta Santxez, asteon, Aroztegi erakusketan. J.B.L.

"Bada garaia euskaldunok subjektu politiko gisa gure historia azaltzeko"

BEÑI AGIRRE NABARRALDE FUNDAZIOKO KIDEA

Erakusketako bisita gidatuez arduratuko da Beñi Agirre (Hernani, 1958), gaur bertan eta hilaren 31n (18:30). **Giza habitat ezkutatua du izenburu; zergatik?** Habitataz ari garenean ez da behar beste hitz egiten bertako eragile nagusia den gizakiaz. Panel horietan kontatzen dena da habitat jakin batean bizi izan den gizakiaren historia, euskaldunen historia. **Kontatu ez zaigun historia?** Ez da kontatu ez digutela bakarrik, ezkutatu egin digutela bakar bat matematika-liburu bat egon daitekeen bezala; herri bakoitzak bere historia kontatu behar du. Orain arte beste herri batzuek kontatu dute gure historia eta bilakaera; bada garaia euskaldunok gurea kontatu dezagun, subjektu politiko eta historiko bezala.



J.B.L.

Hori hamalau paneletan azaltzea zaila izango da... Azaltzea ezinezkoa da; panelotan zertzelada batzuk ageri dira. Euskaldunok gure habitataren kontrola galdu dugu historian zehar, eta oroimena geratzen zaigu. Oroimen horrek islatzen du ez garelako erabat menderatuak izan; izan ere, herrialde burujabe eta homologatua izatetik herrialde foruduna izatera pasatu ginen; foruak hitzarmen bat dira konkistatu gintuzten haiekin.



NIRE USTEZ

ANA CARPINTERO

Arrakastaren muga lausoak

Aspaldi harritzen nau arrakastatsua, aktiboa eta *cool*-a izateko bizitza apaingarritz betetzearenak; oporretan beti kanpora eta urrun joatearenak; astebururo bazkari, kontzertu, ihesalditxoak egitearenak, super-bazkari familiarrak, kuadrilla handiko planak, laneko plantilla guztiarekin abentura-planak... Eta horrela, infinitura arte jarrai dezaket. Ez dut horren guztiaren kontrako apologiarik egingo, inondik inora; kasu askotan, ederra da horretarako guztirako aukera, gogoia, baliabideak eta harreman sarea izatea. Soilik ekarri nahiko nuke bestelako egoera, nahi eta beharrak ere badaudela mahai gaineratzeko eta berdin-berdin pertsona interesgarri, arrakastatsu eta *cool*-a izan daitekeela bat. Aspaldi konturatu naiz egiten duguna egiten dugula guztiok garelako zoragarriak, garen bezalakoak, gure bizitzak apaingarritz beteta edo hutsik. Izan ere, gure esentziaren edertasuna handia da eta ez du demostraziorik behar.

Pentsatu dezagun, beraz: benetan egiten dugu geure barne senak eskatzen diguna edo gugandik espero dena? Edo astelehenean kontatzeko zerbait izateko? Edo *cool*-a izateko egiten dugu?

Zaintza-plana izango dute hizpide hilaren 27ko osoko bilkuran

Zaintza-plana izango da martxoaren 27ko osoko bilkuran landuko den gaietako bat –udaletxeko osoko bilkuren aretoan, 19:30ean–, Udal Gobernuak zaintza-eredua birpentsatzeko garaia dela uste duelako. "Gaia lantzen hasteko abiapuntua plana izango da. Pertsona guztiok behar dugu zaintza. Bai, hori barnerratu egin behar dugun ideietako

bat da. Guztioi eragiten digu zaintzaren gaiak, hainbat alderditatik begiratu ere; bai zaindu gaitzaten behar dugulako, baita zaindu egin behar dugulako ere. Nahiko genuke Bergara zaintzen duen herria izatea, ekosistema oso bat eratzea, eta etorkizunera begira horretan urratsak egin behar ditugu. Nolaketasunari erreparatzea ere garrantzitsua da. Zaintzarena, gainera, herri bezala dugun erronka bat da", dio Ainhoa Lete zinegotziak.

OHARRAK

Jabekuntza Eskola: emakume migratuak

Topalekuak emakume migratuentzat izenburu duen saioa egingo dute bihar, hilak 25, Ehunduren bulegoan, 16:30etik 18:30era.

Kukubaso: denboraldiko azken landaketa

Etzi, hilak 26, Miguel Altuna berriaren atarian elkartuko dira (10:30), Agirretxeberri bertako zuhaitzak landatzeko: "Domekakoarekin, lursail honetarako aurreikusitako landaketak amaituko ditugu". Izena emateko: kukubasoelkarte@gmail.com.

Erramu-zapatuko bazkaria eta bertso saioa

Apirilaren 1ean frontoian egingo den bazkarirako txartelak (14:30) atzo iluntzean jarri zituzten salgai. Bestalde, martxoaren 31n bertso saioa egingo dute Seminarixoa: Maialen Lujanbio, Alaia Martin, Aitor Sarriegi, Andoni Egaña eta Nerea Elustondo arituko dira; Ibon Leibar *Txinbo* izango da gai-jartzailea. Sarrerak salgai daude seminarixoa.eus-en, zortzi eurotan.

1949an jaiotako bergararren ospakizuna

Apirilaren 22an Tartufon bazkalduko dute. Apirilaren 14rako eman behar izena, 70 euro ordainduta eta kontzeptuan izen-abizenak jarrita: ES69 3035 0009 17 0091162180 (Laboral Kutxa).



Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia, Villabonan egindako emanaldian. ITZIAR BASTARRIKA

Sarrionandia: "Agertokia arraro eta gozagarri zait"

Joseba Sarrionandiak eta Ines Osinagak 'Katuen kontuak' ikuskizuna aurkeztuko dute martxoaren 30ean Seminarixoan (20:00), eta sarrerak salgai daude 'seminarixoa.eus' atarian. Bi artistekin egon da GOIENA, emanaldi bereziaren atzeko aldeaz egututik nahian

Jokin Bereziartua Lizarazu BERGARA "Ikuskizunak orain arte egin duen bidearekin oso pozik eta gustura nago. Ines [Osinaga] bidelagun ederra eta oso berezia izan da sorkuntza-prozesutik hasi eta agertokiraino. Musika egiten duenean asko gozatzen dut; beti egiten du harritzen nauen zerbait. Beti egiten du zerbait berria. Bide berri bat

izan da niretzat; hasierako zailtasunak ostean, asko ari naiz gozatzen orain". Joseba Sarrionandia (Iurreta, 1958) euskal idazle ezagunaren hitzak dira, martxoaren 30ean Seminarixoan (20:00) Ines Osinagarekin (Arrasate, 1982) batera egingo duen *Katuen kontuak* ikuskizunaren bueltan berba egiten; emanaldirako sarrerak salgai daude

dagoeneko *seminarixoa.eus* atarian, zortzi eurotan.

Ikuslearen erreakzioa zuzenean Harago ere badoa Sarrionandia agertokian sentitzen duena azaltzeko orduan: "Euskal Herrira itzuli nintzenetik ohitzen noa bizimodu berrira... Hori bai, agertokiarena beste kontu bat da, arraroa, ustekabekoa, eta

gozagarri zait. Ohituta egon naiz urte askoan nire bakardadean sortzen idazle moduan... Baina kontalari moduan ikuslearen zuzeneko erreakzioa ikustea berria da; une horretan sortzen den komunikazio modua berezia da, eta hori ederra da bizi garen gizarte inkomunikatu honetan".

Kantuak eta kontuak oinarri

Ikuskizuna kantuetan eta kontuetan oinarritzen dela dio Osinagak: "Josebak eta biok egin genituen dozena bat kantu duela hamar bat urte; testuak ia klandestinoki heldu zitzaizkigun, konplize baten bidez, eta horrek badu bere aura edo misterioa. Gainera, testuekin batera kontestuak ere heltzen zitzaizkidan. Hau da, *Ana*-ren testua heltzearekin batera banekien zein zen *Ana*. Josebaren arabera, kantuak txoriak moduan pasatzen dira, baina txori hori nor den, nondik datorren eta nora doan dakizunean beste era batera begiratzen diozu. Eta sentitzen nuen zor bezalako bat begirada osatu hori partekatzeke. Baina, azken finean, horiek dira gure ondasun guztiak: kantuak eta berbak. Hori besterik ez, eta hori guztia".

Osinagak "hainbat instrumentu" joko ditu eta Sarrionandia arduratuko da kantuak kontatzeaz: "Idazle oso ona izateaz gain, kontalari aparta da". Horrez gain, Itziar Garaluze artista bisualak irudiak nahastuko ditu zuzenean, ordu eta erdi inguru iraungo duen emanaldian.

Lehenak, iragarri gabekoak

Urtebete inguru igaro da ikuskizuna lehen aldiz plazaratu zutenetik, baina, Osinagak dioenez, hasierako emanaldiak formatu eta edukiera oso txikiekin egin zituzten. "Hori egin genuen

plaza espazio segurua izan zedin. Gero eta erosoago eta errespetatuago sentitzen joan garen heinean, lasaitu egin gara eta emanaldi handiagoak egin ditugu. Orain, emanaldiak iragarri egin ditugu; batek baino gehiagok esan izan digu kontzertuak iragartzen genituela egin eta gero...". Seminarixoan lehen aldia izango dute, eta aurrerago etorriko dira Elorrioko Gazte Topaguneko eta Andoaingo Bastero Kulturguneko emanaldiak, besteak beste. "Ez dakigu non egongo den azken geltokia. Azkenaldian bogan dago azken kontzertua iragartzea, baina gu ez gaude horretara. Denetariko musikariak behar ditugu gure kultura ekosisteman; *sold out*-ak eragiten dituztenak eta bestelako proposamenekin gatozenak".

Nor bere proiektuekin ere bai

Bestalde, Osinaga bestelako proiektuekin ere buru-belarri dabilen bitartean, Sarrionandiak paraleloki ere bere proiektuekin jarraitzen du. "Plazan bere lekua topatu duen arren esan izan dit ea utziko diogun talde feministara batzen, ezetz esaten ikasi behar duela. Alde horretatik, *poli-maitaleak* gara; kar-kar. *Katuen kontuak* Josebak eta biok partekatzen dugun espazio bat da, eta oso ondo pasatzen dugu; ez gaude denean ados, eta uste dut horregatik ere moldatzen garela horren ondo. Gutun bidez egututik genuen elkar eta orain konplizitate handia dugu".

DUELA URTEBETE INGURU ESTREINATU ZUTEN 'KATUEN KONTUAK', OSO FORMATU TXIKIAN

Arrakastaren isla da Isladak

Isladak antzerki taldea hilaren 17an estreinatu zen Seminarixoan. Harmailak bete egin ziren herriko aktoreen lau antzerki pieza motzak ikusteko: *Horrela hasi zen dana*, *Disturbios en la fábrica*, *Autobus geltokia* eta *Diamantes de ciudad*. Ikusleek txalo artean agurtu zituzten oholatza gainean egoteari neurria eta gustua hartu dioten aktore amateurak.



IMANOL SORIANO

BKEren futbol campusean izena emateko aukera dago

Bergara Kirol Elkartek futbol campusa antolatu du ekainaren 26tik uztailaren 21era, 2009 eta 2014 urteen artean jaiotakoei begira. Izena eman daiteke maiatzaren 1era arte, izen-emate orria beteta. Lau asteko campusaren prezioa 290 euro da, baina bada go aukera astebete, bi aste edo hiru aste egiteko; aste bakoitzaren prezioa 90 euro da.

'Mugak zubi' ibilbidea aurkeztu dute, Aiherra eta Antzuola artekoa

Hamabi etapatan banatu dute mendi zeharkaldia, eta 204 kilometro ditu. Izen bereko webgunean bildu dituzte xehetasunak, eta bihar egingo dute bideetako bat elkarrekin: Lekorne-Aiherra. Mugarik gabe, "nazioaren" bide izateko nahia dute sustatzaileek



Gastambide, Biscay, Barbier, Olaizola eta Kortabarria, martitzenean, Urruñan. A.R.K.

Amaia Ramirez de Okariz
Kortabarria URRUÑA

Mugaz gairi, *herria* josi nahi duen mendi zeharkaldia aurkeztu dute Antzuolako eta Aiherrako (Nafarroa Beherea) udalek. 204 kilometroko ibilbidea da, hamabi etapatan banatuta eta bi herriak lotzen dituena, *Mugak zubi* lelopean. Duela 39 urte sortutako sendotzea are gehiago sendotzea du helburu, baina ez hori soilik; egitasmoarekin amets baitute *herria* egiteko bidea dagoela erakustea, Euskal Herria batzekoa, harremanak josteko; mugarik gabea eta batasunean oinarritua dena.

Martitzenean egin zuten ibilbidearen aurkezpena, Urruñako Xaia ostatuan (Lapurdi), bi herrietako kideak bertan bildu izan baitira, sarri, proiektu horri zein beste zenbait bide emateko. Beñardo Kortabarria Antzuolako alkatea, Arño Gastambide Aiherrakoa eta Jean Mixel Barbier, Samuel Biscay eta Panpi Olaizola aihertarrak elkartu ziren prentsaurrekoan. Hala ere, eskerrak eman zizkieten joan ezin izan ziren baina proiektuan buru-belarri aritu diren Beñat Durruti aihertarrari eta Oier Peñagarikano antzuolarrari, eurek eginiko lana funtsezkotzat jota.

Proiektzio handiagoa

Azaldutenez, 2018an otu zitzairen ibilbidea sortzeko ideia, baina pandemiaren ondorioz etena egin, eta duela bi urte berrekin zioten egitasmoari. "Urrats berri bat da bi herrien arteko loturak sendotzeko, baina badu beste proiektio bat ere: Euskal Herri mailako zer bait izatea. Herri bakartzat agertzen gaituen proiektua da, herri berekoak izatearen sentsazioa eta

bizipena dakarrena", adierazi du Kortabarriak.

Hala, euskararen eta euskal kulturaren bidea ere badela erantsi du Antzuolako alkateak, euskara dutelako ardatz eta herrietako ohiturak eta paisaiak ezagutzea xede; funtsean, "nazioarena" ere badela aldarrikatu du. Eta bat egin du Barbierrek ere: "Herri bereko seme-alabak gara, hizkuntza bera dugu, eta hori oinez ibiliz ere ikusten da. Ibilbide horren bidez konturatuko da zinez Euskal Herriko batasunarekin, bat egiten dugu-

"HERRI BEREKOAK IZATEAREN BIZIPENA ETA SENTSAZIOA DAKAR PROIEKTUAK"

BEÑARDO KORTABARRIA

la elkarren artean". Haren hitzetan, mugak aipatzen dira, baina norbere buruan daude. Are gehiago, Gastambidek ere ildo beretik jo nahi izan du: "Ez da mugarik. Hori da proiektu honen printzipala. Egingen dugu lotura gure artean".

Martxan da webgunea

Mugak zubi bihur daitezkeela erakusteko, beraz, hiru eta sei ordu arteko hamabi etapaz osatu dute ibilbidea, eta guztiak bildu dituzte *mugakzubi.eus* webgunean, eskuragarri egon daitezen.

Durrutirekin batera, batik bat, Peñagarikano arduratu da ibilbidearen alde teknikoaz, eta horren berri eman du: "Ibilbidearen nondik norako bat zehaztu genuen lehendabizi; zein izango zen zeharkaldiaren no-

rabidea; eta, behin hori eginda, mapak egin genituen, Interneten dauden errekursoak erabiliz zirriborro bat osatuta". Ostean, aihertarrek etapa batzuk egin zituzten eta antzuolarrak beste batzuk; zeuden okerrak zuzendu, eta oharrak zein argazkiak egin zituzten webgunea osatzeko. "Lan dezente izan da etapa guztiak egitea; ia bi urte iraun du".

Ordea, nekeza izanda ere, erdietsi dute helburua, eta webgunean bildu dituzte eginiko etapa guztiak. "Aiherratik Antzuolara edo Antzuolatik Aiherra

"EZ DA MUGARIK; HORI DA PRINTZIPALA. EGINEN DUGU LOTURA GURE ARTEAN"

ARÑO GASTAMBIDE

rrara egin daiteke zeharkaldia, eta bi noranzkoak jasota daude; azalpenak ere egokituta daude noranzkoaren arabera". Idatzita daude esplikazio horiek, lekuak identifikatzeko baliagarri izan daitezkeen irudiekin batera. Eta, horrez gainera, sakelako telefonora edo mendiko GPSra ibilbidearen xehetasunak biltzen dituen dokumentuak deskargatzeko aukera dago. "Azkenik, mendian ondo ibiltzeko eta ingurunea zaintzeko dekalogo bat ere bada. Aurrerago joango gara eduki gehigarriak sartzen".

Gaur-gaurkoz, euskaraz bakarrik daude azalpen horiek, baina asmoa da gerora frantsesez eta gazteleraz jartzea. Are gehiago, bizikletentzako ibilbide bat ere egin nahi dute.

Zapatuan etapa bat

Nafarroa Beherea, Nafarroa eta Gipuzkoa zeharkatzen ditu ibilbideak, eta, orotara, hemezortzi herri: Antzuola, Legazpi, Mutioloa, Zerain, Segura, Idiazabal, Ataun, Amezketak, Arribe, Leitza, Arantza, Igantzi, Lesaka, Etxalar, Urdazubi, Itsasu, Lekuine eta Aiherra. Eta, hain justu, bihar egingo dute etapa horietako baten zati bat bi herrietako kideek: Lekorne-Aiherra.

08:00etan aterako dira Antzuolatik, eta 09:30ean Lekornera iristean kafea hartuko dute. Hiru orduko txangoaren ostean, Aiherrara iritsi eta aperitifia eta bazkaria egingo dituzte.

Edozelan ere, Antzuolara etorriko dira aihertarrak, Legazpi eta Antzuola arteko etapa egingo baitute apirilaren 2an. Bazkaria ere antolatuko dute, eta hilaren 27ra arte eman daiteke izena, udaletxean edo liburategian.



"Armarritik abiatua da Mairuaren Alardea"

PATXI OLABARRIA 'ANTZUOLAKO ARMARRIAREN ALARDEA' LIBURUAREN EGILEA
'Armarria', 'Antzuola' eta 'Alardea' atalak barnebildu ditu, eta "bitxikeria pila batekin" egin du topo; liburua salgai dago Itzar liburu-dendan, udaletxean eta liburutegian

Amaia Ramirez de Okariz

Kortabarria ANTZUOLA

Patxi Olabarriak (Antzuola, 1971) *Antzuolako armarriaren alardea* liburua ondu du. 2009an hasi zuen armarri horren gaineko ikerketa, Nabarraldeko Belateko hamabi kanoiak kentzeko eskaria egin zionetik, baina, gaiari tiraka, hainbat datu elkartu eta ondorio batzuk atera ditu. Martitzenean egin zuen aurkezpena jendaurrean, eta harrera ona zein harriurazkoa izan zuela azaldu du.

Has gaitezen hasieratik: 2009ko eskaria; zer zuten kanoiek?

Armarriak, banderak, sinboloak... herri baten nortasun ikur dira, baina eskariarekin ohartu ginen armarriaren sorreran ez zirela antzuolarrak egon. Juan Alfonso Guevara Sandoval Espainiako arma-erregeak sortu zuen, 1745ean; ez da guk erabakitakoa, beste nortasun baten ikur dira. Gipuzkoako armarrian sartu zituzten lehendabizi, eta ostean, Antzuolakoan. Hala ere, kanoi horiek euskaldunen arteko borrokaren isla dira.

Jatorriara joz, zergatik behar izan zuen Antzuolak armarria?

1200ean Gaztelak Nafarroako zati bat konkistatu zuen arte, elizateak zeuden, eta haien artean bailarak osatzen ziren. Bergara bailara zegoen tartean, eta haren barne zeuden gaur egungo Bergara, Elgeta eta Antzuola. Konkistarekin, orde, hiribilduak sortu zituzten, eta bailaren egitura desagertuz joan zen, jendea hiribilduetara joaten hasi baitzen. Uzarraga bakarrik gelditu zen, eta Bergarara bildu ginen.

Hala ere, ondoren, independentzia ere lortu zen herriak.

1629an izan zen hori, eta, ehun urtera, udaletxe bat eraikitzeko beharra zegoen; baita armarri bat ere. Orduan jo zuten arma-erregearenera, eta hark herri bakoitzak zein meritu zuen galdetzen zuen armarria osatze-



Patxi Olabarria liburuaren egilea, martitzenean, Antzuolako Herriko Plazan. A.R.K.

"GIPUZKOAKOAK EZ BEZALA, ANTZUOLAKO ARMARRIAK ERREGE KATEATUA DU; HORREK NAHASTU GINTUEN"

ko; hala ere, Antzuolak, ez zuen handirik, eta istorio bat asmatu zuen armarrian zerbait islatzeko. Horrela funtzionatzen zuen. **Mairuaren Alardea?**

Orduan asmatu zuen antzuolarrak Valdejunquerako batailara joan ginela; Mairuaren Alardean kontatzen den istorioa, alegia. Horrela eraiki zen armarria.

Hala ere, errege presoan jarri duzu arreta.

Armarriko eremu batzuk Gipuzkoakotik hartu zituen: hamabi kanoiak eta erregea. Hala ere, Antzuolako erregeak kate bat du, Gipuzkoakoak ez bezala. Horrek nahastu gintuen, eta Rosa Ayerbe historialaria ere harrituta zegoen. Ordea, Madrilgo artxiboetan zebilela, Gipuzkoako armarri batean erregea lehen aldiz kate batekin irudikatuta ikusi zuen. Orduan konturatu zen ez zela

Antzuolako sinbolo bat; baizik eta Gipuzkoakoa. Bada, Mairuaren Alardea armarriaren imitazioz sortu zen, armarritik abiatuta.

Bada, hori da ondorioetako bat; hala ere, musika ere ikertu duzu...

Bai, eta sorpresetako bat izan da Mairuaren Alardeko kalejiran jotzen den musika Espainiako himno bat dela; bagenekien mar-txa militar bat zela, alardea ere badelako, baina hori errege familiaren ospakizunetan jo izan da. Orain, hitz egin beharko da ea zer egiten den musikarekin. Hala ere, argi utzi nahi dut hau ez dela Alardearen aurkako liburu bat.

Zergatik uste duzu mantendu behar dela?

Foru alardeak ziren euskalduntzat genituen eskubide batzuk foruak galdu aurretik. 18 eta 60 urte arteko gizonezkoak kalera ateratzen ziren urtean behin armekin, baina, foruak galtzean, erreakzioz sortu ziren alardeak. Ez ziren ezerezetik sortu, euskal pizkundea baitzegoen kultura mailan. Eta harro egotekoa da Antzuolak ere han parte hartu zuela.

'Belarriprest' proiektua aurkeztu du Amaia Bono artistak


Behatxulo programan ondu du; lehen lana du euskaraz, eta irakaskuntza-esperientziak partekatzeko asmoa du

A.R.K. ANTZUOLA

Eguaztenean, hilaren 22an, aurkeztu zuen Amaia Bono artista gasteiztarak *Belarriprest* proiektua, Olaranen. Antzuolan eginitako sormen-egonaldiaren lehen emaitzetako bat da, baina garatzen joango da.

Debagoieneko Antzerki Plataformako kideak ez ezik, Antzuolako Udaleko ordezkariak eta Garaion Sorginguneko (Ozeta, Araba) lagunak joan ziren aurkezpenera, eurekin partekatu zuen proiektuaren prozesua, eta, azaldu duenez, "oso gustura" dago harrerarekin.

Tailer bat egiteko asmoa du, hiru zatitan: batetik, elkar eza-gutzeko jolasak eta dinamikak egin nahi ditu parte-hartzaileekin, antzerki dinamikak erabiltzaileekin; bestetik, "euskararen soinuaren berezitasunak zatitzeko ohitura erritmikoak eta soinu-



Bono, aurkezpenean. AMAIA BONO

koak" lantzea du xede; eta, azkenik, euskarari eta haren erabilere buruzko esperientziak aztertu nahiko lituzke. Izan ere, jakinarazi du pertsonalki ere euskara ikasteko saiakera ugari egin dituela, eta horren gainean hausnartzea interesatzen zaiola.

Laburbira zirkuituko lanak ikusgai izango dira domekan

Euskarazko film laburren zirkuitua da Laburbira, eta hogei-garren aldia du. 28 film aurkeztu dituzte, eta horietatik zazpi aukeratu dituztela jakinarazi du Euskaltzaleen Topaguneak, antolatzailea baita. Herriz herri emanaldiak egiten dabilta martxoaren 6a ezker, apirilaren 5era arte, eta, jakinarazi dutenez, hautatutako lanak gaur egungo zinemagintzaren "lagin apartak" dira.

Antzuolan ere zazpi lan horiez gozatzeko aukera izango da etzi, sortzaileen lana erakusteko asmoz: Maria Bartolomek, Erik Camposek eta Fernando Martinek *Olatuen isiltasuna* lana ondu dute; Marina Perosanzenek, *Mus-kil*; Maider Oleagak, *Irrits*; Ane Cuestak, *Asko falta da*; Leire Egañak, *Erlojupekoa*; Josu Martinezek, *Hitzak*; eta Iulen Aranek, *Koadro goriari heldu*.

Bada, Torresoroan izango da lan horiez gozatzeko aukera, bertan egingo baitute emanaldia, 18:00etatik aurrera.

Euskal Herriko Mus Txapelketan izango dira antzuolarrak

Lurraldeetako kanporaketak jokatu ostean, Euskal Herriko Mus Txapelketako finalerako txartela eskuratu zuten Miren Iturbek eta Jesus Kortabarriak, eta, beraz, bihar Zornotzan (Bizkaia) jokatu den azken fasean izango dira. Hala ere, Kortabarria ezin izango da joan, eta Iturbek beste bikote kide batekin hartuko du parte.

Atzeko herri-torneoan izena emateko epea zabaldu dute

Maiatzaren 6an izango da atzeko herri-torneoa, eta hilaren 30era arte dago izena emateko aukera, labur.eus/OlaldeTorneoa helbidean. Gaztetxoek maiatzaren 5ean jokatu dituzte partidak. Zortzi euroko prezioa du, kamisetarekin. Horrez gain, etzi, San Isidro txapelketako partidak jokatu dira, 10:00etan hasita.

Etsita, behin eta berriz eragindako kalteengatik

Domekan beteko dira hiru aste Asentzio ermitako kanpaia lapurtu zutela. Ordutik, hutsik dago kanpai-horma eta etsita daude auzotarrak. Diote konponketa-lanak egin arren behin eta berriz daudela modu bateko zein besteko erasoak

I. Barrena / L. Zeberio ELGETA

"Alferrik da, jendeak orain ez du ezer errespetatzen", dio Jariotxo baserriko Jose Luis Larrañagak. Auzotarrak etsita daude. Orain arteko erasoetan lapurrak ez dira kanpaia eramatera heldu, baina ez da lehenengo aldia ermitan lanak egin eta handik gutxira apurketak, grafitiak eta zikinkeria-pilaketak agertzen direla. "Inguru honetan nahiko gauza larriak gertatu dira. Ez dakigu zergatik, baina jendeak ez du ezer errespetatzen. Ez dira gauzak baloratzen. Ermita honek urte asko ditu. Gerra ostean guztiz apurtuta gelditu zen, eta dena berriro zen. Gustatuko litzaiguke egoera onean mantentzea, baina ikusten ari gara ezinezkoa dela".

Paraje oso ederrean dago Asentzio ermita, baina bakartia ere bada behin ilundutakoan. "Azkenaldian eraso asko egon dira. Ikusi besterik ez dago elizpea nola dagoen. Pintatu egiten dugu eta hilabetera berriro ere lehen moduan dago. Bandalismo totala da hau!".

Azken erasoa

Martxoaren 12an gertatu zen azken erasoa. "Gu astelehen arratsaldean konturatu ginen leihotako bateko burdinak



Jose Luis Larrañaga auzotarra eta Iñigo Barrena kazetaria ermitari begira. GOIENA

DUELA HILABETE ETA ERDI INGURU EGIN ZITUZTEN AZKEN KONPONKETAK ERMITAN

bihurtuta zeudela". Ermitan funtzionamenduan dagoela azaldu du Larrañagak. "Meza esaten da maiatzean Asentzio egunean, eta bi ezkontza ere egin dira hemen azkenengo. Ezkontzen zirenek margotu eta txukundu

zuten ermita, baina hilabetera lehen moduan zegoen berriz".

Soluzio zaila

Soluzioa zein izan daitekeen galdetuta, etsipenez erantzun du Larrañagak: "Uste dut ez dagoela soluziorik. Alferra da hemen ezer egitea. Hau aparte gelditzen da, eta ez dabil ia inor". Uste du errespetu falta ez dela ermitarekiko bakarrik: "Udan jende asko ibiltzen da hemen, eta ez dago errespeturik. Zaborra ere bertan uzten dute, eta ezin zaie ezer esan, gainera".




KANTSATZEKE

Mendi buelta eta sagardotegia

Kantsatzeke Mendi Taldeak domekan egin zuen 2023ko lehenengo irteera. Tolosatik abiatu eta Uzturre eta Loatzo gainetako gurutzeak ikusi ostean, Villabona-Amasa aldera egin zuen taldeak. Urtean behin sagardotegian bazkaria ere egiten du taldeak, eta Eguzkitza sagardotegian egin dute aurtengoa, domekan. Apirilaren 23rako iragarri dute hurrengo irteera.

Dantza saioa bertan behera

Aragoiko jotaren oinarrien gainekoa egiteko zuten domekako Herrixa Dantzan saioa. Dantza tradizionalen sustapenean diharduten Jesus Rubio eta Olga Leon dantzari aragoitarrekin. Baina, azken orduan, bertan behera geratu da saioa. Izan ere, dantzako irakasleek, "etxeke gorabeherak" tarteko, ezin izango dute Elgetara etorri.



HERRIXA DANTZAN

OHARRAK

Udaberriko bingoa gaur Ozkarbi elkarte

Beheko kaleko jai batzordeak antolatuta, udaberriko bingo saioa izango da gaur, 19:00etan, Ozkarbin. Aurretik, txistor-jana egingo dute.

Bi irekiera-ekitaldi egunotan antzokian

Sormen-egonaldien barruan bi irekiera-ekitaldi egingo dira egunotan. Zapatuan, 11:00etan, Kokoxa konpainiak egingo du, eta martitzenean, 19:30ean, Les Bobe Bobe taldeak.

Ahuntzen mendi lasterketa domekan

Ahuntzen eta Antxumeen bigarren lasterketa domekan jokatu da. 300 lagun daude izena emanda (Ikus 33. orria).

Lehen astrotopaketa eguaztenean

Ilatargi elkarteak Udalarekin eta udal liburutegiarekin antolatutako lehen astrotopaketa eguaztenean izango da, 18:30ean, liburutegian. 16 urtetik gorakoendako da.

EH Bilduk herri batzarra egingo du eguenean

Elgetako EH Bilduk programaren lanketa egiteko batzar irekia deitu du eguenerako, 18:00etan, udaletxean.

Kalteak hainbat lekutan

Aurreko aldeko leihotako bateko burdinak bihurtuta sartu ziren lapurrak ermitan. "Katu-erreminta ere han laga dute. Barrutik eskailera atera eta teilatura igota eraman dute kanpaia. Ateko sarraila eta ermitako atzeko bi leihotako kristalak ere apurtu dituzte", azaldu du auzotarrak. Horma-kanpaia hutsik dago ordutik. Teilatua ere kaltetuta dago.



Hutsik dago Asentzio ermitako kanpai-horma. GOIENA

Modelismo-maketak ezagutzeko aukera bihar

17 urtetik gorako edonork izango du aukera Ibai Zenekortaren maketak ezagutzeko: autoak, itsasontziak, gerrako ibilgailuak, eraikinak, gazteluak, hegazkinak... Gainera, manga-marrazkien gaineko azalpenak emango ditu gaztelekuan

Mireia Bikuña Madrid ELGETA

Gaztelekuak martxorako gazteendako iragarritako ekintza modelismoaren gainekoa da. Bihar arte, modalitate hori ezagutzeko aukera egongo da Ibai Zenekortaren eskutik. 17 urterekin hasi zen modelismoarekin eta ehunka maketa ditu dagoeneko. Baina zer da modelismoa? "Makinen, pertsonen edo eraikinen miniatu-razko erreproduktzioak eraikitze eta zuzentzeko artea da. Batzuek diote zaletasuna dela, baina hori baino askoz gehiago da: arte bat da. Eta, zoritza-rez, desagertzen ari da".

Bihar, 16:00etarako, prest edukiko ditu maketa horietako batzuk, bertaratzen direnei erakusteko. Maketa huts bate-tik hasita, zer eta nola egin daitekeen erakutsiko du. "Gehienetan, halakoak ez dira erdigungean ipintzen. Norberak etxean duen zaletasun bat dela uste da. Eta arte honek iraun



Ibai Zenekorta, modelismo-maketekin. IBAI ZENEKORTA

dezan gura badugu, kalera ater behar dugu", dio.

Tamaina askotarikoak

Eraikin ezagunak, autoak, hegazkinak, itsasontziak, gerrako ibilgailuak... horien guztien

maketak egin daitezke. Tamaina eta estilo askotarikoak. Arte horretara bideratu gura ditu elgetarrak. "Etor daitezela maketak ikustera. Merezi du, eta harritu egingo dira", esan du Zenekortak.

Manga-marrazkiak

Modelismoko maketak erakustez gain, beste arte mota bat ere partekatuko du bilbotarrak: manga-marrazkien gainean jardungo du. "Manga hitzak marrazki apetatsuak esan nahi du, eta izen horrekin deitzen zaie Japoniako istorioei. Marrazki oso koloretsuak dira. Nola egin azalduko dut".

Beraz, modelismoa eta manga-marrazkiak gertutik ezagutu gura dituztenek aukera ezin hobea dute bihar. Zenekortak dio 17 urtetik gorako edonoren-dako ekimena dela.

Udaleku parte-hartzaileak

Bestalde, Udalak eta Oinherrik sinatutako akordioaren haritik dator udalekuak ahalik eta parte-hartzaileen izan daitezen eskolan abiarazi duten ekimena: umeei galdetzea nolako udalekuak gura dituzten. Ekintzak, proposamenak, ideiak... jasotzen eta lantzen ibili dira. Hortik harago, herritarrek ere badute euren ekarpenak egiteko aukera. Liburutegian mahai bat ipini dute horretarako.

Bada, ekarpenak egiteko azken eguna gaur da: martxoak 24. "Eskolan egindako lan-taren emaitzak eta herritarren-gandik jasotako ideia, ekarpen, proposamen eta dena delakoak kontuan hartuko dira udalekuei forma emateko orduan", dio liburutegiko arduradun Geaxi Ezpeletak.

Badator 'Gu ere kontalari' ekimena

Pandemiak eragindako etenaren ostean, maiatzaren 5ean egingo dute berriro *Gu ere kontalari* ekimena, umeak ipuin kontalari dituen ekimena. Aurreko astean batu ziren liburutegian zazpi ume eta bi guraso, eta ekimenari "beste buelta bat" ematea adostu zuten. Hasteko, ekimena bera iragartzeko logo lehiaketa egitea pentsatu zuten. Edozein herritar aurkez daiteke lehiaketara. Proposamenak liburutegian utzi behar dira. Logo horrek iragarriko du maiatzaren 5eko ipuin kontaketa, baina, aurretik, kontalari izan gura duten gaztetxoendako izen-ematea zabalduko dute. Apirilaren 24tik aurrera izango da hori.

Bestalde, gaur, hilak 24, egingo dute artista liburuaren sormen tailerra, HHko eta LHko umeendako, adinaren arabera, bi txandatan: 16:30ean eta 18:00etan. Izenak, aurrez.

Bailarako trikitilariak herrian batuko dira maiatzaren 6an

Trikiti eskolek egun osoko egitaraua prestatu dute XVIII. jaialdi ibiltariari ongietorria egiteko

M.B.M ELGETA

Debagoieneko XVIII. Trikiti Eguna Elgetan ospatuko dute maiatzaren 6an. Bailarako trikitilariak batzen dituen jaialdia ibiltaria da; herririk herri ibiltzen da urtero –iaz, Eskoriatzan–, eta aurten elgetarrei egokitu zaie egun handia antolatzea, bigarrenkoz (aurrez, 2013an egin zuten). "Zenbat pertsona elkartuko garen zehaztea jakitea oso zaila da. Iaz, 250 elkartu ginen bazkaltzeko. Horren bueltan ibiliko gara", esan du Elgetako trikiti irakasle Adolfo Jainagak.

Egun osoko festa

Bailarako trikitilarietara batera Soraluzeko eskolakoak ere egongo dira herria girotzen. Haiekin batera, Bermeoko eta Legutioko trikitilariak ere bai. Guztien artean egun osoko jaialdia egingo dute. Eguerdian hasita, kalejira egingo dute eskola guztiek, nor bere kasa. Bazkaldu aurretik, 13:00etan, eskola guztiek batera egingo dute emanaldia, herriko plazan. Arratsalderako, kalejira erraldoia, Ttipika taldearekin erromeria eta triki-potea iragarri dituzte.



MIKEL URKIA

Hirugarren izan da Arantzabal

Bergaran jokotutako Gipuzkoako hiru txirlo txapelketako bigarren jardunaldian, Sebas Arantzabalek hirugarren postua eskuratu zuen, bost txirlo botata. Xabier Loiola izan zen onena, zortzi txirlorekin. Elgetako jaurtialdia maiatzaren 20an izango da, eta Lehendakari Saria ekainaren 10ean; azken hori, Azpeitian.

Gaur da frontenis txapelketan izena emateko azken eguna

Amateur mailako txapelketarako izen-ematea postaz egin behar da, fronteniselgeta@gmail.com helbidean. Bikote bakoitzak hamabi euro ordaindu beharko ditu. Izan ere, modalitate horretan jokotuko da txapelketa, bikoteka, eta bi kategoriatan: gizonezkoak eta emakumezkoak. 16 urtetik gorako edonork parte har dezake txapelketan. Dagoneko hamar bikotek eman dute izena: bosna kategorian bakoi-tzean.

Bikote-kopuruaren arabera adostuko dute nola jokatu, baina antolatzaileen asmoa da as-teburu berean hasi eta bukatzea. Hain justu ere, martxoaren 31n hasi eta apirilaren 2an bukatu.



Eukene Urzelai, Izaro Elortza eta Xabier Igartua, astelehen goizean Lezesarri auzoan. O.E.G.

Lezesarri irisgarriagoa eta seguruagoa da orain

Oinezkoendako espaloia egokitu dute Azkoagaindik Urrintxo pareraino, errepidea pasatzeko bidea markatu eta ibilgailuen abiadura moteltzeko oztopoak jarri; argiteria berria auzotarrekin batera ordaindu du Udalak. Auzotarrak pozik daude lanekin

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Bukatu dituzte Lezesarri auzoko irisgarritasun- eta segurtasun-lanak. Oinezkoendako bidea egin dute, errepide izkinatik, Azkoagain parean hasi eta Urrintxoraino–Arantzazurako bidean, errepidearen ezkerretik hasieran eta eskuinaldetik amaieran–, eta irla batzuk jarri dituzte errepide erdian, ibilgailuen abiadura moteltzeko. 300.000 euroko kostua izan dute lanek, gutxi gorabehera. Beste 30.000 euro izan da argiteria aldatzea; auzotarren eta Udalaren artean ordaindu dira lan horiek.

Auzotarren eskaria

Auzotarrek duela hamasei urte egin zuten lehen eskaera irisgarritasun eta segurtasun arazoei erantzuteko. Aloña Menditiki ere jaso dute Udalean eskaera berbera: gurasoak kezkatuta daudela, lekua arriskutsua dela. Egindako lan horiekin pozik daude auzotarrak. "Denbora eta dirua kosta da, baina pozik gau-

de. Inbertsioa izan da hau; ez da auzotarrendako bakarrik, herritar denendako hobekuntzak dira. Aurrekontu parte-hartzailetan ere beti agertu da Jaumendi aldera edo honantz lanak egiteko eskaera, adibidez", dio Lezesarriko auzo-alkateak, Eukene Urzelai, eta Azkoagain inguruan aparkatzeko ohitura horrek errotuta jarraitzen duela gaineratu du.

Horrela geldituko dira gune hartako lan horiek, baina ez da baztertzen Arantzazu aldera, gora, jarraitzea oinezkoen bideak. "Arantzazu, Uribarri, Araotz eta Lezesarri auzoek eta frantziskotarrek eginda dugu eskaera bateratu bat Udalean, duela 10-12 urte, bidegorri moduko bat

**ARANTZAZUN
BEHERAKO AUZOEK
ESKAERA BATERATUA
DUTE EGINDA
BIDEGORRIA EGITEKO**

egiteko Arantzazuraino", gaineratu du Urzelai. Jaumendirako oinezkoen bide zaharra berreskuratzea eta euskal artzainari eskainitako monumentuaren mantentzea egitea ere eskatu du Lezesarri. Udalak asmoa du monumentuen eta herri-ondarearen plan bat egiteko, urteroko mantentze-lanen planifikazioa egiteko.

Auzoetan jarraitzeko asmoa

Asfaltatze-lanak ere egin dituzte Azkoagain inguruan, eta Elkar Hezi pareko urak bideratzekoak ere bai. Beste 200.000 euro inguru izan dira horiek, eta, gaur-gaurkoz, Udalak ez du inguru hartan beste lanik aurreikusten, baina, Izaro Elorza alkateak adierazi duenez, Udalak jarraituko du "auzoen beharrik identifikatzen eta auzotarrekin batera kontrastatzen eta gauzatzen". Goribar eta Torreauzo inguruko lanak aipatu ditu, eta horien gauzatzeko plana martxan dagoela esan du.



NIRE USTEZ

UXUE MONTERO

Oñati, letren artean

Sandailin hasten da Ibon Martinezen azken eleberri beltza, *El ladrón de rostros*, aurtengo urtarrilean argitaratua. Lehenengo aldiz, Ibonek eszenatokia itsasotik urrunduta Oñatira ekarri du. Hark esan zuen bezala: "Istorio honek paisaia-aldaketa behar zuen, lurralde emankorra mito, kondaira eta tradizioan. Mundu berde eta lasaia... Ni iritsi arte". Hiltzailearen bila, protagonistak udalerriko leku ezagunenetako batzuetan ibiliko dira. Bat-batean, beste bi idazle ezagun datozkit burura, gaztelaniaz idazten dutenak, eta Oñatin ere kokatu dituzte haien istorioetako bat. Lehenengoa Toti Martínez de Lezea da: *La flor de argoma* (Otalora izenburuarekin euskaratuta) nobela historikoa Araotzen gertatzen da. Bestea, Eva García Saenz de Urturi: haren *Hiri zuriaren trilogia*-ren bigarren liburua, *Los ritos del agua*, batez ere, Gasteizen gertatzen den arren, baditu eszena batzuk Sandailin ere. Azken hori, oraingoz, ez dago euskaratuta. Bai, ordea, trilogiaren lehen liburua: *Hiri zuriaren isiltasuna*.



OÑATIKO UDALA

Mahai berriak Santa Lutzian

Santa Lutziko mahaiak eta etabanku-pare guztiak berrituz dituzte. Partaidetzako aurrekontuen prozesuan bigarren proiektu bozkatuena izan zen, 412 botokin (%51,53). Lehen zeuden mahai eta bankuak kendu eta berriak jarri dituzte, harrizko oinarriak konpondu ostean. Martxoan egin dituzte lanak eta aurrekontua 5.400 eurokoa izan da.

Auzo-konpostari buruzko informazioa emango dute plazan

Hamar urte bete dira Oñatin auzo-konpost guneak martxan jarri zituztela, eta asteburuan informazio-gunea jarriko du Udalak plazan, ibilbidea nolakoa izan den azaltzeko eta herritar gehiago proiektura atxikitzea lortzeko. Bideo bat ere egin du, eta ikusgai egongo da. Gaur, egubakoitza, 17:00etatik 20:00etara eta bihar, 10:00etatik 13:30era.

OHARRAK

Argia kendu

Bidebarrietan eta inguruan argia kenduko dute astelehen gauean zazpi orduz.

Erorikoak: saioa

Erorikoak saihesteko lau orduko saioa dago apirilean. Izen ematea, anbulatorioan.

Ikastaroa

Apirilaren 24ra atzeratu da baserri jardueren ikastaroa.

"Lan asko egin dugu, baina gozatu ere bai"

MIKEL BOLINAGA ETA BELEN MARTIN ONGI TABERNAKO JABEAK

Zapatuan itxiko dute taberna eta agur festa antolatzen ari dira, herritarren oroitzapenak jasotzen ari diren bitartean. Pozik daude egindako ibilbidearekin

Oihana Elortza Gorostiza OÑATI

Duela 35 urte zabaldu zuten Ongi taberna. Mikel Bolinagak eta Belen Martinek zapatuan zabalduko dute azkenengoz.

Noiz zabaldu zenuten?

1988an. Lehen jai nagusiak 1989ko sanmigelak eta Kilometroak festa izan ziren. Harrezkero, gelditu barik.

Zer aldatu da ordutik?

Dena. Lehen, poteo handiagoa zegoen; adibidez, egunero zegoen mugimendua. Orain ere asteburuetan parranda egon arren, ondo pasatzeko era aldatu egin da. Eta pertsonak ere asko aldatu dira. Lehen, personaje eta artista ugari zegoen; egun, baina, denak berdinak dira, bakoitza bere eskuko telefonora begira bizi da; berba gehiago egiten zen lehen. Lagunarteko giroa ere ezberdina da. Eskatzeko eta ordaintzeko erak ere aldatu dira. Pandemia aurretik hasi ziren ohiturak aldatzen.

Ez da bat bittan eskatzen?

Zerbitzari askok ez lukete ulertu ere egingo hori.

75-80 pezetza zerbezak eta kalimotxoak orduan...

Eta 30 txikitoak eta 45 zuritoak. Baina oraindik ere garagardoa eta ardoa dira gehien ateratzen ditugunak; gaueko izarrak horiek dira oraindik. Kalimotxo asko



Mikel Bolinaga eta Belen Martin, Ongi tabernako barra barruan, eguaztenean. O.E.

ateratzen ditugu, eta handiak, lata osoarekin; trago handiak hartzea, adibidez, pandemiak ekarri du.

Barruak ere izan ditu aldagetak.

Aurrean aldenik alde eta L forman ere egon da barra, bai. Intsonorizatzeko lanak eta lurra mugitzen zelako proba bereziak ere egin izan ditugu. 2000ko jai nagusien ostean itxi genuen azkenengoz eta 2002ko San Migel Txiki jaietan zabaldu: hotela eta eungo taberna.

Beti ibili da jendea Ongin; nola lor-tzen da hori?

Saiatu gara beti gertuko tratua ematen. Huskeria izango da, baina azken obra egin genuenean tabernako barra ohikoa baino baxuagoa jartzea erabaki genuen, parez pare egoteko barraren alde bietakoak. Etxekoak egon gara beti inguruan eta zerbitzarietan ere egon da transmisioa; garai batekoen seme-alabak ere ibili dira. Oso pozik gaude lanean ibili diren guztiekin.

Zer ikusi duzue barra barrutik urte hauetan guztietan?

Horrenbeste urtean profesionalizatu egiten da lana eta ikusten

ere ikasi egiten da. Tabernan sartu ahalaz bat antzematen diozu jendeari zertara datorren; hau da, badakizu, adibidez, nork ez duen ordainduko. Berehala konturatzen zara zer edo nor dagoen tokiz kanpo. Zorroztu egiten da begirada.

Ligatzeko uneak ere bai, beraz.

Saiakerak eta emaitzak. Jaien ostean, esaterako, bikote berri asko ikusi izan ditugu.

Adin askotako jendea ibili arren, gazteekin egin duzue lan handien.

Horrela da, bai. Eta gazteak apartak direla esateko moduan gaude. Askotan esaten da gazteengatik bata edo bestea, baina ez hain gaztea dena berehala jartzen da urduri, adibidez, hark gura duenean kasurik egiten ez badiozu. Gazteek egoteko beste modu bat dute. Jakin egin behar da eurekin lan egiten, eta gu saiatu gara horretan. Ondo konpondu gara beti.

Zer izan da ibilbide honen onena?

Lan asko egin dugu, baina gozatu ere bai. Eskerrak ematea bakarrik gelditzen zaigu. Pertsonalki ere ederra da norberak martxan jarri duen negozio edo zerbitzu batek ondo funtzionatu duela ikustea.

Eta txarrena?

Guk egin ez ditugun edo gurean gertatu ez diren egoeren errua askotan leporatu diote Ongiri. Bestalde, tabernarioi, oro har, estutu egin gaituzte udal agintariekin, batzuek zein besteek. Oztupoak ikusita, zaila da lan honetarako gogoia izatea.

Nolakoa izango da zapatuko agurra?

Eguerdian luntx bat egingo dugu betiko bezereekin, lagunekin eta lanean ibili direnekin. Eta 19:00etan hasiko den festari buruz ez dakigu askorik. 35 urte hauetako kanta ezagunen zerrenda ari gara prestatzen.

Hotelaren eta tabernaren jarraipena

Erretiroa hartuko dute Ongi tabernako eta hoteleko jabeek, Mikel Bolinagak eta Belen Martinek. Negozioa, baina, ez da erabat itxiko. Iraipe Hoteles enpresari alokatu diote, hamabost urterako, eta biek jarraitzea da haren asmoa. Apirilaren 1etik aurrera hark kudeatuko du hotelaren zerbitzua, eta ordura arte Bolinagak eta Martinek kudeatuko dute, orain arte moduan.

Tabernaren etorkizuna, baina, ez dago hain garbi. Zapatuko agur-festaren ondoren itxita geldituko da, jabe berriak zabaldu arte. Izan ere, Iraipe Hoteles-en asmoa bada tabernari ere eustea, eta alokatzea da asmoa, baina oraindik argitu gabe dago zein zerbitzu emango duen eta irekiera noiz izango den.

Ongi hotelak hemezortzi logela ditu eta kanpotik herriko enpresetara lanera datozenak dira ostatua hartzen duten gehienak, turistekin ere lan egiten duten arren.

"GAZTEAK APARTAK DIRA, LAN HANDIA EGIN DUGU EUREKIN ETA BETI KONPONDU GARA ONDO"

Ekain pailazoak emanaldia egingo du zapatuan plazan

Ekain pailazoak izango da bihar, zapatua, arratsaldean plazan. Malabarrek izango da, ikusleak alaitzeko asmotan. Eguerdia lagun, plazan izango da ikuskizuna, 17:00etan; txarra eginez gero, gaztetxean. Ez da sarrerarik hartu behar. Arrano elkartearen 40. urteurrena ospatzeko antolatutako beste ekitaldi bat da.

Areto-bizikleta maratonia egingo dute apirilaren 1ean

Areto-bizikleta maratonia antolatuko dute Egoitek enpresak eta Udalak apirilaren 1erako, Zubikoan. 16 urtetik gorakoendako izango da eta izena www.kirolprobak.com helbidean eman behar da. 40 minutuko lau saio egingo dituzte, bakoitza monitorea batekin gidatuta, eta jatekoa eta edatekoa egongo da saiotik saiora.

The Lizards taldeak jarriko du musika domekan gaztelekuan

Carla Santacreu –ahotsa eta gitarra–, Judith Jordan –baxua eta ahotsak– eta Edgar Beltri –bateria– kide dituen hirukote bartzelonarra da The Lizards, melodiaz beteriko rock-and-rolla eta punk-rocka egiten dituen taldea. Domekan, martxoak 26, gaztelekuan joko dute zuzenean, 12:30ean hasiko den *matinee* kontzertuan.

AUTLAN[®]
EMD

Azken belaunaldiko pila alkalinoetarako
Manganeso Dioxido Elektrolitiko ekoizpena.



Mikel Begoña, erakusketaren inaugurazioa egiten, han batu zirenekin. JOKIN BEREZIARTUA

Euskal komikigintzaren historia, erakusketan

Azken 45 urteen errepasoa egiten duten 36 panelak ikusgai daude kultur etxeko erakusketa aretoan. Astelehenean egin zuten inaugurazioa, Mikel Begoña komikilari eta erakusketako komisarioaren eskutik, eta martxoaren 31ra arte egongo da ikusgai

Iñigo Barrena Kortabarria OÑATI
Euskal komikia 1975etik 2020ra izenpean, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatutako erakusketa da kultur etxean ikusgai dagoena. Euskal komikigintzaren azken 45 urteetako errepasoa egiten du, irudiekin eta testuekin landutako 36 paneletan banatuta. Kike Infame eta Mikel Begoña komikilariak dira erakusketako komisarioak, eta bigarren horrekin egin zuten inaugurazioa astelehenean. Erakusketarekin gozatu nahi duenak aukera dauka martxoaren 31ra bitartean, arratsaldeetan (18:00-20:00), astelehenetik ostiralera.

Erakusketa ekartzearen arrazoi nagusietako bat izan da Oñatiko kultur etxean irakurle talde berri bat sortu dela, hain zuzen, komikiak irakurtzeko zuzendua, eta aukera paregabea iruditu zitzaizela aitortu du Arantzazu Ibarrondo liburutegiko arduradunak: "Kike Infamek eman zidan erakusketaren berri, baina, oraindik gurean estre-

natu gabe zegoela aipatu zidan. Orduan, ikasturte honetarako irakurle talde berria osatu dugunez, hari indarra emateko aprobetxatu dugu".

Hamarkadaz hamarkada

Azken 45 urteak hamarkadaz hamarkada daude banatuta erakusketan, 36 paneletan banatuta. "Euskal komikigintzaren balantze bat aurkeztu dugu Kike Infamek eta biok erakusketa bidez, baita liburu batean ere. Askorik ezin izan dugu sakondu, baina esango nuke ia egile gehienak batzen dituela", dio Begoñak.

Erakusketan batzen dira, besteak beste, 70eko hamarkadan komikigintzak isiltasun urte batzuen ostean izan zuen birjaio-

tzea; 80ko hamarkadan izandako eztanda; fanzineek izan duten garrantzia; eta 90eko hamarkadan sortu ziren denbora-pasa berrien ondorioz komikiaren munduak jasan zuen krisialdia. Egun, ordea, urte haietan galdutako bezeroak "berreskuratzen" ari direla uste du Begoñak, batez ere, formatuak eta gaiak "aldatu" egin direlako eta eskaintza bera "zabalagoa" delako.

Tailerra eta Tertulixan, martxan

Erakusketaz gain, umeentzako bi saioko komiki tailerra eta Tertulixan komiki irakurle taldea ere antolatu dituzte. Asteartean egin zuten lehen tailerra eta hamabi haurrek parte hartu zuten; bigarrena datorren martitzenean izango da. Irakurle taldea, berriz, aurtengo ikasturteko berrikuntza da, eta, lehen saioa eginda, emaitza "oso ona" izan dela aitortu du Ibarrondok. Apirilean herritar guztiei zabaldua egingo dute eta maiatzean, taldekideentzat bakarrik.

EUSKAL KOMIKIGINTZAREN AZKEN 45 URTEAK 36 PANELETAN BANATUTA DAUDE ERAKUSKETAN

Bihar da 'Sehaska kanta gorriari' lanaren estreinaldia

Arta Kolektiboaren antzezlan da, Alaine Agirreren liburu batean oinarrituta; Santa Anan egingo dute, 19:00etan

O.E.G. OÑATI

"Goxotasun, maitasun, tristura eta emozio bidaia bat" izango da bihar, zapatua, Arta Kolektiboak taularatuko duen antzezlan, Irene Balzategi aktoreak adierazi duenez. Gaineratu du "ikustera joango den pertsona orok bizi izan duen momenturen bat" identifikatuko duela. Santa Ana antzokian izango da, 19:00etan.

Emakumeak ardatz

Emakumeen sormen-lana bis-taratzeko Oñatiko Udaleko Kultura Sailak emandako beka batekin eta Berdintasun Sailaren babespean prestatu dute antzezlan Balzategik, Amaia Castañeda bigarren aktoreak eta zuzendariak, Gentzane Martinez de Cestafek. Ondoan dituzte, baina, Itziar Bastarrika –iruditegiaren ardura–, Jone



Balzategi eta Castañeda. I.B.

Azkonaga –soinu-teknikaria– eta Donostiako Muare taldea –abestien diseinatzaileak–. Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz, ama* liburu hartu dute oinarri, eta horrek euren sorrarazitakoa erakutsiko dute bihar.

Lehen saria perkusioan

Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketa jokatu zen joan den asteburuan Gasteizko Jesus Guridi musika kontserbatorio profesionalean. Eta lehiaketa hartan lehen saria lortu zuen Kepa Lopez Lasak (17 urte), perkusio atalean; Euskadiko txapeldun. Jon Mestre Arzuagak (15 urte), berriz, ohorezko aipamena jaso zuen, pianoa joz.



J.L.

Dirulaguntza epea zabalik, gazte elkarte eta sormenerako

Udaleko Haur eta Gazteria Departamentuak 15.000 euro eman-gotu dituzte elkarteendako eta sormen-lanetarako. Hiru esparrutara heltzen da laguntza: kulturaren sormena eta hedapena, urteko programaketa edo elkarten sustapena eta ezohiko jarduerak. Eskatzaileak udalerriko irabazi asmorik gabeko gazte talde, norbanako edota

haurrei zuzendutako programak sustatzen dituzten elkarteak izan daitezke. Oñatin erroldatuta egon behar dute eskatzaileek –taldeen kasuan, kideen erdiak– eta 12 eta 30 urte artean izan behar dituzte. Dirulaguntza horiek eskuratzeko, Udalaren web atarian sartu eta hango eskaera-orria beteta aurkeztu behar da, hainbat agirirekin batera, taldearen nondik norakoak argituz eta egiteko asmoa duten ekintzen xehetasunak emanez. Azken eguna apirilaren 11 da.

GOIENA TELEBISTA SASOI BERRIA



HARA, BI!

MUNDUA ETA BIZITZA HAURREN IKUSPUNTUTIK
EGUAZTENEAN, 21:00ETAN ETA 23:00ETAN



KANTARI

DEBAGOIENeko GAZTETXOAK KANTUAN ETA DANTZAN
ZAPATUAN, 16:00ETAN
DOMEKAN, 09:00ETAN

ENTRETENIMENDUA GOIENA LEIHOAN



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA



goiena

Zu hemen zaude.




Oihana Kortazarrek debuta egingo du etxean

MENDI LASTERKETAK Domekan egingo dute Ahuntzen lasterketaren bigarren edizioa, eta emakumezkoetan Salomoneko ordezkaria da faborito nagusia. Elgetarra lehenengoz egongo da etxeko proban. Gizonezkoetan, berriz, indarrak berdinduago daude

Xabier Urzelai Atxa ELGETA

Iaz etxeko lasterketa promozio-natzen laguntzen ibili bazen ere –ordukoa da argazkia, Intxortara bidean–, Oihana Kortazarrek ezin izan zuen Ahuntzen lasterketako dortsala jantzi, lesio batetik erreku-pertzeko bidean zegoelako. Baina bigarren edizio honetan ez du hutsik egin nahi izan, eta hura da domekan (10:00, Elgetako plaza) emakumezkoetan lasterketarako faboritoa. "Batzen-dako gure lasterketa egokia da denboraldiaurre gisa hartzeko, aurrerago etor daitezkeen lasterketei begira prestakuntza moduan. Beste batzuen-dako, berriz, erronka polita izango da Ahuntzen lasterketa egitea", dio Eleder Lozano antolatzaileak. Eta bistan da Kortazar lehenengoen multzoan dagoela.

Gizonezkoen kategorian, berriz, Lozanok berak borroka estuagoa aurreikusten du. Lasterketako antolaketa taldeko



Oihana Kortazar, iaz Intxortan. GOIENA

kideak ez du izenik aurreratu, baina argitu du iaz errekorra (1.12.06) ezarri zuen Ibai Larrea antzuolarra ez dela irteera puntuan egongo: "Irabazleari kostako zaio marka hori ontzea; langa goian utzi zuen Larreak".

300 parte-hartzaile

Bistan dagoena da mendi lasterketen loraldiak ez duela etenik; izan ere, iaz 200 lagun egon ziren proban eta aurten beste 100 lagun gehiago hartuko dituzte: 300, guztira: "Iaz konturatu ginen izena emateko berandu ibili zirenen ordezkoren zerrenda luzea izan zela, eta aurten erabaki dugu beste 100 dortsal saltzea. Bada, haiek ere nahiko azkar bete ziren; horrenbestez, oso pozik gaude". Alegia, horrek erakusten du iazko Ahuntzen lasterketak izan zuen arrakasta ez zela egun bateko kontua izan, jarraipena izan dezakeen lasterketa dela.

Lasterketa egunean 60 elgetar baino gehiago egongo dira laguntzen: "Deialdia egin genuen eta jendeak osteraren erantzun egin du; oso pozik gaude". Hala, 10:00etan hasiko da nagusien proba –16 kilometro, 900 metroko desnibela– eta 10:20an gazteei zuzendutako Antxumeen proba.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GIZ. OHOR. ERREG.

Zumaia-Aloña Mendi

Zap. 16:00. Aita Mari.

Elgoibar-Bergara

Zap. 16:00. Mintxeta.

Hernani-Aretxabaleta

Zap. 18:00. Zubipe.

Beti Gazte-Mondra

Dom. 17:00. Maistegi.

EMAK. OHOR. ERREG.

Leintz Arizm.-Bergara

Zap. 12:30. Azkoagain.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

UDA-Beti Gazte

Dom. 12:30. Ibarra.

Deusto-Bergara

Zap. 13:15. Etxezuri.

GOINGOEN MAILA

Beasain-Antzuola

Dom. 18:30. Loinaz.

Aretxabaleta-Segura

Dom. 16:30. Ibarra.

Bergara-Tolosa

Dom. 17:00. Agorros.

Bergara-Tolosa

Dom. 17:00. Agorros.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

A. Vitoria-Eskoriatza

Zap. 17:00. Gasteiz.

Gora-Mondrate

Zap. 16:30. Bilbo.

GIPUZKOAKO TXAP.

Mondrate-Tolosala

Zap. 16:30. Musakola.

SASKIBALOIA

EBA

MU-Santurtzi

Dom. 18:30. Iturripe.

EMAK. LEHEN MAILA

Lointek Gernika-MU

Dom. 18:00. Gernika.

GIZON. LEHEN MAILA

MU-Goierri

Zap. 16:00. Iturripe.

GIPUZK. LEHEN MAILA

Soraluce BKE

Atsedena.

Añorga-Mekalki Aloña

Zap. 18:00. Donostia.

ESKUBALOIA

GIZON. EUSKA. TXAP.

Fagor Profesio.-Muskiz

Zap. 18:00. Zubikoa.

EMAK. EUSKAD. TXAP.

Zuazo-Cons.-Aloña

Zap. 20:00. Barakaldo.

GIZ. GIPUZK. TXAP.

Mugarri Ingou-Egia

Zap. 18:00. Iturripe.

Leizaran-Soraluce BKE

Zap. 17:45. Andoain.

PILOTA

Oñatin: Gaur (18:30) bi

partidu.

Aretxabaletan: Gaur

(18:00), partidu bat.

Bergaran: Domekan

(10:15) hiru partidu.

MENDI LASTERKETAK

Ahuntzen lasterketa.

Domekan. 10:00.

Elgetan.

TXIRRINDULARITZA

Gorlako I. martxa

zikloturista.

Zapatuan. 11:00.

Bergarako plazatik

abiatuta.

Gorlako Igoera.

Domekan. 10:00.

Amateur mailako 47.



Valladoliden kontrako partiduan. IMANOL SORIANO



Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean

GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Reala-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuk eta zuk aukeratutako beste lagun batek: Reale Arena futbol zelaiko *premium* gunetik.

Partida apirilaren 8an, zapatua, 18:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilak 2



Egin bazkide eta Realak ikusteko aukera izango duzu!

goiena" kide

Okm: batzen gaituen distantzia

Ezin errazagoa da zozketan parte hartzea!



1. Aplikazioa deskargatu.

2. Zozketak atalean sartu eta parte hartu.

Gertu. Zorte on!



Laudiotik Aramaiora saria eroateko "gogoz"

Aramaioko Izena Pentsau Bida eta Gasteizko Errexala eta Katuko Muinoak taldeek jokatu dute, bihar Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketako finala Laudion; egun osoko egitaraua prestatu dute eta 17:00etan izango da finala, BHI institutuan

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARAMAIO

Arabako bertsolaritzak urteetan eraikitzen joan den mugimendua sartzeko eta indartzeko helburuekin sortu zuten 2010ean Arabako Bertso Kuadrilla Arteko Txapelketa. Ordutik hona bi urtean behin taldekako ekimen hori antolatu dute; aurten, zazpigarren aldiz.

Taldekako txapelketa bat da, modu kolektiboan jokatzeko dena. "Horrek esan gura du bertsolariez gainera bertsoaren bueltan ari diren beste figura batzuek ere parte hartzen dutela; izan ere, talde bakoitzak, besteak beste, gai-jartzaile bat, epaile bat, saioaren berri jasoko duen argazkilaria eta kronikagile bat eta sukaldaria izan behar ditu. Eta txapelketa horrek hori du polita, beste txapelketa batzuetan ikusten ez diren figura horiek lehen lerroan jartzen dituela, taldearen parte direlako", azaldu du Izena Pentsau Bida taldeko kide Manex Agirrek.

Izena Pentsau Bida taldea

Manex Agirrerekin batera Martin eta Sabin Abarrategi anaiak eta Danel Herrartek osatuko dute Aramaio ordezkatzeko duen taldea. "Ni baino gazteagoak dira hirurak. Abarrategi anaiak



Aramaioko Izena Pentsau Bida taldeko kideak. ARABAKO BERTSOZALE ELKARTEA

ez dira Arabako txapela eskuratu zuen Peru anaiaren aldean atzean gelditzen. Martinek, gaztea den arren, badauka bere ibilbidea, hainbat txapelketatan ere parte hartu du eta. Bertsolari serioa, jantzia eta elegantea da, kantaera oso polita du. Sabine, anaia gazteenak, sekulako txispa du eta freskotasun handia ere bai, eta esango nuke finaleko saioan erakutsiko dela hori. Danel estilo berekoa dela esango nuke, edozein gairi heldu eta espero ez duzun lekutik ateratzeko gaitasuna duena".

Finalerako txartela duen Izena Pentsau Bida taldeaz gainera, Aramaio beste bi taldek ere hartu dute parte txapelketan: Tratamendurik Gabeak eta Ibarako Periferia taldeek, hain justu. "Herriko bertso eskolan jende asko ari gara, adin askotarikoak, gainera, eta hiru talde egiteko aukera izan genuen. Pozik ikusi ditut beste taldeak ere; batez ere, kide gazteenak, lehenengo plazak izan dira eta batzuentzat. Bihar Laudiora etorriko dira jaian parte hartu eta gu animatzera".

Finala jokatu duten taldeak

Izena Pentsau Bida (Aramaio)

- Manex Agirre.
- Martin Abarrategi.
- Sabin Abarrategi.
- Danel Herrarte.

Katuko Muinoak (Gasteiz)

- Eli Zaldua.
- Iñaki Viñaspre.
- Xabier Antia.
- Ekaitz Samaniego.

Erraxala (Gasteiz)

- Felipe Zelaia.
- Asier Otamendi.
- Kerman Lopez de Lacalle.
- Marta De Pedis.
- Patxi Alkorta.
- Ignacio Trojaola.

Bertsosarrerak.eus atarian eros daitezke sarrerak.

'Maddiren trajeria' pastoralala udal pilotalekuan

Xareta eskualdeko 100 lagunek baino gehiagok osatu duten obra bihar izango da, 17:00etan

A. Aranburuzabala BERGARA

Lapurdiko Sara eta Ainhoa eta Nafarroako Zugarramurdi eta Urdazubi herriek osatzen duten Xareta eskualdeko biztanleek orein bilakatu zen neska baten istorioa oinarri duen *Maddiren trajeria* pastoralala eskainiko dute bihar, zapatua, 17:00etan, udal pilotalekuan. Seminarixoko leihatilan eta *Seminarixoa.eus* atarian eskura daitezke sarrerak, 15 eurotan.

12:00etan hasita herriko kaletan desfilea egingo dutela azaldu du *Maddiren trajeria* pastoralako zuzendari Pantxika Urrutik: "Zuberoan eta beste lekuetan egiten diren pastoraletan beti egoten da desfile bat; helburua egun berezia girotzea da. Desfilearen amaieran dantza bat egin ohi dugu, eta pastoralako kantu bat abestu".

Bost diziplina obra berean

Literatura, dantza, kantua, musika eta joskintza uztartzen ditu pastoralak. "Ikuskizunean zehar kantuez, dantzez eta bertsoez gozatu ahalko da eta eszena guztiak musikaz lagunduta egiten dira. Zuzendari moduan, saiatzen naiz pastoralak ahalik eta dinamikoena izaten, une oro ikuslearen arreta atxikitzen".

GOIENA
TELEBISTA
SASOI
BERRIA

LEIRE ETXEZARRETA

MUSIKARIA

'GALDEGAZTE' SAIOA

MARTXOAREN 30EAN, EGUENEAN,
21:30EAN ETA 23:30EAN
IMANOL BELOKI KAZETARIAK ETA
ARRASATEKO BHI-KO IKASLEEK EGINDAKO
ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APLIKAZIOA

goiena
Zu hemen zaude.



"Obra korala da, mami handiko pertsonaiekin"

LUIS MIGEL LAINZ 'TURANDOT' OPERAKO ZUZENDARI ARTISTIKOA ETA EKOIZLEA
Ozenki elkarteak gonbidatuta, Pucciniren 'Turandot' opera eskainiko du Opera 2001 konpainiak astelehenean Amaia antzokian; sarrerak ia agortuta daude

Aitziber Aranburuzabala Juldain
ARRASATE

Munduan gehien eszenaratu den operetako bat da *Turandot*; Txina inperialean dago kokatuta eta muntaia ikusgarria du.

Amaia antzokian eskaintzeko bezperatan, ze sentsazio duzue?

Zaragozan arrakastaz estreinatu genuen bira, martxoaren 4an, eta harrezkero egin ditugun emanaldi guztietan aretoak bete egin ditugu —besteak beste, Cartagenan, Alacanten, Guadalajaran, Cadizen, Almerian, Santurtzin eta Murtzian—, eta Arrasaten ere hala izango da; oso pozik eta eskertuta gaude. Plazera da berriz ere Ozenki elkartearen eskutik Arrasatera itzultzea.

Euskal Herria operarako plaza ona?

30 urte badira konpainia sortu genuenetik, eta ondo hartu gaituzue beti. Musika lirikoa maitate duzue Euskal Herrian, aspaldiko tradizioa duzue, eta igarri egiten da hori. Garrantzitsua da hiriez harago eskaintzea, eta agintzen dizuet mimo berberarekin eskaintzen ditugula herrietan zein, adibidez, bira amaitzeko Parisen egingo ditugunak. **Zuzendari artistikoa eta ekoizlea zara; zelako obra dela diozu?**

Puccinik bukatu barik utzi zuen obra eta haren ikasle batek bu-



Luis Migel Lainz. OPERA 2001

"OSO ESKERTUTA GAUDE, BESTE BEHIN, ARRASATEN EGIN DIGUZUEN HARRERA ONAREKIN"

katu zuen gero. Operan iraultza egin zuen Puccinik, historia, mitologia zein erlijio gaietatik harago pertsonen sentimenduak lehen lerroan jarrita: amodioa, desamodioa, zoriontasuna, heriotza... Txina inperialean ko-

katuta dago eta Turandot printzesa da protagonistetako bat —apenas sentimendurik ez duelako *Izotzezko printzesa* deitzen diotena—, eta haren inguruan ibiliko dira berarekin ezkondu gura duten hainbat printze; Calaf, adibidez. Calafek hainbat proba gainditu beharko ditu Turandoten bihotza irabazteko. Amaiera polita duela aurreratu dizuet. Obra korala da; paper guztiek mami handia dute. Eszenografia eta jantziak oso ikusgarriak dira; *Turandot* obraren balio garrantzitsuak dira.

Puntako musikariekin lan egitea duzue ikur; zeintzuk dituzue?

Herrialde askotakoak ditugu, bakarlari nagusiei dagokienez. France Dariz sopranoa *Turandot* da; David Baños tenorea, *Calaf*; Yeonjoo Park sopranoa *Liu* da; Viatxeslav Strelcov Ukrainako errefuxiatua da baxua, *Timur*-en papera egingo duena; Inheyong Hoang tenorea *Altoum* da; eta *Ping*, berriz, Guillem Batllori baritonoa. Horiez gainera, 40 lagun baino gehiagoko guk sortutako orkestra sinfonikoa dugu, baita Siziliako Abesbatza Lirikoa ere. Horiek guztiak publikoaren aurrean izango dira, baina atzean lantalde handia dagoela ahaztu barik. Eskarmentukoak eta maila handikoak haiek ere.

Amaia antzokia lepo beteko da

Aldez aurretik salgai jarritako sarrera ia guztiak agortu egin dira; Arrasateko Altuna lurrindandan eskura daitezke geratzen direnak, 30 eurotan bakoitza.

Hiru ekitaldi ditu *Turandot* obrak eta bi zatitan banatuta eskainiko dute astelehenean Amaia antzokian; 20:15ean hasita, emanaldiak bi ordu eta erdi iraungo du.



Turandot operaren une bat. JULIO LOPEZ

Goienakideen txokoa

MARTXOKO SARIAK

Errigorako saskia

Parte hartzeko sariaren izena: errigora

ERRIGORA



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz

ARRIKUTZ
OSTATIKO DAK

www.harnemendenda.org
Industria Merkataritza eta Produktuak

Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea

PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE

"sararen izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakia.

"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte hartzelearen artean egingo da zozketa.

Indarren departamentuaren bidez, jakingarria dugu zozketaren bitartez Goiena Komunikazio Teletxuen bitartez zozketatutako bazkideak dela. Zozketaren bitartez haren helburua da indarren dagan azalpena gertatzen. Ekitaldiaren ondoren zozketaren bitartez, hark zozketak adierazteko aukera izango du. goienakide@goiena.eus

Realaren eta Getaferen arteko partidarako sarrerak futbol zelaiko tokirik onenean



GOIENAKIDEENTZAKO ESKAINTZA

Real-Getafe norgehiagoka beste modu batera ikusteko aukera bikaina duzue eskura zuek eta zuek aukeraturako beste lagun batek.

Real Arena futbol zelaiko premium gunatik. Partida apirilaren 8an, zapatua, 18:30ean izango da.

Parte hartzeko azken eguna: apirilak 2



Irabazi bi lagunendako otordua

MAULANDA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otorduan atala eta hartu partel!

Parte hartzeko azken eguna: martxoak 28

943 25 05 05

goienakide@goiena.eus

"Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE

Jatetxea

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



GOIENAKIDE KUOTA: 65€

Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGATU GOIENA APP BERRIA!

goiena kide

Okm: batzen gaituen distantzia

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Errentan hartzeko hiru logelako etxebizitza baten bila nabil. 663 46 71 10

Arrasate. Etxebizitza bila nabil errentan hartzeko. 643 01 98 98

Arrasate. Hiru logelako pisu edo etxebizitza bat hartuko nuke errentan. 663 466 673

Donostia. Donostian hilabete batzuetarako alokairu bila gabiltzan familia bat gara. Gutxi gora-behera 2023ko urritik 2024ko martxora arteko hilabeteetarako behar dugu. 639 98 76 45 (Olatz) edo 690 27 04 68 (Aitor)

2. GARAJEAK

204. ERRENTAN HARTU

Bergara. Bergarako San Antonio inguruan garaje bat hartuko nuke errentan, asteburuetarako. 653 74 91 23 edo 617 72 05 96

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Bergara edo Antzuola. Emakume euskalduna gertu astelehenerik egubakoitzera, arratsaldetan lau orduz, zaintza lanak egiteko. Soziosanitario ikasketak ditut. Telefonoa: 637 52 89 83

Bergara. Zapatu eta domekatan, 10:00etatik 17:30ak arte bi ume zaintzeko pertsona bat behar dugu. Gizarte Segurantzaren alta emango zaio. Euskara jakitea baloratuko da. 625 70 18 44 (Gorka)

402. ESKAERAK

Aretxabaleta eta ingurua. Goizetan nagusiak eta umeak zaintzeko edota garbiketarako gertu nago. 678 15 23 76

Arrasate eta ingurak. Hostalaritzan titulazioa daukat eta lan egiteko gertu nago. 608 15 37 07

Arrasate. Asteburuetan orduka lan egingo nuke pertsona nagusiak zaintzen edo etxeak garbitzen. Deitu 612 27 82 34 telefono zenbakira.

Arrasate. Esperientzia duen emakume euskalduna nagusiak zaintzeko eta etxeak garbitzeko gertu. 688 66 76 91

Arrasate. Hiru edo lau logelako etxebizitza behar dugu errentan. Telefonoa: 663 48 05 25

Arrasate. Mutila eguzki-panel instalakuntza lanetarako prest. Deitu 604 13 13 47 telefono zenbakira.

Bergara eta inguruak. Asteazken, goizez zein arratsalde, haurrak zaintzeko edota etxeko lanak egiteko prest. Neska euskaldun arduratsua naiz. Haur Hezkuntzako teknikaria eta graduatua. Haurrak zaintzen esperientzia dut. Erizain laguntzaile titulatur naiz eta Haur Hezkuntzako graduak azken mailako ikaslea. 664 29 58 71

Bergara. Garbiketa edo zaintza lanetan jarduteko prest nago, orduka edo etxean bertan bizi izaten. 602 04 31 90

Debagoiena. 15 urteko esperientzia duen emakumea zaintza lanak egiteko gertu. Arratsaldetan, orduka, edota gaueetan ere bai. Gidabaime-narekin, legezko agiriarekin eta soziosanitario titulazioarekin. Telefonoa: 680 87 38 66

Debagoiena. Asteburuetan edo asteazken orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketara. 632 19 08 26

Debagoiena. Asteburuetan edo asteazken orduka lan egingo nuke, zaintza zein garbiketara. 632 63 77 38

Debagoiena. Emakume arduratsua garbiketa edo zaintza lanetan jarduteko gertu. Deitu 663 48 05 25 telefono zenbakira.

Debagoiena. Emakumea lan bila, etxean bertan bizitzen edo orduka. Haur eta pertsonen zaintza lanetarako, garbiketarako. . 663 65 76 85

Debagoiena. Emakumea prest garbiketa lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko, orduka zein gauez. 641 44 16 30

Debagoiena. Erizain laguntzailea gertu orduka zaintza eta denetarioko garbiketarako egiteko. Telefonoa: 620 23 58 15

Debagoiena. Eskarmen-tu handia daukat ostalaritzan, garbiketa lanetan eta umeak eta pertsona nagusiak zaintzen. Lan bila nabil. 604 37 79 34

Debagoiena. Esperientzia duen neska orduka nagusiak zaintzeko eta garbiketara aritzeko gertu. Telefonoa: 697 86 49 00

Debagoiena. Esperientziadun neska, titulazioarekin, nagusiak zaintzeko gertu. 15:30etik aurrera eta asteburuetan ere bai. 688 72 88 97

Debagoiena. Etxeak, portalak, tabernak eta abar garbitzen lan egingo nuke. 610 99 70 43

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka lan egingo nuke, nagusiak zaintzen edota atari eta abar garbitzen. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 83

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten edo orduka nagusiak zaintzeko edota atari eta abar garbitzeko gertu nago. Soziosanitario titulua daukat. Telefonoa: 643 73 62 36

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsona nagusiak zainduko nituzke. 613 78 22 56

Debagoiena. Etxean garbitzen, umeak zaintzen, tabernari eta abarrean lan egingo nuke. Telefonoa: 662 47 28 88 (Julia)

Debagoiena. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Telefonoa: 688 85 46 59

Debagoiena. Geriatriako laguntzaile izandakoa naiz eta pertsona nagusiak zaintzeko gertu nago. Erabateko prestasunarekin. 602 10 19 11

Debagoiena. Goizetan pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Soziosanitario titulua daukat. 647 31 48 17

Debagoiena. Lan bila nabil eta eskarmen-tu daukat lan mota desberdinetan: mekanikari, eraikuntza, garbiketa eta zaintza lanetan. Telefonoa: 642 61 12 59

Debagoiena. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 651 81 63 91

Debagoiena. Orduka, gabiketa lanetan edo pertsona nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Baita asteburuetan ere. 612 56 12 39

Debagoiena. Lana egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 691 03 25 02

Debagoiena. Lanean hasteko gertu nago pertsona nagusiak edota umeak zaintzen, eta baita garbiketa lanetan ere. Soziosanitario titulua daukat. 664 30 52 22

Debagoiena. Legezko agiriak eta esperientzia dituen emakumea lane-rako gertu. Etxean bertan bizi izanda nagusiak zaintzen, garbiketara edota egoitza eta abarretan sukalde laguntzaile. Telefonoa: 622 71 65 68

Debagoiena. Margolaritza, garbiketa edo mantenu lanetarako prest nago. 640 66 24 99

Debagoiena. Mutila lanean hasteko prest: zaintza, garbiketa, hostalaritza eta abar. Telefonoa: 643 08 15 23

Debagoiena. Mutila prest garbiketa lanak, nagusiak zaindu edo eta tabernan zerbitzari lanak egiteko. Astelehenerik ostiralera edota asteburuetan prest. 624 07 86 36 (Alejandro)

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat lanean hasteko gertu nago, gaue-tan zein orduka. Telefonoa: 689 90 85 13

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen, garbiketara edota etxeko langile moduan lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta esperientzia daukat. Deitu 641 51 13 06 telefonora.

Debagoiena. Nagusiak zaindu eta garbiketa lanak egiteko emakumezkoa prest. Astelehenerik ostiralera eta asteburuak barne. 631 72 60 44 (Nelsy)

Debagoiena. Nagusiak zainduko nituzke, etxean bertan bizi izaten edo bestela. 608 83 06 03

Debagoiena. Neska arduratsua gertu nagusiei laguntza emateko, umeak zaintzeko edota atari, elkarte eta abar garbitzeko. Deitu 612 27 68 33 zenbakira.

Debagoiena. Neska arduratsua gertu, etxean bertan bizi izaten edo bestela, lan egiteko. Soziosanitario ikasketak egiten ari naiz. Asteburuetan ere bai. Telefonoa: 632 21 99 06

Debagoiena. Neska arduratsua goizetan nagusiei laguntza emateko, umeak zaintzeko edota atari, elkarte eta abar garbitzeko gertu. Telefonoa: 604 88 27 26

Debagoiena. Orduka garbiketa lanak egiteko prest. Interesatuok deitu telefono zenbaki honetara: 642 37 01 92

Debagoiena. Soziosanitario titulazioa daukat eta lan egingo nuke gaue-tan, asteburuetan zein orduka. 631 12 51 27

Eskoriatza eta inguruan. Nagusiak zaintzen, garbiketara, saltzaile edota antzeko lanetan aritzeko gertu nago. 602 51 59 08

Orduka. Orduka etxea edo atariak garbitzen eta nagusiak zaintzen lan egingo nuke. Zaintza lanetan esperientzia eta erreferentzia onak daukat. 613 93 35 62

5. IRAKASKUNTZA

501. JASO

Eskola partikularrak Aretxabaletan. DBH4-ko ikasleak, eskola partikularrak behar ditu Aretxabaletan. 650 59 24 91 edo 673 25 02 08

8. DENETARIK

801. SALDU

Panteoia Arrasaten. Panteoia saltzen da Arrasaten, marmolezko hila-rriarekin. 677 67 51 82 edo 699 64 36 49

OROIGARRIA

Jose Luis Nevado Ortiz

Eskolako gurasoa

2023ko martxoaren 22an hil zen.



Bat egiten dugu senideen saminarekin.



Kurtzebarri Eskolako ikasle, irakasle eta familiak. Aretxabaletan, 2023ko martxoaren 24an.

HILDAKOAK

- M. Luisa De Fuentes Celemin.** Arrasaten, hilaren 18an. 68 urte.
- Pilar Iturbe Garai.** Donostian, martxoaren 18an. 80 urte.
- Antoni Aranzabal Amiano.** Elgetan, martxoaren 18an. 93 urte.
- Garbiñe Armendariz Artola.** Eskoriatzan, martxoaren 19an. 89 urte.
- Peru Bengoa Galdos.** Aretxabaletan, martxoaren 21ean. 59 urte.
- Margarita Busto Zabaleta.** Arrasaten, martxoaren 21ean. 88 urte.
- Juan Mari Leturia Arrue.** Bergaran, martxoaren 21ean. 85 urte.
- Daniel Rubio Palomo.** Eskoriatzan, martxoaren 21ean. 78 urte.
- Mertxe Elorza Ezkibel.** Oñatin, martxoaren 21ean. 91 urte.
- Manuel Porras Acedo.** Oñatin, martxoaren 21ean. 85 urte.
- Jose Luis Nevado Ortiz.** Aretxabaletan, martxoaren 22an. 61 urte.
- Anai Agustín Perez de Arenaza.** Oñatin, martxoaren 22an. 93 urte.

ASTEA GOIENA TELEBISTAN



ARETXABALETAKO GAZTETXOAK KANTUAN

Heldu zaie aretxabaletar kantari gaztetxoei euren dohainak erakusteko momentua, Beñat Arizabaletak lagunduta.



'INOIZ PROBATU DUZU ARBIGARARIK?'

Jabier Iribecamposek emango ditu azalpenak, eta Juan Luis Arkauzek eta Antton Zumaldekin kordinatuko dituzte.

'Landara' Astelehena, 18:00, 20:00 eta 22:00



GOIENA TELEBISTA NAHIERAN:

goiena.eus/telebista

Edo eskaneatu aldameneko qr kodea.

IRAGARKIA JARTZEKO:

943 25 05 05

SAILKATUAK@GOIENA.EUS

WWW.GOIENA.EUS/SAILKATUAK

- Eguaztengoen 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Hortik aurrera ez da onartuko aldaketarik, ez eta iragarkia bertan behera uzterik ere.
- GOIENAK ez du argitaratzen diren iragarkiaren ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

ESKELA



Jesus Mari Abarrategi Ibabe

Nati Lezaren alarguna



2023ko martxoaren 22an hil zen, 67 urte zituela.

Seme-alabak: Ion eta Jaiotze Sagastizabal, Julen. Biloba: Enaitz. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue. Agurra senide artean egingo da.

Familiak Arrasate Berri Tanatorioan (San Andres auzoa) hartuko zaituzte 11:00etatik 13:00etara.

OROIGARRIA



Peru Bengoa Galdos



Goiz fan haz, gorritxo; bizitza sakon amastuta, baina. Gogoan hire grina eta kemena, oroimen iturri agortezina. Agur eta ohore, Peru. Hire nafar haizea gurekin betiko.

Hire peña. Aretxabaletan, 2023ko martxoaren 24an.

ESKER ONA



Peru Bengoa Galdos



2023ko martxoaren 21ean hil zen, 59 urte zituela.

Emaztea: Mentxu Etxebarria Arteun. Alabak: Haizea eta Oihane. Anai-arrebak, ezkon anai-arrebak, ilobak, lehengusu-lehengusinak eta gainerako ahaideak.

Tontor guztietan oroituko gara zutaz Zu denon indar Zaindu gaitzazu, aita Mendingan ikusiko dugu elkar.

Familiak jasotako dolumin eta maitasun keinu guztiak eskertu nahi dizkizue. Agurra senide artean egingo da.

ESKER ONA



Roke Larrañaga Gallastegi



2023ko martxoaren 15ean hil zen, 87 urte zituela.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gurekin egon zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana familiaren izenean.

Bergaran, 2023ko martxoaren 24an.

ESKER ONA



Antoni Aranzabal Amiano

Lorenzo Ugaldere alarguna



2023ko martxoaren 18an hil zen, 93 urte zituela.

Eskerrik asko Antoniren ondoan egon eta laguntasuna eskaini diozuen guztioi. Bereziki eta bihotzez eskertu nahi ditugu Elgetako Osasun Zentroko sendagile Elena eta Edurne erizaina, Antoni goxotasunez eta profesionaltasunez zaintzeagatik azken unera arte.

Bihotzez, eskerrik asko. Iloba, lehengusu eta ahaide guztien partetik.

Elgetan, 2023ko martxoaren 24an.

ESKER ONA



Leire Irizar Urzelai



2023ko martxoaren 14an hil zen, 37 urte zituela.

Beti izango zara gure bihotzean.

Eskerrik asko egun hauetan babesa eta gertutasuna adierazi eta gure ondoan izan zareten guztioi. Bihotz-bihotzez besarkada handi bana, familiaren izenean.

Ondra meza zapatuan izango da, martxoaren 25ean, 19:30ean, Oñatiko Agustindarren elizan.

Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko. Oñatin, 2023ko martxoaren 24an.

URTEURRENA



Esteban Urmeneta Gamba



2022ko martxoaren 25ean hil zen, 80 urte zituela.

Urteurreneko meza zapatuan izango da, martxoaren 25ean, 19:00etan, Oñatiko Mikel Goiaingeruaren parrokan.

Elizkizunetara joango zaretenoi eskerrik asko, sendikoen izenean. Oñatin, 2023ko martxoaren 24an.

URTEURRENA



Kontxi Erostege Bidaguren



2022ko martxoaren 26an hil zen, 65 urte zituela.

Gure artetik joan zinen, baina zure irribarrea gurekin gelditu da.

Elizkizuna datorren igandeaz izango da, martxoak 26, 11:00etan, Antzuolako Errukizko Amaren parrokan.

Bertaratuko zaretenoi aldeaz aurretik eskerrik asko. Antzuolan, 2023ko martxoaren 24an.

Oroilore

Maitasunez bizi, maitasunez agurtu

Gari deitu zueneran edo, nahitago badituzte, jakinarazi zuten auzoguru-kospainari gurekin nahi duzuela agurtu maite duzuen.

Mariozen, Ibanen eta Maribiren partetik, besarkada magikoak zuzentzeko, bihotza sendatzeko balio duten horietakoak. Guk baditugu gordeta zuzentzeko, gure beharraz duzuenak.

Mario, Iban eta Maribi

Tel.: 617 44 21 55 • BERGARA • ANTZUOLA

Moyua OÑATI • Tel.: 943 71 66 37



BERRI-ZAKUA



Sagardotegira
Arrasateko euskaltegiko ikasleak Iturrieta sagardotegian egon ziren aurrekoan. Euskaraz jardutera joan ziren Aramaiora. "Trikitia eta guzti eraman genuen eta ederki jan ere bai. Txuleta mundiala, eta giroa, ezin hobea! Txotxi!", azaldu dute.



50 urte ezkontuta
Antonio Ruiz eta Marga Bengoa arrasatearrek asteburuan ospatu zuten familiarekin, eta laster bidaia ederra egingo dute. "Zorionak, bikote".

ZORION AGURRAK



OÑATI
Markel Egaña Agiriano
Martxoaren 29an, 3 urte. Zorionak, Markel! Ondo-ondo pasau eguna. Patxo haundi bat!



BERGARA
Edith Zangitu Garmendia
Martxoaren 28an, 5 urte. Zorionak, Edith! Patxo erraldoi bat danon partetik! Asko maite zaitzugu!



OÑATI
Eneko Osés Arregi
Martxoaren 28an, 8 urte. Zorionak, pitxin! Zortzi urte! Oso ondo pasau zure eguna.



BERGARA
Arhane Calvo Urdanpilleta
Martxoaren 27an, 3 urte. Zorionak, sorgintxo! Zu bezain egun politxa euki, txikitxu. Patxo haundi bat etxeko danon partetik.



ARRASATE
Jose Berrio
Martxoaren 27an, 93 urte. Zorionak, aittite!



OÑATI
Luka Vaz Olabe
Martxoaren 27an, 9 urte. Zorionak, polit hori! Primeran ospatu dezazula zure bederatzigarren urtebetzea. Muxu potolo bat familiako guztion partetik.



ARRASATE
Xabier Santa Cristina
Martxoaren 26an, 12 urte. Zorionak, Xabier, etxekoan partetik.




ARRASATE
Daniel Delgado Saenz
Martxoaren 26an, 5 urte. Zorionak, maittia! Ederto ospatu zure eguna eta patxo haundi bat familia guztiaren partetik. Asko maite zaitzugu!



OÑATI
Beñat Arnaiz Txintxurreta
Martxoaren 25ean, 2 urte. Zorionak, polit hori! Ondo-ondo pasau zure eguna eta muxu potolo bat etxeko danon partetik!



OÑATI
Daniel Palacin Errasti
Martxoaren 25ean, 7 urte. Zorionak eta urte askotarako, Danel! Ondo pasa zure urtebetetze egunean eta jaso zazpi muxu erraldoi danon partetik.



BERGARA
Kenar Da Silva Moreno
Martxoaren 23an, 12 urte. Zorionak, Kenar! Egun zoragarria pasau eta jarraitxu zaren modukua izaten. Maite zaitzugu.



ARRASATE
Telmo Axpe Pacios
Martxoaren 22an, 3 urte. Zorionak, 'bitxito'! Ondo pasau zure egunean! Patxo potoloak etxeko partetik! Muak!



ARETXABALETA
Maddi Amozarrain Olabarria
Martxoaren 21ean, 11 urte. Zorionak, Maddi! Ilargiraino eta buelta maitte zaitzugu!



ARETXABALETA
Gabrielle Antxia
Martxoaren 17an, 3 urte. Zorionak, Gabi, zure urtebetetze honetan! Hiru urte, ze haundi! Merezitako moduen ospatzera! Etxeko danon partetik.



BERGARA
Helene Sanchez
Martxoaren 15ean, 9 urte. Zorionak, printseza! Oso ondo pasatu zure urtebetetze egunian! Muxu asko!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTENEKO EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 25 05 05 / kultura@goiena.eus

EGUBAKOITZA 24

ESKORIATZA Ipuin kontaketa helduendako

Yoshi Hiokiren eskutik, Ahoz Ahoz jaialdiaren baitan. Debalde. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ELGETA Udaberriko bingo-jokoa
Erretiratuendako. Aurretik, txistor-jana. *Ozkarbi elkartean, 19:00etan.*

ZAPATUA 25

OÑATI 'Gaztagintzaren sekretuak' bisita gidatua

Izenak emateko: 943-78 28 94 edo *arantzazu@gipuzkoanatura.eus*. *Parketxean, 10:30ean.*

BERGARA Pello Garitanoren omenezko proba
Lokatzen eskutik. *San Martin plazan, 11:00etan.*

ESKORIATZA Gazte Eguna
11:30ean, mahai-ingurua; 12:30ean, triki-poteoa; 15:00etan, bazkaria; 20:30ean, Youth United eta Lizartxo taldeen erromeria; eta 23:30ean, pintxada kolektiboa. *Eskoriatzan.*

ARRASATE Ludoteka ibiltaria
3 eta 12 urte artekoendako. Ordutegia: 11:30-13:30. *San Andresko gazte txokoa.*

BERGARA Bertso bazkaria
Xabi Igoa, Ane Zuazubiskar eta Gari Lopez de Munain bertsotan. *Gorlako kantinan, 14:30ean.*

ELGETA Modelismo-maketen gaineko tailerra
Ibai Zenekortarekin. *Gaztelekuan, 16:00etan.*

ESKORIATZA Sukaldaritza tailerra: karapaixoa
12-16 urte arteko gaztetxoendako. *Gaztelekuan, 16:45ean.*

BERGARA 'Maddiren trajeria' pastoral
Lapurdiko Sara eta Ainhoa eta Nafarroako Zugarramurdi eta

Urdazubi herriek osatzen duten Xareta eskualdeko biztanleek sortutako pastoral. *Pilotalekuan, 17:00etan.*

ARRASATE 'Arrainak bihotzean' antzezlan
Haurrentzako, euskaraz, Mar-Mar Teatroyen eskutik. Irene Hernando, Aritza Rodriguez eta Maitane Serrano aktoreak oholtza gainean. Sarrerak, bost euro. *Amaia antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE Karaokea
Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ARRASATE Ekain pailazoa
Aho bete hortz ikuskizuna egingo du, Arrano elkartearen 50. urteurrenaren harira. *Foruen plazan, 17:00etan.*

ARETXABALETA Fun Dantz jaialdia
Euskal Herriko dantza urbano taldeen topaleku eta lehiaketa. Sarrerak, bost euro. *Ibarra kiroldegian, 18:30ean.*

OÑATI 'Sehaska kanta gorriari' antzezlan
Arta kolektiboaren eskutik, Alaine Agirreren *Bi aldiz erditu zinen nitaz* ama liburuan oinarrituta. *Santa Ana antzokian, 19:00etan.*

DOMEKA 26

ESKORIATZA Mendi irteera
Eskoriatza-Apotzaga-Ganborralde-San Adrian-Eskoriatza ibilaldia egingo dute. *Fernando Eskoriatza plazan, 09:30ean.*

ELGETA Bisita gidatua lubakietara
Izen-ematea: 943-79 64 63 edo *turismo@debagoiena.eus*. *Memoria Historikoaren Euskal Interpretazio Zentroan, 10:00etan.*

ANTZUOLA San Isidro pilota txapelketa
Aurre-faseko partiduak. Finala, maiatzaren 13an. *Frontoian, 10:00etan.*

ELGETA Ahuntzen eta Antxumeen lasterketak
Gazteen proba, lau kilometrokoa; eta helduena, hamabostekoa. *Mendizaleen plazan.*

BERGARA Bertako zuhaitzen landatzea
Kukubasoren eskutik, Agirretxeberri. *Miguel Altuna institutuko aparkalekuan, 10:30ean.*

ARRASATE Familia-meza
Katekiesian parte hartzen duten familiendako. *Parrokian, 11:00etan.*

ARETXABALETA Murura ibilaldia
Sarek deituta. 11:00etan argazkia tontorrean. *Aretxabaletan.*

OÑATI The Lizards taldea
Bartzelonatik datorren hirukotearen zuzeneko. Sarrerak, sei eurotan, Txokolateixan eta udal webgunean. *Gaztelekuan, 12:30ean.*

ARRASATE Bitxigintza tailerra
Gaztetxoendako. *Tren geltokiko gaztelekuan, 18:00etan.*

ARETXABALETA 'Tomaxen abenturak' antzezlan
Ahatetxo itsusia eta *Txanogorritxo* ipuinak antzeztuko dituzte Muxik eta Tomaxek. Sarrerak, bost euro. *Arkupen, 17:00etan.*

ESKORIATZA 'Clifford' filma
Umeendako. Sarrerak, bi euro. *Zaldibar antzokian, 17:00etan.*

ARRASATE Familian jolasean
0-8 urte arteko haurrendako eta euren familiendako askotariko jolasak. *Usaetxe ludotekan, 17:30ean.*

ESKORIATZA 'El cuarto pasajero' filma
Helduendako. Sarrerak, hiru euro. *Zaldibar antzokian, 19:00etan.*

ARAMAIO 'El acontecimiento' filma
Audrey Diwanen lana, zinema-ziklo feministaren baitan. *Kultura etxean, 19:00etan.*

ASTELEHENA 27

OÑATI Pentsiodunen elkarretaratzea
Pentsio duinak eskatzeko.
Foruen plaza, Oñati 12:00etan

ARRASATE Iktusaren gaineko hitzaldia
Aita Menniko mediku Rafael Calbetok egingo du berba, Arrasateko Nagusien Kontseiluak gonbidatuta.
Kulturate, Arrasate 17:30etan

LEINTZ GATZAGA 'Pentsatu, hausnartu...' hitzaldia
Susana Diaz de Durana erizainak eta Jesus Millas medikuak egingo dute berba.
Garro jauregian, 17:30ean.

ARETXABALETA Leizarra Musika eskolako ikasleen entzunaldia
Haize-egur eta haize-metal instrumentuekin. Debalde.
Zaraian, 18:00etan.

ARRASATE 'Turandot' opera emanaldia
Opera 2001 taldearen eskutik. Sarrerak salgai, leihatilan.
Amaia antzokian, 20:15ean.

MARTITZENA 28

ARRASATE Haur eta nerabeen emozioen gaineko hitzaldia
Gurasoendako. Leyre Canok egingo du berba. Debalde.
Kulturaten, 18:00etan.

ARETXABALETA Leizarra Musika Eskolako ikasleen entzunaldia
Panderoa, akordeoia, biolina eta flauta kontzertua. Sarrera, debalde.
Zaraian, 18:00etan.

ESKORIATZA Musika eskolako en-duberriko kontzertua
Askotariko instrumentuekin, talde txikitan banatuta.
Zaldibar antzokian, 18:00etan.

OÑATI Literatura solasaldia
La fórmula preferida del profesor liburuaren gainekoa, Monica Leivarekin.
Zinema aretoan, 18:30ean.



MAR-MAR TEATRO

ARRASATE 'Arrainak bihotzean' antzez-lana
Haurrendako, euskaraz, Mar-Mar Teatroren eskutik. Irene Hernando, Aritza Rodriguez eta Maitane Serrano aktoreak egongo dira oholtzan. Sarrerak, bost euro.
Bihar, zapatua, Amaia antzokian, 17:00etan.

ARRASATE Aniztasun funtzionala dutenen eskubideen gaineko solasaldia
Elena Zaratek, Nagore Iñurritegik eta Agurtzane Barrutiak kontatuko dituzte euren bizipenak. Herritar guztiendako irekia.
Kulturaten, 19:00etan.

ARRASATE 'Emakumeak Sinodoa egiten Gipuzkoan' hitzaldia
Carmen Albak eta Leire Atxagak egingo dute berba.
Abade-etxean, 20:00etan.

EGUAZTENA 29

ARETXABALETA Leizarra Musika Eskolako ikasleen entzunaldia
Euskal dantzen emanaldia. Debalde.
Zaraia aretoan, 18:00etan.

ARRASATE 'Besoetako ipuinak' saioa, Ana Apikarekin
1-3 urte artekoendako. Gonbidapenarekin.
Kulturaten, 18:00etan.

EGUENA 30

ARRASATE Sasoibide
Elorriora joango dira.
Zalduspe gerealakuan, 09:30ean.

OÑATI Ostegun kontalariak
Ellsie & Dekker ipuina kontatutako du Ellsie Xalbadorrek. Gonbidapenarekin.
Haurren liburutegian, 18:00etan.

ESKORIATZA Ipuin kontaketa: Bego Alabazan
Debalde.
Liburutegian, 18:00etan.

ARRASATE Literatura solasaldia
Leo Perutz idazlearen *Gauetz harrizko zubiaren azpian* liburuaren gainekoa.
Kulturaten, 18:30ean.

ARETXABALETA 'Elbira' dokumentala
Elbira Zipitria Irastortza hezitzaile eta euskaltzale aitzindariari buruzko dokumentala. Sarrera, debalde.
Zaraia aretoan, 19:00etan.

OÑATI 'Los reyes del mundo' filma
Zineklubean eta jatorrizko bertsoian. Sarrerak, bost euro.
Zinema aretoan, 20:00etan.

BERGARA 'Kantuen kontuak' emanaldia
Ines Osinagarekin eta Joseba Sarrionaindiarekin. Dozena bat kantu eta kantu bakoitzari sarrera literario bat. Sarrerak, zortzi euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

BERGARA 'Corsage' pelikula
Zineklubean, jatorrizko bertsoian eta azpitituluekin. Sarrerak, hiru euro.
Seminarixoa, 20:00etan.

ARRASATE Kooltur Ostegunak: Orbel taldea
Sarrerak, zazpi euro.
Gaztetxean, 22:00etan.

ZINEMA

ARRASATE

AMAI ANTZOKIA

La novia de América
Domeka: 19:30.

Asterix y Obelix
Domeka: 17:00.

BERGARA

SEMINARIXOA

Todos a la vez en todas partes
Domeka eta astelehena: 19:30.

Sablehortz kapitaina eta diamante magikoa
Domeka: 17:00.

OÑATI

KULTURA ETXEA

Almas en pena de Inisherin
Egubakoitza eta zapatua: 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:30.

Violeta, el hada traviesa
Zapatua eta domeka: 17:00.

GASTEIZ

FLORIDA

65 millones al año
Egubakoitza, 19:30, 21:30.
Zapatua eta domeka: 11:30, 19:30, 21:30.
Astelehenetik eguenera: 19:45.

Bajo terapia
Egubakoitza eta zapatua: 21:30.
Domeka: 21:00.
Astelehena eta martitzena: 20:00.
Eguaztena: 20:15.

Crónica de un amor efímero
Egubakoitza eta zapatua: 17:15, 22:00.
Domeka: 16:30, 21:30.
Astelehenetik eguaztena: 17:15, 19:45.
Eguena: 17:15.

Honor entre ladrones
Domeka: 11:45.

El caftan azul
Egubakoitza eta zapatua: 21:45.
Domeka: 21:15.
Astelehenetik eguenera: 19:15.

El gato con botas
Zapatua eta domeka: 12:00.

El hotel de los lios
Egubakoitza: 16:45, 18:45, 22:00.
Zapatua: 11:30, 16:45, 18:45, 21:45.
Domeka: 11:30, 16:45, 18:45, 21:45.
Astelehenetik eguaztena: 17:30.
Eguena: 17:00.

John Wick 4
Egubakoitza eta zapatua: 18:45, 22:00.
Domeka: 18:30, 21:45.
Astelehena: 20:00.
Martitzenetik eguenera: 19:30.

Mari(dos)
Egubakoitza: 17:00, 19:15.
Zapatua: 11:30, 17:00, 19:15.
Domeka: 16:30, 18:45.
Astelehenetik eguaztena: 17:30.
Eguena: 17:00.

Momias
Egubakoitza: 16:45, 19:00.
Zapatua: 11:45, 16:45, 19:00.
Domeka: 11:45, 16:30, 18:30.
Martitzenetik eguenera: 17:30.

Un paseo con Madeleine
Egubakoitza eta zapatua: 17:00, 21:00.
Domeka: 16:30, 21:00.
Astelehenetik eguenera: 19:00.

Violeta, el hada traviesa
Zapatua eta domeka: 12:00.

KRITIKA

Sparta ★★★★★
Zuz.: Ulrich Seidl. **Herr.:** Austria (2022). **Aktoreak:** Georg Friedrich, Florentina Elena Pop. **Iraupena:** 101 minutu.

Gai arriskutsua

ANTONIO ZABALA

Sparta filma polemikaz inguratuta heldu zen Donostia Zinemaldira, filmazioan parte hartzen zuten haurren tratu desegokiari buruzko zurrumurruak sortu zirelako. Filmaren gaia pedofiliari buruzkoa da. Emazte-gaia duen gizon bati hurrengana hurbiltzea gustatzen zaio. Ikusten dugu helduekin harremanetan jartzeko arazoak dituela eta hurrekin hobeto konpontzen dela. Haurrak behatzea eta, posible denean, eurekin kulunketan jolastea eta elur-bolak botatzea gustatzen zaio. Gizonaren nortasuna nahiko infantila da. Ematen du haurtzaroan gelditu dela eta haurtzaroko aztarnak ez direla desagertu. Baina, aldi berean, hurrekin jolasterakoan

sentitzen duen eszitazioak bere burua atsekabetzen du. Filmatzeko modu soila du zuzendariak. Ez da sentsazionalismoan erortzen. Kontatzen duena nahiko latza eta desatsegina da, bestela ere. Pertsonaiaren bakardadea, ezintasuna eta perbertsioa ikusten ditugu. Filmeko haurren gurasoak ez dira askorik arduratzen seme-alabez, eta, askotan, haiekin indarkeria erabiltzen dute. Pedofiloaren aita nazien jarraitzailea zen. Hala, haurtzaroan izandako eraginak heldutasuneran izandako portaeren zerikusia izan dezakeela pentsa dezakegu. Hori dena ez da askorik lotzen eta ez da oso argi geratzen filmaren interpretazio zehatza egiteko.



AZKEN BERBA

MIKEL ARREGI
ASKASIBAR

Denboraren bila

Iratzargailua. Dutxa. Radio Nacional. Ogi txigortua, tomatea eta urdaiazpikoa. Lehen *whatsapp*-a lanetik. Lehen elkarrizketa SER-en, lehenengo korteak. Egunkariari begiratua. Egun on, Ramon. Egun on, Maite. 10:00etako buletina...

Zutabetxo hau beharrean, GOIENA aldizkari osoa beharko nuke egun soil baten goizetik gauera egin beharreko guztiak kontatzeko. Ez dut uste nire egunerokoa aparteko ezer denik, jende gehienak baitu eginbeharrez betetako bizitza, eta, akaso, nire hau irakurtzen ari den norbaitek pentsa dezake zertaz kezkatzen ari naizen. Dena dela, benetan nekatuta sentitzen naiz, zurrumbilo baten sartuta, ia ezertarako denborarik gabe.

Estresa gaitz handienetakoa da; batez ere, bizitza pribatuak eta profesionalak nahi baino gehiagotan bat egiten dutenean. Virginia Tech unibertsitate entzutetsuaren ikerketa baten arabera, *whatsapp*-ek eta posta elektronikoen langileoi sortzen diguten antsietateak gudan bakarrik ez, ingurukoengan ere eragina du, familia eta bikote harremanetan gatazkak sortuta.

Hiperkonektibitateak, etengabe mugikorrera lotuta egote horrek, gure buru osasuna kiskaltzen du. Itzal dezagun gar hori, beharra daukagu. Nik bai, behintzat.

BUKATZEKO

Oñati errealitate birtual bidez bisitatze aukera

Bihartik aurrera errealitate birtualeko betaurrekoekin ikusi ahal izango dira Arrikutz Kobak, Oñatiko Unibertsitatea eta Arantzazuko Santutegia, bertaratu gabe; gainera, Kobazuloen Eguna ospatuko da asteburuan eta ekintzak antolatu dituzte Arrikutzen

Idoia Aranbarri Arzuaga OÑATI

Martxoaren 25etik aurrera, errealitate birtualean ikusteko diren betaurrekoak jantzi eta 360 gradutan ikusi ahal izango dira Arrikutz kobak. Horrela, kobazuloetan barrena ibili ahal izango dira herritarrak eta haitzuloko ondare paleontologikoa, espeleologikoa eta mitologikoa ezagutuko dituzte, hara sartu gabe. Gainera, ibilbide birtualean zehar, *off* ahots batek azalduko die ikusten ari diren horren inguruko informazioa. Hamabi minutu iraungo du eta Arrikutz koban bertan eskainiko da.

Irisgarritasunaren aldeko beste pauso bat dela adierazi du Oñatiko Turismo teknikari Ikerne Altubek; izan ere, mugikortasun arazoak dituztenek dagoneko badaukate aukera Joelette aulkiekin barrura sartu ahal izateko: "Hau beste pauso bat da. Betaurreko horiekin ez dago koba barrura sartu beharrik barrukoa den bezala ikusteko".

Modu horretan, Arrikutzeko 53. galeria, Aldaola errekaiko ikuspegi osoa eta Marcel Loubens galeria xehetasun guztiekin erakutsiko dituzte betaurreko horiekin. Gainera, gune haietan



Errealitate birtualeko betaurrekoekin ikusi ahal izango dira Arrikutz Kobak. O.G.T.A.

grabatu zituzten Paul Urkijoren *Irati* filmeko zenbait pasarte. Adibidez, Eneko pertsonaia lurrrera jausten den momentua da horietako bat. Arrikutzeko eszentrika ere ikusiko dute betaurreko horiekin.

Oñati, 360 gradutan

Halaber, Oñati ezagutzeko ere errealitate birtualeko betaurrekoak jarriko dituzte Oñatiko eta Arantzazuko turismo bulegoetan; hura ere martxoaren 25ean jarriko dute martxan. Kasu horretan, lau minutuko bidaian murgilduko dira erabiltzaileak, eta Oñatiko Unibertsitatea, Arantzazuko Santutegia eta Arrikutzeko 53. galeria ikusiko dituzte betaurrekoen bidez.

Kobazuloen XIII. Eguna

Gainera, asteburu honetan ospatuko dute Kobazuloen XIII. Eguna Lurpean egitasmoa kobek, eta Euskal Herriko zortzi kobazuloen artean bisitatu ahal izango da Arrikutzeko zapatuan eta domekan. Espeleotxiki bisita egingo dute bihar, eta 6 urtetik gorako haurrek eta familiek hartu ahal izango dute parte. 53. galerian dauden historiaurreko animalien erreplikak ikustean gain, kobazuloa bere egoera naturalean ezagutuko dute bisitariak.

Bestalde, hilaren 26an, Koban Eguna ospatzen jarraitzeko, Arrikutzeko 53. galeriako bisita turistikoak erdi prezioan egiteko aukera egongo da. Zozketak ere egingo dituzte bisitarien artean. Bi egunetako bisitaldiak egiteko aurrez erreserba egiteko eskatu dute antolatzaileek, 943 08 20 00 telefono-zenbakira deituta.

**Komunikazio
Campusa
2023**

ANTOLATZAILEAK:

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

mn

Mondragon
Unibertsitatea

Humanitate eta Hezkuntza
Zientzien Fakultatea

Bideo-podcasta

Sorkuntza eta zabalkundea sare sozialetan



Anima zaitetz eta eman izena!

